

■ **Larzabaleko ikastolak** berritzeko laguntza behar du



ARGIA

■ **Alfonso Sastre**

"Gizartean eragina izango duen antzerkia birsortuko da"

■ **Patxi Zabaleta (NaBai)**

"Ibarretxe Planaren antzeko bat beharko genuke Nafarroan ere"

2007ko apirilaren 1a | LXX. urtea | 2.082 zenbakia | 3,60 euro

Aldaketa klimatikoa **Zein da larrialdi plana?**





 euskadi**irratia**
gertu

Pertsonaia

- 13 Asier Hormaza:** "ETari buruzko film serio bat eskatzen dut".
Amets Arzallus.



Asier Hormaza.

Iritziak

- 21 Asisko Urmeneta.** Gora Pro Nobis.
22 Itxaro Borda. Ttakun (h)errenka.
23 Oier Araolaza. Garizumaren ziabogan.
24 Arantxa Urbe. Hezkuntzaren zereginaz Kubatik.
Amatiño. Irlanda, ametsen oilanda.
25 Pako Sudupe. Euskadi Sariak.
Joxemari Ostolaza. Deseroso.
26 Nerea Elustondo.
Bertso berriak egunerokoari jarriak.



Patxi Zabaleta.

Erdiko kaiera

- 31 UNE, doinu indartsuak lasaitasun bila.**
Jon Gurrutxaga.
33 Argitalpenak.
Iker Barandiaran eta Pilar Iparragirre.
36 Ezpalak. Jon Torner.
38 Denbora-pasak.
Ana Zambrano.
40 Ihesi. Pasaiaiko badia: Natura eta industria elkarriketan.
Jon Gonzalo eta Lander Garro.
44 Makina bat kontu.
Jabier Agirre,
Joxerra Aizpurua,
Jakoba Errekondo eta Nagore Irazustabarrena.



Termometroa

- 50 Iberdrola: liderra negozio eolikoan.** Daniel Udalaiz.
52 Pagoak ikastolaren sustengu. Unai Brea.
54 Bero-beroan.
Xabier Letona, Onintza Irueta eta Juan Mari Arregi.
56 Net Hurbil. Darfur: genozidio baten geopolitika.
Pello Zubiria.

6 | Aldaketa klimatikoa



Aurreikuspenei aurre egiteko premia neurriak

Ezbairik gabe, azkenaldian denon ahotan dagoen arazoa da klima aldaketarena. Negutegi efektuak ekarriko dituen ondorioei buruz Europako Batzordeak eginiko txostena eta horri aurre egiteko Europar Batasunak, Espainiako Estatuak eta EAEk dituzten planak aztertu ditugu.

18 | Desertua Ondarroako itsasertzean

Urko Apaolaza

47 | Patxi Zabaleta

Xabier Letona

58 | Azkena

Iñigo Aranbarri

27 | Alfonso Sastre

Urte asko iraun duen lehortearen ondoren 2007. honetan *iHan matado a Prokopius!* antzezlanaz taularatu du Alfonso Sastrek. Estreinaldia aitzakia hartuta bere Hondarribiako etxera hurbildu gara, teatroaren iraganaz, orainaz eta batez ere etorkizunaz hitz egiteko.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Joxe Mari Irazusta. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Erredakzioa: Urko Apaolaza, Jon Artano, Mikel Asurmendi, Gorka Bereziartua, Mikel Garcia eta Onintza Irueta. Argazkilaria: Dani Blanco. Produzioa: ANTZA, S.A.L. Sareko Argia: Lore Agirrezabal, Naiara Irueta, Eli Pombo eta Jon Torner.

Kudeatzailea: Berdaitz Goia. Salmenta Burua: Bego Zuza. Harpidetza: Urtzi Azpiroz. Publizitatea: Nere Armendariz, Urko Vivar. Idazkaritza Teknikoa: Ixabel Bereziartua. Sustapena: Esti Parada. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde, Aloña Soraluze. Bezeroen harrera: Olatz Korta.

Argitalpenak: Arantza Egaña. Zerbitzuak: Joxe Mari Irazusta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxa: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3 eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: P.K. 140. 48.100 Mungia. POSTA ELEKTRONIKOA. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetza: harpide@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: Adur Software Productions. S.Koop. Elk. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 130 euro. Ipar Euskal Herria: 160 euro. Espainia: 130 euro. Beste atzerriak: 165 euro. Airez: 260 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko parteidea da.

Azala: Antza. Azaleko argazkia: Dani Blanco.



KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua




Gipuzkoako Foru Aldundia



**MUNDUKO HISTORIARIK
EDERRENA**

(Gure jatorriaren sekretuak)

Hubert Reeves / Joël de Rosnay
Yves Coppens / Dominique Simonnet**MUNDUKO HISTORIARIK EDERRENA**
(Gure jatorriaren sekretuak)

Lehenengo zatian, Hubert Reeves kosmologo ezagunak, elkarrizketa moduan, unibertsoaren sorrera, gure galaxiaren eraketa, izarretan sortzen diren elementu konplexuak, eguzki-sistemaren sorrera, adina eta heriotza,... betiko gai sakon hauetako gaurko zientziak emandako erantzunak ematen dizkigu.

Bigarren zatian, Joël de Rosnayk Lurrean biziaren sorrera nola gertatu zen azaltzen digu eta eboluzioaren legeak bultzaturik biziaren ez-tandaren sekretuak agerian utzi: zelulen elkartasuna, sexualitatearen asmakuntza, heriotzaren beharra, landareen usaimena, dinosauroen zorigaitza,...

Hirugarren zatian, Yves Coppensek gizaki adimenduaren sorrera Afrikan agertu, homoen ugaritasuna aztertu, sapiensaren abentura garatu eta espeziearen geroaldiko irtenbideak azalduko dizkigu.

Gai sakonak ulertzeko adierazpen errazak aurkituko dituzu, euskara bikaina eta espezialista-dibugaltzailerik ospetsuenetakoak, liburu hau best seller bihurtu dituztenak.

**GAIAK****ARGITALDARIA****GAIXOTASUNAK
HISTORIAN****GAIXOTASUNAK HISTORIAN**

Gaixotasunak ideologien, baloreen eta une historikoen menpe aurkitu dira. Horregatik, liburu honetan, medikuntza denboran zehar aztertzen da: Txina, India, Erroma, Erdi Aroa, Islama, Errenazimendua eta XIX. eta XX. mendeak aztertzen dira medikuntzari dagokionez. Eta garai haietan gaixotasuna nola ulertzen zen ikus daiteke: desoreka energetikoa, bekatuaren ondorioa, kanpoko izaki baten erasoketa,... Horrekin batera sendagaien historia laburra ere bada: farmakopea, magia, landareen osagai aktiboak, antibiotikoak, kimioterapiak, homeopatia, akupuntura, eta baita, nola ez, herri-medikuntza eta herri-sendabideak Euskal Herrian agertuko dira.

Genetikaren oinarriak ere badaude, gaixotasun genetikokoak, gene-terapia... Eta immunologia ere: antigorputzak, alergiak,... Psikiatria eta medikuntzan baztertutako emakumeak agertuko zaizkigu azkeneko partean. Liburu bikaina gaixotasuna (osasuna) zer den jakiteko eta egoki bizitzeko.

Jadanik salgai zure liburudendan!!!

**Gure liburuak liburudendetan aurkitzen ez badituzu
klika ezazu gure: www.gaiak.net**

Datorren astean, **ARGIA** berezia

- **Ignacio Ramonet**

Amets Arzallus *Le Monde diplomatique*
aldizkariako zuzendariari galdezka



Txomin Txueka ©

- **Gernika 1937-2007**

Josu Chueca Picassoren
koadroaren historia argituko digu



- **Deabruaren abokatua** atal berria:
Fermin Etxegoien eta Sustrai
Colinaren elkarrizketa laburrak



Dinux
sistema
operatiboa opari



• ASTERO GAIA •

Aldaketa Klimatiko Negutegi efektua gainean dugu

Azken hilabeteotan, nazioarteko agendan leku nagusia klima aldaketak hartu du. Zenbaiten arabera, fenomeno horrek arazo larriak sor litzake uztetan, turismoan eta baita gizakion biziraupenean ere, batik bat Europako hegoaldean. Gauzak horrela, nazioarteko erakunde, mundu osoko gobernu eta talde ekologistak prest daude borrokan hasteko. Hala ere, aurreikuspen katastrofiko horiek hainbestearainokoak ez direla pentsatzen duenik ere badago. Horien ustez, aurreikuspenak nuklearren aldeko lobbyen aitzakiak besterik ez dira energia mota horren erabilerari bultzada berria emateko.

DANIEL UDALAITZ

Fotomuntaketak: Dani Blanco

Esako urtegia (Nafarroa).

MUNDUKO GOBERNU GUZTIAK arduratuta daude klima aldaketak planetan izango dituen ondorioekin. Azken hilabeteotan, gainera, laztu egin dira gai honen inguruko eztabaidak. Alde batetik, planeta gaur egun berotzen den bezala berotuz jarraituz gero hondamendi larria iragartzen dutenak daude eta, bestetik, ohartarazpen eta aurreikuspen horietan ezkutuko beste arrazoiak ikusten dituztenak; esate baterako, energia nuklearrari bultzada berria eman nahi izatea.

Klima aldaketaren ondorioei buruzko kezkararen erakusgarri, Europako Batzordeak egin eta joan den urtarrean jendaurrean jarritako txostenaren edukia bildu dugu. 1990. urteko mailarekin alderatuta, 2020. urterako gutxienez %20 gas kutsagarri gutxiago isurtzea proposatu du Batzordeak. Orain arte mahai gainean jarritako helburu handizaleena da, Bruselak egindako analisien emaitzek erakutsitako egoera dramatikoak saihesteko aplikatu nahi dena. Zentzu horretan, txosten horrek adierazten du klima aldaketak eragin suntsizailea izango duela Europako hegaldan, bereziki uztetan eta turismoan.

Europako Batzordearen agiriarekin batera datozen datu zientifikoei diote NASAREN zenbakien arabera 2005. urtea izan dela orain arte erregistratutako beroena eta historiako 10 urterik beroenak 90eko hamarkadakoak izan zirela.

1990. urteko mailarekin alderatuta, 2020rako gutxienez %20 gas kutsagarri gutxiago isurtzea proposatu du Europako Batzordeak. Helburu handizaleena da

Energia nuklearra

Ez dira gutxi klima aldaketaren teoriaren babesean planetaren uesteko beroketa nolabait konpontzeko energia nuklearraren alde agertu diren erakunde, *lobby* eta "adituak". Hortxe ditugu adibide gisa CEOE, Foro Nuklearra eta baita Europako Batzordea ere, zenbait proposamenekin. Baina horiei kontra eginez, badira beste jarrera zientifiko batzuk defendatzen dituztenak klima aldaketaren arazoa konpontzeko irtenbidea ez dela energia nuklearra: "Gero eta arriskutsuagoa eta ezegonkorragoa den mundu honetan, klima aldaketaren arazoa konpontzeko fisiozko energia nuklearra planeta osoan orokortu behar dela defendatzea sarkasmo dramatiko da, zientifikoki eutsiezina, eta etikoki nahiz politikoki onartezina". Hala adierazi du José Allende, Ekonomia Aplikatuaren EHUKo katedraduna denak, *Klima Aldaketa eta Energia Nuklearra* lanean. Allende ez dago ados Lurraren beroketari aurre egiteko planeta osoa nukleartu behar dela pentsatzen duten James Lovelock bezalako zientzialari ospetsuekin. Bere ustez, "klimaren aldaketak zerikusi handia du gure zibilizazioak gaur egun darabilen ekoizpen eta kontsumo ereduarekin, gure baliabideen zentzugabeko agortzearekin, baso-soiltzearekin, energia eta garraio ereduarekin... Hortxe dago arazoaren muina". (Energia nuklearraren eta aldaketa klimatikoaren arteko lotura 108. *Larrunean* aztertu dugu eta www.argia.com-en dago irakurgai).

Eragin izugarriak

Europako Batzordearen Ikerketa Zentroak gauratzutako txostena (*Peseta Ikerketa* delakoa) satelite bidezko irudiei eta datu bilketa zientifiko berriei esker egin ahal izan da. Txostenak erakusten duenez, klima aldaketak hainbat ondorio ekarriko ditu inguruaren arabera. "Klima aldaketaren eraginak ziur asko desberdinak izango dira leku batzuetan eta besteetan". Europako zenbait eskualdek izugarri sufituko dute. Europako hegaldan, adibidez, klima aldaketak laboreen emankortasuna gutxitu du, beroak eragindako heriotzak gehituko ditu eta uda garaiko turismoari ondorio kaltegarriak eragingo dizkio. Honakoak ditugu Batzordearen txostenak iragarritako beste zenbait ondorio: ibaiek gainezka egingo dute, uholde handiak egongo dira, animalia espezieen migrazio masiboak gertatuko dira, eta ekonomian ere kalte handiak izango dira.

"Klima aldaketaren eraginez, mende honetan erabat alda liteke udaz daukagun ideia. Baldintza ezin hobeak dauzkan lekua, orain Mediterraneo inguruan kokatzen dena –hondartza turismoarentzat bereziki–, iparralderantz mugituko da, agian Itsaso Baltikora edo Ipar itsasora", aipatutako agiriaren arabera. Alabaina, txostenak ondoren zehazten du turismoaren exodoa handiagoa edo txikiagoa izatea enpresek edo udatariak oporrak denboraldiz kanpo, udaberrian adibidez, antolatzeok daukaten gaitasunaren arabera izango dela. Kontuan izan behar da uda Mediterraneoko kostetan pasatzen duten turisten joan-etorria dela planetako handiena. Turismo hori urtean 100 milioi pertsona ingurukoa da. Horietatik erdiak Espainiako Estatuko kostetara joaten dira, eta 100.000 milioi euro gastatzen dituzte oporraldian. Aurreikuspenak betetzen badira, begi bistakoa da Mediterraneo herrialdeek ondorio ekonomiko kaltegarriak jasan beharko dituztela.

Peseta txostenak iragarpen horiek egiteko oinarritzat hartu du da mende honen bukaera aldera karbono dioxidoaren isurketak biderkatu edota hirukoiztu egingo direla maila preindustrialei dagokien. Kalkuluen arabera, uztak %22,4 murriztuko dira Europako hegaldan. Zergatik? Txostenaren erantzuna: planetaren berokuntzaren ondorioz laboreen hazkuntza aldia laburragoa izango delako. Europar kontinentearen iparraldean, ordea, izozteak laburragoak izango direnez, uztak %70 ugarituko dira.

Hildako gehiago

Europako txostenak adierazten duenez, klima aldaketaren ondorioak gizakion biziraupenera ere iritsiko dira. Bero-boladek, gainera, hilkortasuna areagotuko dute hilabete beroetan, eta



Aurreikuspenen arabera, klima aldaketaren ondorioz muturreko fenomeno meteorologikoak ugartuko lirateke. Goiko irudietan, hainbat fotomuntaketa Bilbo, Gasteiz, Iruñea, Donostia eta Biarritzko argazkiekin.

uholdeak edo ekaitzak bezalako muturreko fenomeno meteorologikoekin zerikusia duten istripuak gehitu egingo dira. Bitxia badirudi ere, EBren txostena arazoa kuantifikatzen ausartu da, eta bi egoera erakusten ditu, bata arina eta muturrekoa bestea. Ikerketa horren arabera, hondamendi egoerarik larrienean, hau da, 2071tik aurrera tenperatura urtean hiru gradu igoz gero, EBn urtero 86.000 pertsona gehiago hilko dira. Egoera arinenean, aldiz, planeta 2,2 gradu bakarrik berotzeko neurriak bete eta neurri horiek funtzionatuz gero, hildakoen kopurua 36.000 inguruan ibiliko litzateke.

Ondorioak arintzeko neurriak

Europako Batzordeak zenbait neurri proposatzen ditu CO₂aren isurketen ondorioz gertatzen ari den planetaren berotzea geldiarazteko; esate baterako: energia berriztagarriak sustatzea, kontsumoa gutxitzea eta karbono maila txikiak isurtzea ahalbidetzen duten teknologia berriak bultzatzea. Energia nuklearraren erabilera ere ez du baztertzen. Horren “abantailak” goraiatu ditu eta eztabaida berriz piztu du behintzat.

CO₂ isurketak gutxitzeko politikaren baitan, EBk bi helburu ditu: nazioarte mailari begira, berotegi efektua sorrarazten duten herrialde

ANDONI CANELLADA



Ikuspegi ofizialetik urrun

Zientzialarien artean ere badira klima aldaketaren inguruan ikuspegi ofizialarekin bat ez etorri eta planetaren berokuntzaren ondorioz etorkizunean hondamendiak, uza gutxitzeak eta hilkortasunaren gehikuntza gertatuko direla uste ez dutenak. Horietako

bat da Antón Uriarte (argazkian), geografo eta klimatologia eta paleoklimatologian aditua. Katedraduna bada ere, osasun arazoak direla-eta orain ez dihardu langintza horretan, baina *Historia del clima de la tierra* izeneko ikerketa egin du. Klima aldaketari buruzko web orri bat dauka (www.homepag.mac.com/uriarte), eta blog bat ere bai klima aldaketaren futurologoei erantzuteko (www.antonuriarte.bolgspot.com).

Klima aldaketak Euskal Herrian dituen ondorioei buruz Uriartek dio tenperatura altuak eta ur falta ez dituela aireko CO₂aren gehikuntzak ekarri, baizik eta hilabete hauetan hemen ohi baino sarriago ibili den hego haizeak. Honela tokatu da hemen; beste leku batzuetan iparrekoak joko zuen gehiago. Baina edonola ere, CO₂a ez da erruduna.

Eta gaineratzen du hondamendi klimatikoen analisi historikoak ez duela berresten klima okerragora doan uste hori. Uholde edo zikloi tropikalen inguruko etengabeko alarmek ez dute frogatzen klima aldaketa gertatzen ari denik. Bere ustez, gezurra da zikloi tropikalen maiztasuna ezohiko aldaketa eragiten ari denik klimaren historian. Zentzu horretan, datu zehatzekin (1990ean Galvestonen izandako zikloia, 1970ean Bangladeshen izandakoa eta 1953an Holandan izan zena aipatzen ditu) argudiatzen du Katrinak eragindako biktimak dezente gutxiago izan zirela, CO₂aren isurketak hutsalak zirenean beste zikloi batzuek Estatu Batuetan eragindako biktimak baino.

Euskal katedradun honentzat, ez da hain kaltegarria Lurra gradu batzuk berotzea. Gainera, esaten du Lurra beti izan dela berdeagoa eta hezeagoa beroago egon izan denean. CO₂ gehiago duen atmosfera emankorragoa da, CO₂a baitago fotosintesiaren oinarrian. Bestalde, eskandalagarria dirudien arren, gehitzen du planeta, sateliteetatik begiratuta, gero eta berdeagoa ikusten dela, zuhaitzak moztuta dauden lekuetan izan ezik. Ez da klima zenbait eskualde basamortu bihurtzen dituen, zuhaitz mozketa baizik; eta ez da klima espezieak akabatzen dituen, ehiza eta arrantza baizik. Bukatzeko, bere ustez errazena eta gehien komeni dena errua CO₂ari botatzea da, horrela errua lausotu eta banatu egiten delako.



Azken urteetako muturreko fenomeno meteorologikoak

Iturria: Euskalmet

Urteak	2001	2002	2003	2004	2005	2006
Haizete gogorak	urtarrilak 5	otsailak 1-3 azaroak 13	urtarrilak 20 otsailak 19 irailak 19	urriak 18-24	abendua 1-2	urriak 3 urriak 22 - 25 azaroak 24
Uholdeak		abuztuak 24-28	otsailak 4	urtarrilak 24	abendua 29-30	
Bero-boladak	maiatzak 27-30		abuztua			
Itsasaldi gogorak				apirilak 19	urtarrilak 18-19	

garatuen gas isurketak 2020rako %30 murriztearen alde dago. Gainontzeko herrialde garatuak ere helburu horrekin bat etorri eta konprometitzeko ekimena da, baina Txina eta India aurka daude. Hogeita zazpiek osatzen duten Europarentzat, 2020rako CO₂aren isurketak gutxienez %20 murriztea da EBren proposamena.


Baina nolako kostu ekonomikoa dauka klima aldaketaren ondorioak arintzeko horrelako neurriak hartzeak? Neurriz kanpoko kostua izan behar du, izan ere Europako agiria ez baita ausartzen

Uztak %22,4 murriztuko dira
Europako hegoaldean,
planetaren berokuntzaren
ondorioz laboreen hazkuntza
aldia laburragoa izango delako

zehaztasunak ematen. Hala ere, “urtean milaka milioi euroko” kopurua zenbatesten du XXI. mendearen bigarren erdirako. *Financial Times*en datuen arabera, kopuruak 10.000 milioi eurokoak izan litezke egoerarik onenean, eta 40.000 milioi eurotik gorakoak egoerarik muturrenekoenean.

Gas kutsagarrien isurketen murrizketa eskasa

Nazioarteko talde ekologistak ez daude ados Europako Batzordearen proposamenarekin,



Urtekako euri kopuru totala
Igeldoko estazio meteorologikoan
(1928-2006)

Iturria: Instituto Nacional de Meteorología



2007ko apirilaren 1a

ARGIA

Premiazko neurriak

Klima aldaketak eragindako kezka politikarien mahaietara ere iritsi da; Espainiako Estatuko Ministroen Kontseiluaren mahairaino hain zuzen ere. Erakunde horrek hartutako neurri eta erabakiek Hego Euskal Herriari eragiten diote. Sortutako kezka dela-eta, Ministroen Kontseiluak urtarrean baimena eman zuen gas isurketak saihesteko zenbait ekimen aplika daitezzen. Neurriak martxan jarri aurretik, ordea, gertakariak nabariak direla egiaztatu du Espainiako Gobernuak. Hain zuzen, gertakari horiek agerian uzten dituzte gobernu britainiarraren edo NBERen eskariz egin diren txostenek eta baita oraintsu Europako Batzordearen eskariz egindakoek ere. Datuek ere gauza bera nabarmentzen dute: 2006. urtea izan zen Espainiako historiako beroena, eta berotze orokorraren ondorioak toki guztietan antzeman daitezke.

Horregatik guztiagatik, Espainiako Gobernuaren 2007ko lehentasun nagusia, bozeramaileek esandakoaren arabera, klima aldaketaren aurka borrokatzea izango da: "Gobernuak klima aldaketaren aurkako borroka sartu du 2007ko agenda politikoko lehentasunen artean. Lehentasun hori batez ere instituzio arteko lankidetzaren esparruan nabarmenduko da, zehazki estatuaren eta autonomia erkidegoen arteko lankidetzan. Gobernuak bizitzaren eta ingurumenaren kalitatea hobetu nahi du".

Klima aldaketara egokitzeko, estatuko administrazio orokorraren eta autonomia erkidegoen artean koordinatutako programa bat ezartzea erabaki da. Programa horretako hasierako faseak Espainiako Estatuko herritarrentzat eta ekonomiarentzat bereziki garrantzitsuak diren hiru sektore hartuko ditu bere baitan: osasuna, turismoa eta nekazaritza.



Berotegi efektua sorrarazten duten gasen isurketak dituen ondorioak ahalik eta txikiak izan daitezzen, Espainiako Estatuak dekretu bat onartu du, eta horrek agindutakoa betez, eraikin berri guztiek eta 2007tik aurrera birgaitu edo proiektatzen direnek Energia Eraginkortasunaren Ziurtagiria eskuratu beharko dute. Neurri horri esker, eraikinetako erabiltzaile guztiek zehatz-mehatz jakingo dute eraikinek zenbateko gastu energetikoa daukaten, eta energia eraginkortasunaren nahiz energia aurreztearen aldeko gizarte sentibilizazioa sortzeko pausoak emango dira. Hemendik aurrera, zazpi hizki eta zazpi koloretako eskala bat egongo da, eta eraikin bakoitzari horren arabera "maila energetikoa" emango zaio. Eraikin eraginkorrenak A motakoak izango dira eta eraginkortasun txikiena daukatenak, berriz, G motakoak. Eskalako balorazioa egiteko, eraikinaren berogailu, hozte, ur bero sanitario eta argiztapen sistemen kontsumoek zenbat CO₂ isurtzen duten hartuko da kontuan.

Gainera, Espainiako Gobernuak Airearen Kalitatea eta Atmosfera Babesteko Lege Proiektua Diputatuen Kontseilura eramatea erabaki du eta, hortaz, autonomia erkidegoak eta hiriak behartuta egongo dira airearen gutxieneko kalitatea bermatzeko neurriak hartzera. Aurreikuspenak betetzen badira, ezarritako mugak gainditzen direnean jarduera kutsatzaileak —adibidez ibilgailuen trafikoa— bertan behera utzi ahal izango dira. Legeak zigor sistema bat ere izango du. Zigorrak, esate baterako, bi milioi eurora arteko isunak eta baimendutakoa baino gehiago kutsatzen duten instalazioak ixtea izango dira.

haintzat ez baita nahikoa 2020rako gas isurketak %20 murriztea. Greenpeace eta World Wildlife Fund/Adena (WWF) nazioarteko mugimenduak berehala agertu dira Europako Batzordeak proposatutako zenbaki eta helburuen aurka. Kutsagarriak diren edo berotegi efektua sorrarazten duten gasen isurketa 2020rako %20 murriztea neurri eskasa iruditzen zaie. Isurketak ehuneko hori gutxitzea

Egoerarik larrienean, 2071tik
aurrera temperatura urtean 3 gradu
igoz gero, EBn urtero 86.000
pertsona gehiago hilko dira, eta
egoera arinenean, 2,2 gradu
igoz gero, 36.000

"oso txiki eta xumetzat" jotzen dute, eta murrizketak %30ekoak izan daitezela eskatu dute. Greenpeace-arentzat, Europar Batasunak "bere planteamenduekin traizio egiten die EBko etorkizuneko belaunaldietako herritarrei, eta klima aldaketaren aurrean erakutsi dugun ahuleziaren ondarea utziko diegu gure ondorengoei". WWF-k "epeltzat" jo ditu proposatutako neurri energetikoak.



Iturria: Instituto Nacional de Meteorología



Ezker-eskuin: jendea Kontxako hondartzan, neguan; harrotutako itsasoak eragindako kalteak Donostian; eta uholdea Abetxukon (Araba), Zadorra ibaiak gainezka egin ostean.

EAErako plana

Halaber, EAEko agintariak ere konturatu dira klima aldaketak ondorioak dituela gure lurraldean, eta horri aurre egiteko plana egiten ari dira. Maiatza alderako prest eduki nahi dute zirriborroa. Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak duela urtebete Klima Aldaketaren Euskal Bulegoa sortu zuen. Ihobe-ko zuzendaritzaz ere arduratzen den Xabier Caño da koordinatzailea, eta bulego berri hau da klima aldaketari aurre egiteko Eusko Jaurlaritzaren politikak koordina-

Financial Timesen arabera, klima aldaketaren ondorioak arintzeko neurrien kostu ekonomikoa 10.000 milioi eurokoa izan liteke egoerarik onenean

tzen ari dena. Dagoeneko egin dute egoeraren diagnostikoa. Bigarren fasea, berotegi efektua sorrarazten duten gas isurketen 2012ra arteko eszenatokia prestatzea izango da, isurketa horiek baitira klima aldaketaren eragile nagusiak. Hirugarren fasean, berriz, klima aldaketaren ondorioz kaltetutako sektore bakoitzeko helburuak eta neurriak identifikatuko dira. Laugarren fasea 2007-2012 epean plana martxan jartzea izango da. Pil-pilean dagoen eztabaidak luze jarraituko duela argi dago beraz. ■

Jaso astero ARGIA etxean



Abantaila ugari izateaz gain, Harpidedunen Guneko kide ere izango zara

Izen deiturak:
 Helbidea: Posta kodea: Herria:
 Herrialdea: Jaioteguna:
 N.A./I.F.K.: Tel./Faxa: e-posta:
 Ordainketa mota: ☐ Bankuz
☐ Taloiez
☐ Transferentzia KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L-ren kontura (ARGIA): 3035 0036 14 0360048647
 Bankuz ordaintzekoek betetzeko soilik
 Banku edo aurrezki kutxa:
 Titularra: N.A./I.F.K.:
 Titularraren helbidea: Titularraren telefonoa:
 Entitatea: Sukurtsala: K.D.: Kontu zenbakia:
 Data: Sinadura:

Harpidetza-orri hau zure datuekin bete eta helbide honetara bidali: 142 P.K. / 20160 Lasarte-Oria -Gipuzkoa-

Aukeratu ongi etorri oparia

“Ardibidez” mahai-jolasa

“888 txiste” liburua

“Mokogorri” puzzleak

%25eko beherapena ikasle bazara

Urtebeteko harpidetza:
2007ko prezioak

130 € Hego Euskal Herrian
160 € Ipar Euskal Herrian



Xabier Caño, Klima Aldaketaren Euskal Bulegoko koordinatzailea

«Gobernuetan ez ginen kontziente aldaketa klimatikoak ekar zitzakeen ondorioez»

URKO APAOLAZA

Argazkia: Dani Blanco

Aspalditik dago kezka aldaketa klimatikoagatik. Orduan zergatik ez du lehenago sortu Eusko Jaurlaritzak bulego hau? Eusko Jaurlaritzan eta estatu mailako beste gobernuetan ez ginen kontziente aldaketa klimatikoak ekar zitzakeen ondorioez. Hala ere, ondorio horien kontrako politikak aspaldi jarri genituen martxan eta hori izan da bulegoa eratzearen arrazoa, bulegoaren zeregin-a da politika horiek koordinatzea.

Hainbaten ustez aldaketa klimatikoaren gaia energia nuklearraren inguruko eztabaida berpizteko erabiltzen ari dira...

Ezin daiteke saldu energia nuklearra aldaketa klimatikoaren soluzio bezala. Energia nuklearra baztertu behar dugu, baina ez aldaketa klimatikoagatik, baizik eta energia nuklearrak berak dakartzan arazoengatik.

Aldaketa klimatikoari aurre egiteko plana egiten ari zarete eta besteak beste neurriak hartuko dituzue etxetik sortzen ditugun CO₂ isurketak murriztu eta kontsumo ohiturak aldatzeko. Baina industriari nola eragingo dio planak?

Plana azaroan martxan jartzea pentsatzen dugu. Bakoitzak bere erantzukizuna du. Kontuan izan behar da industriak %28 murriztu dituela bere isurketak, horrek esan nahi du zerbait egin dutela. Administrazioetik lan egin dezakegu, dirua jarri eta plangintzak landu, baina azkenean aldaketa klimatikoaz hitz egiten dugunean gizarte garapen modu bati buruz ari gara eta hiritarrak bere pentsamoldea ez badu aldatzen, ez dugu ezer egingo. Ez da industriaren konpromisoa bakarrik behar, edo hiritarrena, edo administrazioarena... Guztion konpromisoa behar da.

Baina planak neurri berezirik hartuko du industriari dagokionez?

Aldaketa klimatikoaren aurrean neurri gehien



hartu dituen industria izan da. Europako arau gehienek industriari bakarrik eragin diote eta urtero beraien CO₂ isurketak murrizteko esfortzua egin behar dute eta horretan jarraitu behar lukete.

CO₂ gehien isurtzen dutenak zentral termikoak dira eta Eusko Jaurlaritzak askotan hitz egin du horiek itxeko beharraz. Nola egin hori?

Guk ez dugu eskumenik, zentral termiko hauei baimena ematen diena Estatuko administrazioa baita. Guretzako aldaketa klimatikoari aurre egiteko zentral termikoak murriztea guztiz beharrezkoa da. Ziklo konbinatuko zentralak martxan jartzen baditugu, horrek esan nahi du energia nahiko produzituko dugula eta beste zentralak ez direla beharrezkoak izango...

Harremanetan zaudete Madrilekin?

Noski, baina azkenean Madrilgo Ministerioak bere plangintza du Estatu mailan eta oraindik ez du esan noiz itxiko dituen zentral horiek. Harremanetan bagaude, baina oraindik ez dugu galdera horri buruzko erantzunik.

Zuhaitzak aldatu dituzue Nairobiri konpentsazio bezala. Zilegi ote da "karbono merkatu" horretan sartzea?

Merkatu horretan guk ere ez dugu konpetentziarik. Hala ere, aldaketa klimatikoak efektu globala du eta merkatu honen ideia da Brasilen sortzen dituzun isurketak hemen konpentsatu ditzakezula, adibidez. Lortu behar duguna da hemengo enpresak munduko beste lekuetara joan daitezela berrikuntza teknologikoen bidetik murriztapenak lortzeko isurketa horietan. ■

<http://www.argia.com/argia-astekaria>
helbidean, elkarrizketaren bideoa ikusgai.

Asier Hormaza

Antzerkia metafora bat da. Errealismo asmo batetik baino, bizitasunaren bila sortua. Eta bizitasuna aurkitzean haratagoko zerbait du amets. Aldea da errealismoak mundura hurbildu nahi duela, eta bizitasunaz haratagoko ametsak mundua ekarri nahi duela beregana. Eta orduan metafora izateari uzten dio.

AMETS ARZALLUS

Argazkiak: Dani Blanco



«ETari buruzko film serio bat eskatzen dut»

Euskara ez zenuen etxean ikasi?

Ez. Aita futbolaria zen eta haurra nintzela bate-tik bestera ibili ginen, Valentzian, Ceutan... Baina nire gurasoek argi zuten guk Euskal Herrian hazi eta ikasi behar genuela, eta bost urte nituela itzuli ginen Algortara. Ikastolan hasi nintzen eta han ikasi nuen, baina egia esan-da nire lagunak ez zekiten euskaraz, ikastolan gutxi batzuk ziren euskara etxetik zekartenak.

Eta antzerki tailerretan ibili izan ez bazina publizitatearen bidea jorratuko zenukeen?

Bai, dudarik gabe, oso mundu gustukoa dut. Azken batean kreatibitatearen mundua da, eta ni horrek erakartzen nau, sorkuntzak. Horrek bultzatu ninduen publizitatea ikastera, eta baita antzerkian hastera ere.

Antzerkia sorkuntza da, baina batez ere obra idazten duenarena. Aktore batek zenbat sor dezake?

Bai telebistan eta bai antzerkian zuzendari bat egoten da. Zuzendari onek eskatu egiten dute aktoreek ere beren aldetik sortzea, eta gure lana istorio bat hartu eta horri zentzua ematea da. Gero zuzendariak horri guztiari forma eman behar dio. Nik behintzat horrelako zuzendari-ekin egin izan dut topo, eta hori oso ona da. Ni beti bila aritzen naiz.

Non bilatzen duzu, kanpoan, kaleko jendean, ala zure barruan ibiltzen zara keinu baten bila?

Bietan bilatzen duzu, bai barruan eta bai kanpoan. Azken batean pertsonaia guztiak errealitatean daude eta errealitateak bueltatu egiten dizkizu zuri. Baina aktorea ni naiz, nik gorpuztu behar dut pertsonaia hori eta orduan nigan ere bilatu behar dut, ea zer daukadan aprobetxatzeko.

Mundua gero eta antzerkiagoa bada, kaleko pertsona guziak ez ote gara aktore hutsak?

Guztiek betetzen dugu rol bat, bai gure bizitza pribatuan, bai publikoan. Batzuek rol hori onartu egiten dute eta beste batzuek ez, eta horregatik daukate gero eta lan gehiago psikologoek eta psikiatrek. Gizarteak horretara bultzatu gaitu edo behintzat bultzatu nahian dabil, batzuek burua beren lekuan daukate eta beste batzuek ez. Horrek ez du esan nahi erotu egin garenik edo gu ez garen

norbait interpretatzen ari garenik, baina hori hor dago.

Zein da zure rola?

Nire lehen rola Asier Hormaza izatea da, eta gero, Asierrek duen lanbidea aktorearena da, baina hori bigarren mailako rol bezala. Funtzioa bukatzen denean moztarra kendu eta armairu batean zintzilikatu behar dut, ni Asier Hormaza naiz eta hori lantzen saiatzen naiz, hori da printzipalena. Horrek laguntzen dit jokatzen ditudan pertsonaiak distantzia batetik hartzen.

Brechten bidea da hori, distantzia hartzearena.

Bai, eta arrazoia du. Aktore askoren teoria da pertsonaiaren larruan murgildu eta erotu egin behar zarela, ez dakit zenbat hilabete pasa bere baitan sartzen. Baina nik ez dut horrela ikusten. Antzeztea antzeztea baino ez da, eta gezurra dela medio egia kontatzea. Ni ez naiz Mortimer, telebistan agertutako pertsonaia hura, ni ez naiz Aznar, nik egia bilatu behar dut, baina gezur batetik sortua. Ni ez naiz, baina interpretatzea hori da. Eta interpretatu distantzia batetik egin behar da. Bestela, hiltzaile baten papera tokatzen bazaizu, zer egin behar duzu? Hiltzaile bihurtu istorio hori kontatzeko? Eromena litzateke. Edo bere emaztea jipoitzen duen tipo horietako bat interpretatu behar baduzu, zer ibili behar duzu, zure bikotekidea jipoitzen errealitate horretan sartzeko? Ez gizona, ez. Aktore batek ez du bere pertsonaia zertan sufritu, eta askok sufritu egiten dute pertsonaia ateratzeko.

Hain barneratua dute...

Bai, batez ere ez direlako pertsonaia hori utzi eta etxera joaten, pertsonaia berekin eramaten dute, eta niri pena ematen didate, sufritzen ikusten baititut.

Zenbat pertsonaia eramaten dituzte bizkarrean?

Aktore batzuek bakarra eramatea nahikoa izaten dute burutik jota egoteko, eta beste batzuek asko eramaten dituzte soinean. Aktore handiek, oso famatuak, esana utzi dute: lanbide honen sekretua serioegi ez hartzea da. Ez dakit Barbara Stanwyck-ek esan zuen, baina nik arrazoia ematen diot, hau joko bat baino ez da. Meritua zertan datza? Joko bat izanik eta gezur bat izanik, taula gainean egia bihurtzea.

EITBren antzerki obrak, kritikagarriak?

“EITB antzerki obrak ekoiztera sartu da, eta hor gauza asko azter litezke, zergatik sartzen den telebista bat horretan eta ez beste batzuetan. Ez dakizkit horien gorabeherak. Nik dakidana da Glu Glu taldeak bere dirua ere arriskatu izan duela, Glu Glu taldea takilaren menpe dagoela, beraz, benetan da kritikagarria? Azken batean hor telebista sartu da, eta bakoitzak bere dirua publizitatean inbertitzeko eskubide osoa du”.

Nortasun agiria

1970eko martxoaren 21ean jaio zen Deustun. Algortako Geroa eta San Nikolas ikastolan hasi, eta Getxoko euskarazko institutura pasa zen. Antzerki eskolako tailerrean eman zuen izena, eta oholtzan ibiltzen ikasten hasia zen, baina Euskal Herriko Unibertsitatean publizitatean lizentziatu zen. Ikasketak eta antzerkiko klaseak tartekatuta zituen urte haietan, baina laster hartu zuen Antzokiko bidea. Geroztik ez da etxera itzuli. Aritu da telebistan, dozena bat antzerki obratan parte hartu du, *Artea* sonataurekin Donostia Saria irabazi ere bai, eta orain pantaila handira egin du jauzi, bigarren aldiz, *Eutsi!* filmarekin.

maren bitartez, arima elikatu egiten du. Emozioen bitartez ikuslea hunkitu egin behar da, bide batetik edo bestetik, hori da antzerkiaren funtzioetako bat. Eta hori funtsezkoa da, pertsonok lan egin behar dugu, bazkaldu behar dugu, baina arimak ere bere elikadura behar du, eta uste dut antzerkiak jaten ematen diola.

Baina egia bat kontatzea ere aipatu duzu, alegia, egiaen bat kontatu beharretik ere abiatzen da antzerkia. Beraz badu funtzio soziala, politikoa, batzuetan kontrabotere funtzioa.

Bai, antzerkiaren bitartez kalean agertu ezin ziren gauza asko agertu dira taula gainean, bide bat izan da hain argi esan ez zitezkeen gauzak kontatzeko, eta estatuaren aurrean desadostasuna agertzeko. Erabili izan da, eta erabiltzen da. Eta nik uste dut beharrezkoa dela. Horregatik izan diote erregimen askok beldurra, bai antzerkiari eta bai autore askori. *La vida de los Otros* filmean argi eta garbi ikusten da zer nolako beldurra izan zaien kulturako sortzaileei, politikariei baino gehiago. Antzerkiak errealtatearen interpretazio batzuk egiten ditu, eta beste ikuspegi batzuk eskaini. Horregatik, nola joera ezkertiarretatik hala joera eskuindarretatik erabili izan da antzerkia, eta kultura osoa. Hitlerrek Wagner zuen bere ikurra. Eta ezkertiarrek ere erabili izan dute kultura jendea mugiarazteko, eta kontzientziak iratzartzeko. Baina hori gero eta gutxiago ikusten da, orain bakoitza gero eta murgilduago bizi baita berean, eta iraultzarako gogo gutxi gelditzen da.

Zuk industria aipatzen duzu, antzerkiaren industria. Hitzaren aukeraketan intentzio bat sumatzen da.

Beharrezkoa baita, eta positiboa litzatekeelako behar dutenek ere horrela hartzea. Ikus-entzutezko mundua industria bat dela konturatu behar dira. Beste lurraldeetan horrela hartzen dute eta oso ondo doakie, beraz nik uste dut antzerkia ere industria kontsideratzea aurrerapausoa izango litzatekeela. Guretzat beharrezkoa da bultzada hori izatea administrazioaren aldetik. Badakit saiatzen ari direla baina gehiago

Gailurra Molièrena izango da, gaixoarena egiten ari zenean hil baitzen.

Bai, baina Molièrena beste garai bat zen, eta beste modu batera bizi zuten. Gainera Molière azken hogeitaz mendeetan egon den jenioetako bat da, kasu berezi bat.

Zuri orain dela urte batzuk koadro zuri bat hondo zuriaren gainean jarri izan balizute, eta "hau artea da" esan, zer esango zenukeen?

Ni oso pintura zalea ez naiz, artearen inguruan gehiago gustatzen zait arkitektura, eta beraz... koadro zuri bat... ba egia esan ez nukeen ezer esango, eta halaxe geldituko nintzatekeen. Baina pentsatuko nukeen, "autoreak jakingo du zergatik egin duen, niri ez zait iristen".

Eta Arteako pertsonaia jokotuta, iristen zaizu?

Ez, nireari eusten diot. Koadro zuri bat, hondo zuria, ederki. Baina errespetatzen dut, norbaitek erabakitzeke "orain koadro zuri bat jarriko dut hemen", bere burutazioak izango zituen.

Luis XIV.ari galdetuz gero erantzun bat emango zukeen, Harold Pinter nobel sariari galdetuz gero beste bat. Asier Hormazari galdetuz gero, antzerkia zertarako?

Antzerkia kulturaren aurpegi bat da, eta kultura beharrezkoa da. Nahiz eta batzuek kultura bigarren mailako kontua dela uste, nik uste dut industria bezain garrantzitsua dela herri baterako. Antzerkiak, komediaren bitartez edo dra-

Frankismoko irudia

"Fran hil zeneko irudi garbirik ez daukat. Nire oroitzapenak manifestaldietakoak dira. Grisak nola oldartzen ziren, eta ni aitite eta amamaren etxean, Bilbon, poliziarengandik ihesi zetorren jendea etxe hartan nola sartzen zen oroitzen naiz. Portaletan jotzen zuten eta orduan normalean ireki egiten zitzairen".



behar dugu, eta esfortzu bat eskatzen dut nik, serio har dezatela, industria bezain serio. Azken batean antzerkian sekulako lanpostu pila daude, dirua mugitzen da, beraz zergatik ez? Industrian sartze horrek kalitatezko obrak eskaintzea bermatuko luke, diru gehiago sartzen den heinean kalitate handiagoa eskainiko baitugu.

Aktoreen artean badago greba egiteko motiborik?

Bai, bilatuz gero bai. Ikus-entzunezko lege bat jarri zen, baina oraindik betetzeke dago, eta hor badira arrazoiak grebara joateko. Inoiz planteatu izan da, baina azkenean ez da egin.

Beraz, erdi eskirol.

Hilabete bukaera iristen denean denek lasaitasuna nahi dugu. Eta norberak erosotasun hori lortzen duenean zailagoa izaten zaio etxetik atera, lanpostua utzi, eta horrelako iskanbila batean sartzea. "Ale, uztazu lanpostua, eta segi grebaral!", hori oso gogorra da, eta bizi izan dutenek nik baino hobeto dakite.

Deslokalizazioa ere ematen da, Madrilera batik bat, lanesku garestia goa dagoelako, edo aukera hobeak.

Lan eskaintza handiagoa dagoelako, azken finean Euskal Herrian sortzen dena oso gutxi da, eta ez duzu hemendik mugitu beste biderik. Nik zorte izugarria eduki dut eta hemen egin diren lan askotan hartu dut parte, baina hori ez da normalena, eta penagarria da jendeak alde egin behar izatea. Hori ere aipatu nuen *Eutsi*ren aurkezpenean, ez genukeela pertsonaia horiei gertatzen zaiena guri ere gertatzerik nahi, deslokalizazioa, eta hemendik alde egin behar izatea. Baina kontua nola dagoen ikusita, ni, kanpora atera behar badut, aterako naiz, dudarik gabe, eta Madrilan eskaintzak baldin badaude joango naiz, baina nire asmoa eta ametsa hemen bizi eta lan egitea da.

Euskal zinemagintza

"Bide bat zabaldu da, martxa pixka bat hartu dugu, baina arriskua dago egindako indar guzirik bertan behera gelditzeko, eta bospasei urte pasatzeko inolako produkzioz gabe.

Olatuak izango bagina bezala ibiltzen gara. Derrepente pelikula bat egin, eta denak pelikula ikustera, ez dugu sortzen normaltasun bat, tradizio bat, efektuak lantzen ditugu, "orain hau!" eta orduan puuuuuu, denak zinemara. Baina publikoak beste eskaintza bat behar du, badakit Euskal Herrian euskaraz dakigunak oso mugatuak garela, baina *Eutsi!* gaztelaniazko azpiztituluekin agertzen da. Euskal Herria elebiduna da; egin ditzagun filmak euskaraz gaztelarazko azpiztituluekin, eta Euskal Herriko biztanle guztiek ikusi ahal izango dituzte".

Esneak ere subentzioak ditu. Eztabaida hori beti kulturarekin sortzen da. Guk, adibidez, Kanpingags taldean ez dugu subentziorik jaso azken bost urteetan. Lehenengo urtean jaso genuen, txiki bat, eta geroztik ez dugu laguntzarik jaso, eta urtero-urtero antzezlan bat atera dugu, lana sortu dugu, sei edo zazpi aktorerentzat. Hori dena gure diruarekin eta gure kredituekin, inolako laguntzarik jaso gabe. Eta hori salatzen dugu, Euskal Herrian eman ditugun funtzioak ikusita, zenbat ikusle izan diren ikusita, beraiei datuei erreparatuz Kanpingags izan baita ikusle gehientsuen bildu duen taldeetako bat, ez dugu subentziorik jaso, ez dakigu zergatik, sumatu egiten dugu baina ez dakigu zehazki zergatik. Eta antzerkiak, beste gauza askok bezala, behar ditu subentzioak, horretarako ordaintzen ditugu zergak, eta gure dirua da azken finean.

Baina oraindik Godoten esperoan segitzen dute Vladimirrek eta Estragonek.

Bai, eta horregatik gu ez gara horien zain egon, aurrera egin dugu. Subentziorik jaso ez, eta urtero-urtero, bata bestearen atzetik, antzerki obra bat egin dugu. Orain ere *Lapurzuloa* ematen ari gara, zazpi aktoreekin eta inolako laguntzarik jaso gabe, eta aktore euskaldunei lana emanez, sinestezina. Sinestezina laguntzarik ez izatea.

Ez da euskarazko antzerki idazle erreferentzialik falta?

Baina idaztea, eta ondo idaztea, oso zaila da, antzeztea baino askoz ere zailagoa. Saiakerak badira, eta badira idazten dutenak, Aizpea Goe-nagak idazten du adibidez, eta beste batzuk ere badira, baina gehiago behar dira.

Zuk ez duzu inoiz pentsatu dramaturgoarena egitea?

Bai, eta esan izan didate idazteko. Ideia batzuk islatuko nituzke, baina gero horiek garatzea oso zaila da. Batez ere norberak exijentzia puntu altua jartzen duelako, publikoak ere merezi duelako. Eta produktu bat eskaintzen baduzu hurrengo hobia izan dadin saiatu behar zara, baina ez da erraza.

Ez zara inoiz hasi idazten?

Ez, ideia batzuk baditut baina norbaitek horiek hartu eta buelta pare bat ematea behar dut. Seguruenik azkenean idazten bukatuko dut, hasiko naiz noizbait dramaturgoarena egiten.

Euskaraz?

Ez dakit, euskaraz edo erdaraz, baina idatziko dudala bai.

Vaya Semanitik arrakasta handia izan du. Politikarekin antzerkia egitea zer iruditzen zaizu?

Oso ondo, *Vaya Semanitas* mugarri bat jarri du. Nik uste dut umorearekin jokatu behar dela, errealitatearekin jokatu behar dela, eta denarekin jokatu behar dela. Niri primeran iruditzen zait *Vaya Semanitas* egindakoa, eta beharrezkoa.

Ez da pixka bat terreno delikatua min lekura irriz hurbiltzea?

Behingoagatik muga horiek guztiak hautsi beharko genituzke. Ez gara munduko zentroa, eta normaltasun batean bizi behar dugu. Zergatik ez dugu gauza horiekin barre egingo? Beste lurralde asko ere horrelako prozesuetan murgilduta daude eta barre hasiera-hasieratik egin dute. Gainera barreak desdramatizazio puntu batean sartzen zaitu, beraz beharrezkoa da tentsio hori erantzutea. Arazoa da beti kulturak ordaintzen dituela besteen kulpak. Madril-en gertatu den bezala aktore katalanarekin, Espainia ipurtzulotik sartu eta leher dakiela esan zuelako, sekulako iskanbila, *la letxe!* Zergatik ez du bada esango pito bat inporta zaiola? Azkenean beti kulturaren kontra! Katalan batek hori esan badu kulturak ez dauka horren ardurarik, ardurak beste leku batean bilatu behar dira.

Eta komedia utzita, euskal gatazka deitzen zaion honek ez du obra serio bat merezi?

AZKEN HITZA

Lapurzuloa

“Komedia bat da eta ez dauka zerikusirik Artearekin. Kaleko errealitatea da, tipo batzuk lapurtzen saiatzen dira, eta mafia dago tartean. Komedia gordina, ez dauka inongo metaforarik, eta gehiago kontatzen badut antzezteari utzi beharko diot. Baina Antzoki Zaharrean estreinatu genuen eta oso ondo joan zen, jende asko izan zen, eta kritikak ere oso onak, bai egunkariek eta baita jendeak ere”.

Bai, eta ni eskatzen ari naiz ETaren inguruko benetako istorio bat. Orain arte egindako saiakerak, *GAL* dela, edo *El Lobo* dela, benetan... Baina nik ideia hori planteatu izan dudanean beti esaten didate, “oraindik ere goiz da hori egiteko, oraindik goiz da”, bada ez dakit zergatik, nik oraintxe egingo nuke, serio, istorio potente bat, estatuan jendea urduri jartzen den horietakoa. Azken batean hemen gertatu den historia da, berrogeita hamar urteko historia, eta ezin dugu gertatu izan ez balitz bezala bizi. Gertatu da, eta gertatzen da oraindik, bertan murgilduta gaude, beraz konta dezagun historiaren istorioa, zergatiak, nondik norakoak, baina benetako zergatiak, eta egiari aurrez aurre begiratuta. Ez dugu inor mindu nahi eta mindu behar, baina gauzak diren bezala kontatu behar dira, eta hemengo ikuspegitik, hemengo ikuspegia oraindik ez baita islatu. Nik deialdia egingo nuke, hemengo idazle jendea mobilizatu, ETaren inguruko pelikula bat egin behar dugu. Nik oraintxe kontatuko nuke. Irlandan egin izan da, eta ez orain bakarrik, baita eltzea borborka zegoenean ere. Hemen zergatik ez? Euskal Herriak behar du ETaren inguruko film serio bat, hori Euskal Herriaren historiaren parte delako, ados egon zaitezke edo ez, baina historiaren parte bat da. ■

kulturagenda

Apirilaren 1etik 15era

arteleku

Kristobaldegi, 14 | 20014 donostia | www.arteleku.net

Collapsible Fictions

Jørgen Leth-en tailerra

Maiatzak 7-11

Koordinazioa:

Olatz González,

Iñaki Imaz,

Asier Mendizabal

Prezioa: 80€

Taldeak: 15 lagun gehienez

Izena ematea: **apirilak 27**

Produktzioa:

Arteleku, Donostia Kultura.

Linux ikastaroak

GNU/Linuxera migratzea

Apirilak 23-27

Koordinazioa: Gipuzkoako

Software Askea Elkartea

Prezioa: 30€

Taldeak: 10 lagun gehienez.

Ordutegia: goizez 10:00-14:00

Izena ematea: ikastaroa hasi baino 15 egun lehenago.

Avid ikastaroak

Hastapena

Digitalizazioa eta edizioa

AVID sistemaren bitartez

Maiatzak 21-25

Koordinazioa: Gabriel Corbella

Prezioa: 30€

Taldeak: 6 lagun gehienez.

Ordutegia: goizez 10:00-14:00

Izena ematea: ikastaroa hasi baino 20 egun lehenago





Desertua Ondarroako itsasertzean

Euskal Herriko zenbait herritan alarma piztu da. Dendariak oso arduratuta azaldu dira, saltoki handiak edo hipermerkatuak egiteko dauden proiektuak ezagututa. Eusko Jaurlaritzak egindako Saltoki Handien Legearen Berrikuspenak hautsak harrotu ditu gainera. Noraino luza daiteke hipermerkatu baten itzala? Hori jakiteko hipermerkatua eraikiko duten herri batera jo dugu, Ondarroara (Bizkaia), eta bertan garbi esan digute: “Merkataritzarik gabe, bizitzarik gabeko herria izango da”. Desertua itsasertzean, alegia.

Argazkiak eta testua:
URKO APAOLAZA

ONDARROARA AUTOZ iristeko bi bide hartu daitezke: bata Markinatik barrena, bestea Itziarren errepidea hartu eta itsasertzeko aparra dastatuz Deba eta Mutriku gurutzatzen dituen. Guk azkeneko hau hartu dugu. Eguraldi zakarra dago, nola dator euri eraso, hala ateratzen da eguzki printza. Hainbat kilometro amaigabean bolanteari eragiten jardun eta gero azaldu zaigu Ondarroa, kresalak miazkatua.

Itsas bazterrean ezkututzen den herri honean merkataritza bizirik dago oraindik, edozein astegun buru-zuriren edozein ordutan, eta edozein kaletan dagoen giroa ikustea besterik ez da behar horretaz jabetzeko. Baina merkataria arduratuta dabilta azkenaldian. Herritik kilometro eskasera dagoen Erretereria auzoan

establezimendu bat zabaltzeko lurak erosi zituen Eroski hipermerkatu-kateak eta inguru horretan kokatzeko Jaurlaritzaren baimena ere badu. Enpresa honetako arduradunek adierazi dutenez saltoki “txikia eta eskualdekoa” izango da bertakoa. Proiektua aurkeztu bai, baina horren inguruan hartuko diren erabakien zain daude orain, Eroskitik jakinarazi dutenez. Merkatariek uste dute Eroski berriarekin herriko merkataritzak gainbehera egingo duela eta beren lanpostuak eta herriko bizitza bera arriskuan daudela.

Eroski Barik Hobeto

“Eroskik batere ondorio onik ez dakar, 200 lagun utziko ditu langabezia. Esaten digute

birziklatu behar garela, espezializatu, baina orduan erosteko ahalmen gutxiago dutenek ezin izango dute herrian geratu...” dio Iñaki Garciak, giltzen kopiak egin eta bezeroei kasu egiten dien bitartean. Erribera kalean du burdindegia eta han jardun dugu berarekin. Herriko dendari, elkarte eta sindikatuek Eroski Barik Hobeto plataforma sortu dute hipermerkatuaren proiektuari aurre egiteko. Mobilizazio eta ekimen ugari egin dituzte orain artean: firma bilketak, kontzentrazioak, paroa... “Guri zuzenean eragingo digu elektrizitateko artikulatu txikien bidez —dio Garciak orain arte jasotako dokumentazio guztia erakusten digun bitartean—, baina ez guri bakarrik, Eroskik zuzenean eragingo du herrian, desertizazioan”.

Izan ere, merkatariek diote herriari bizitza ematen diotela eta baita segurtasuna ere. Eroski berriak inguruko herrietan ere izango du eraginik, horregatik plataformari babesa eman diote herri horietako merkatariek. Mutrikuko merkatarien elkarteko Sabina Lekubek zera esan digu: “Lehen pausoa Ondarroakoek eman dute, beraiek daude kezkatuena, baina guk babesa eman diegu eta egindako mobilizazioetan parte hartu dugu”. Bere ustez merkataritza garrantzitsua da herriak biziberritzeko eta azaldu digu Mutrikuko merkatariek urtean zehar jaialdi, ikuskizun eta ikastaro ugari antolatzen dituztela helburu horrekin. Ez daudela geldia, alegia.

Merkatuko kontuak

Zubi Zaharraren inguruan kaioak hegan dabil-tza, haren ondoan dagoen Berdura Plazan sartu gara aterkia itxi eta arnas pixka bat hartzeko. Betiko merkatua aurkitu dugu bertan, arrandegiak, harategiak eta berdura postuak, aiton-amonak



Berdura Plazako merkatuan hainbat arrandegi, harategi eta berdura postu daude. Guztietan Eroskiren kontrako kartelak irakur daitezke. Aurreko orrian, emakume bat Calatrava zubi inguruan erosketa poltsarekin.

nak hizketan, enkargutan... Baina ez dabil jende asko: eguraldiagatik izango da. Elvira arrandegira gerturatu gara, bertako jabea arrain artera izotza botatzen ari da eta galdetu diogunean aurpegia aldatu zaio: “Oso gaizki dago gauza!” esan digu muturra okertuta. Merkatu horretako salmentak beheraka doazela azaldu digu: “Martitzean beste merkatua izaten da hemen baserritarrekin eta hor asko nabaritzen da beherakada, jeneroa ekarri besterik ez dute egiten...”. Jeneroa bistan jarri eta etxera berriz eraman, ezer saldu gabe. Beherakada horren zergatia galdetu diogu: “Dia jarri zutenean —herrira iritsi baino lehenago dagoen supermerkatua—, orain dela bost urte, asko nabaritu zen, Eroskirekin ez dut pentsatu ere egin nahi...”, esan digu arrain saltzaileak.

Ondarroako kale nagusietatik, alamedatik edo portutik paseotxo bat ematea nahikoa da bertako unibertsoaz jabetzeko: erakusleio eta denda atarietan hipermerkekatu berriaren kontrako kartelak irakur daitezke, beste lokal batzuetan “salgai” hitza nagusitzen da ordea; kalean obrak eta zarata, aparkatzeko arazoak, jubilatutako arrantzaleen eguneroko berriketaldia, *Garjetxi* dotorea Artibai ibaiaren bestaldean... Denetik dago. Baina denen ustea da Ondarroari industrialde bat falta zaiola. Hain zuzen, Erretereria auzoko lurra industrialde hori egiteko erabili nahi dituzte: “Nabarmena da Ondarroan guna industrialik ez dagoela, enpresak herritik kanpora joan behar izan dute. Baina Erretereria, zona industrial zihon lurren zati bat birkalifikatu eta Eroski jarri behar dute orain”, dio Iñaki Garciak. Ez dago gustura ez Udaletxearekin, ezta Zatozte Ondarroako merkatarien elkartearekin. Azken honek Eroskiren kontra ezer gutxi egin duela dio dendariak.



ZIO

● ZIENTZIA
● IRAKURLE
● ORORENTZAT

Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak duela hiru urte abian jarritako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren babesa duen bilduma honen xedea ezagutza edonoren esku jartzea da, liburu interesgarriak, entretenigarriak eta kalitatezkoak eskainiz. Oraingo, bost dira bilduma osatzen duten lanak. Zientziara hurbiltzeko tresna fresko eta erabilgarriak ZIOk dakartzanak.



gure artean euskaraz

Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia

"Hiper" eredia

Jose Allende ekonomia aplikatuko katedradunak saltoki handien inguruan idatzitako txosten batean (Manu Robles-Arangiz Institutuak argitaratua) ondorio argigarriak eskaintzen ditu "hiper" ereduaren inguruan: hiri jasagarrien kontrakoa da, enplegua deusezten du eta produktore txikien distribuzio kanalak desegiten ditu, monopolioa sustatuz.

Katedradunaren iritziz eredu horrek notasanaren eta berezitasunaren galera dakar berarekin, komunitate ezberdinak homogeneizatzeko prozesu batera bultzatzen dituelako. Gainera, hipermerkatuetara joateko autoa hartu behar izateak errenta baxuenak dituzten sektoreak kaltetzen ditu: etorkinak, adineko pertsonak eta gazteak. Ekologiarentzat ere kaltegarria dela irizten du Allendek bere txostenean.

27 lizentzia 2005. urtean

Eusko Jaurlaritzak 2006ko udazkenean kontsumo arduratsu bat bultzatzeko plana onartu zuen; horren bidez, batez ere hipermerka-



Herritarrek Ondarroako komertzio baten aurretik pasatzen.

tuetan saltzen diren zenbait produktuk sortzen dituzten hondakinak gutxitu nahi ditu. Baina bestalde, 2005 urtean 27 lizentzia eman zituen Jaurlaritzak hipermerkatu berriak egin edo daudenak handitzeko. Askok kontraesan nabarmena ikusi dute administrazio publikoaren jarreraren eta saltoki handiak egiteko proiektuak dauden zenbait herrietan horien kontrako iritzia berehalakoa izan da. Esate baterako, Orion bi saltoki handi egiteko asmoa dago eta bertako dendarien elkarteak eta herritarrek hainbat ekimen burutu dituzte horren aurka;

Arrasaten, Zabaleta auzoan, saltoki handi bat ezartzeko plana jarri dute martxan, bertako dendariak horren kontra azaldu diren arren; eta Azkoitia Eroski handitzeko asmoak kritika ugari jaso ditu.

EAE Estatuko rankingaren aurrealdean dago hipermerkatu kopuru aldetik. Estatuan, batez beste, 1.000 biztanleko 249 m² saltoki handi badituzte, EAEn 340 m² daude. Gainera, Jaurlaritzak eraldatu duen Saltoki Handien Legearekin 1.645.677 m² izango litzukete saltoki handiek, gaur egun dituzten 681.265 m²ren aldean.

Zatozte elkarteko teknikariak, Eva Aranbarrik, aitortu du komertzioak arduratuta daudela, batez ere janari dendak, drogeriak eta horrelakoak. Arrantza birmoldaketa portuarentzat kolpe latza izan zela azaldu digu Aranbarrik —lehen 100 itsasontzi baino gehiago zeuden eta orain 40 inguru geratzen dira lanean—. Hala ere, bere ustetan hipermerkatua egiteko lizentzia emanda dago eta alperrik da indarrak horren kontra xahutzea. Beste bide bat proposatzen du teknikariak: "Herriko komertzioa indartu behar da, adibidez, Udaletxeari aparkaleku gehiago eskatu dizkiogu, hori arazo larria da —guk geuk frogatu ahal izan dugu hori, herri hartara egindako bisitan— eta funtsezkoa merkatariarentzat; merkatariak abantaila berdina izan behar dituzte".

Oinezkoen iritzia "zero gunean"


Dendariak zer pentsatzen duten badakigu. Baina zer pentsatzen du oinezkoak? Mutriku-

Behean, ezker-
eskuin: Iñaki Garcia
bere burdindegian,
hipermerkatu
berriaren inguruan
bildutako paper
mordoa erakusten.
Obrak Ondarroako
kalean. Lur meta
handia Erretereria
auzoan, bertan
egingo dute Eroski
berria.

ko Sabina Lekuberen hitzak etorri zaizkigu gogora galdera horrekin batera: "Jendeak dendarien aurrean agian ez du esango hipermerkatura joango denik, baina bakar batzuek argi eta garbi esan didate baietz, joango direla".

Erretereria auzora jo dugu "joango diren" horietako baten bila. Auzoa ez dago urrutia eta bide zabal batek zuzenean eraman gaitu hara, autoz, noski. Zelaigune zabal batean obra-hondakin meta handi bat ikusi dugu. "Barkatu? Eroski berria non egin behar dute?" galdetu diogu oinez datorren emakumezko bati. "Horixe doa" erantzun digu metara seinalatuz. Bera Kamiñazpi auzokoa da —Erretereria ondoan dagoen auzo txikia— eta garbi esan digu: "Niri oso ondo etorriko zait. Dendariak kezkatuta daude eta horientzat txarra da, baina nik Markinan egiten dut lan eta egunero pasatzen naiz hemen ondok autoan. Ni, behintzat, joango

naiz". Esaldi hori buruan dugula itzuli gara etorritako bide beretik. Calatrava zubi zuria eta Saturrarán hondartza iluna atzean utzi ditugu, kaioen begiradapean. Berriz bueltatzen garenean, agian hipermerkatu baten itzalak ilunduko du ingurua. ■



▷ KRIPTOSEMIOTIKA ◁

"FORUAK ETA ASKATASUNA"

ERRATEN DUELARIK,

< EZ DUGU BOTEREA GALDU NAHI >

ERRAN NAHI DIZU UPPNk.

"NAFARTAYEK dute ERABAKIKO"

DIOELARIK,

**< SUDUR PUNTAN JARTZEN ZAIGUNA
EGINEN DUGU, OSTERA BE >**

DIO PSOENk.

"ALDAKETA HELDU DA"

ALDARRIKATZEAN,

< EZ GURETAKO, BETI ERE >

DIOTE ABERTZALE ZATIKATUEK.

Jump!

Euskaldunak oro, Angel, berriak gara, berriak izatea erabakitzen dugun unetik. (Euskaldun) zahartzeak ezer onik ez dakarrela entzun dut ardura Zuberoako eta barnealdeko haran hertsietarik nenbilen garaietan. Egia erran, ez dut gaur idazteko gogo handirik eta txantxa poetiko soinuarekiko Ttakun [h] errenka bat ekarriko dut orrialdeotara, Inaziok laster abiatuko eta bukatuko den KORRIKA 15ean bezala, Josiri lekukoaren makila pasatzen diola. Mozkor nahi nuke nik ere, mozkor udaberriz, mozkor musikaz, mozkor bake lehiaz, mozkor gure hizkuntzako ele eztiz, ez burua apalik eta murruak arrasatuz etxeratzeko, baina harro bezain jabal. Euskaldun berria horrela irudikatzen baitut, alabaina.

Oporretan nago azkenean eta bakantzetan naizen lehen egun guztietan, Madonnaren *Confessions On A Dance Floor* behatzen dut, buklean. Gustatzen zait Madonnaren ibilbide artistikoa, Mirwaisekin kolaboratzen duenez geroztik gauak alegeratzen dizkigula, nota bakoitza izar iheslari bihurtaraziz. Datozen asteetan Mexiko DFen aurkituko naiz, arto irinez kozinatu taloak eta matahameak milikatzen, tekila hurrupatzen eta Tijuana In Blue talde nafarrak belarrian ohiko txertatu zizkigun melodia mejikanak gozatzen. Agian Madonnaren ahaide bat edo beste hautemaneen dut aireportuetan eta orduan, ondorioz, munduan arrotz ezagun sentituko naiz. Maite dut arrotz izatea, ene herriaren muinean berean.

Octavio Paz-en *Bakartasunaren Labirintoaren* ildoetarik ibiliko naiz, euskaldunak eta lurraren gaineko gainerako *primitiae* populua zerk egiten gaituen hain zahar neurekiko aztertzen. Gure erreakzioen biolentziak gaitu ote amiltzen ala elkarren artean jada harremanik ez edukitzeak, hots xinaurri berdeek amets daiten herrialdeetako aborigenok, indaritsuaz mutuaraziriko



Itxaro Borda

Erra

Basterrretxea

maia eta azteken arra-hurrek eta dibortziaztear den siriar poeta emakume adiskideak eta guk, derrigor biziaraztekoa den lotura isil eta sekretu bat badugula ez ohartzeak? Nork josi diezaguke urratu diguten oihala, ez baldin bada arrakasta planetarioa duen Madonna gureak? *Jump* dio Louise Veronika Ciccione andereak, *jump* errepikatzen du Britney Spears gaizoaren ezpainetan, benetako lesbianak bailiran, musu glamourosa pausatuz!

Gurea, han edo hemen, Forbidden Love bat baita.

Primaderako goiz hau zilar-gris altxatzen da. Eder da, neguaren bihotzetik bizirik jalgitzen garelako sentsazioa. Gristasun iluminatuak Berlineko Oberbaumbruckera naroa eta larrazkenean laino bustitan sutzen den Irati kaskora. Urruntasunik ez da antzematen orduan, urratsa urratsaren kidegoa baino. Urruti eta gerora pentsatzea ilusio optiko bat dela, oraina bete-betea harrapatzea amesten dut. Baina gu, populu zaharrak, geroan irudikatzen gara, iragana eternitate haztuz eta oraina sakrifikatuz. Zer huts egin dugun galdezka gabilta, noiz desbideratu garen, zergatik modernitatearen saretarik baztertu gaituzten, nola onartu dugun hain erraz behe-mailako jendailetan sailkatuak izatea, hizkuntzak eta larruak beltzegiak genituela haien aitzaki zitala barneratuz?

Keep on pushing me xuxurlatzen digu Madonnak. Mendeetako depresio kulturalaren atzaparretarik askatu beharko genuke, ez bakarrik etsai eta maketoenetarik. Ez da etnopsikologo egokirik horretarako. Eta gure baitan dauzkagun piztiak eta andere zuriak baketzeko modua Madonnaren abesti umil eta efikaz bat entzutea dela uste dut, dantza, dantza dezagun Aizkorriraino, gaua argi-izpi lehertzerraino, artizarra zeruan agertzeraino eta *Let it will be*. ■

Nork josi diezaguke urratu diguten oihala,
ez baldin bada arrakasta planetarioa duen Madonna
gureak? *Jump* dio Louise Veronika Ciccione
andereak, *jump* errepikatzen du Britney Spears
gaizoaren ezpainetan, benetako lesbianak bailiran,
musu glamourosa pausatuz!

Garizumaren zibogan

Zumarragara ezpata-dantza egitera azkene-koz gonbidatu zutenean, 61 urte zituen. Azkenekoz diot, baina ez dakit aurretik gonbidatu ote zuten, dakidana da gehiago ez zutela gonbidatzerik izan. Jose Antonio Olanok Antioko basilizan egin zuen bere azken dantza saioa. Iztuetaren ikasle izana, gazetetan airean bi buelta egiteko gai omen zen. Ezpata-dantza egin eta Olanok berak izan zuen soka-dantzan bakarlarari aritzeko ohorea. Parean Francisco Olanen zuen, dantzari bikaina eta... bera baino dezente gazteagoa. Aurrekuaren eta atzeskuaren arteko desafioan bere onenak eman zituen Olanok. Barruak hausteraino itxura denez. Dantza bukatu eta gaizki sentitu zen, etxera joan, ohean sartu eta bederratziz egunen buruan, 1882ko uztailaren 11n hil zen Jose Antonio Olanok.

Marc Hanssens Antwerpenen bizi da. Ondare historiko-artistikoa aberatsa, portu erraldoiaren inguruko merkataritza eta modako azken joerak biltzen dituen hiri ederrean

hiritar arrunta da Marc Hanssens,

baina badu ohitura berezi bat.

Urtero, garizuma erdian izaten da. 1971n egin

zuen estraineko saioa, eta

ordutik 36

urtetan ez du kalerik

egin *Der Antwerpener Schwerttanz* delakoan.

Orain egun batzuk egin du

berriz. Inauteri eta Aste

Santu bitartean, garizumaren zibogan izaten da data.

Marc Hanssens eta

beste 24 lagun alkondara

eta praka zuriz jantzi

dira, belar azpian kas-

kabuloak zintzilikatu

dituzte, ezpata bana

hartu eta goizeko lehen

orduan elizaren aurrean

elkartu dira. Ezpatak

elkarri eman eta danbo-



DANI BLANCO

rraren erritmora dantzan hasi dira; goiz osoa eman dute Antwerpen hiri zahararen kaleetan gora eta behera, ezpata-dantzan. Markina izan zitekeen. Edo Deba, edo Zumarraga, edo Lesaka... Baina Anberes da, eta eliza baino katedrala da aurrean dutena. Gutxienez XV. mendetik dantzatu dira ezpata-dantzak Flandesen. Euskal Herrian ere hor ingurukoak ditugu datu zaharrenak. Estrofa zahar batean jaso zuen norbait: "Carlos quintoren baratzen Aquerrac espata dantzan".

Antzekotasun izugarriak dituzte Flandeseko eta Euskal Herriko ezpata-dantzak. Jantzi zuriak, gerriko eta apaingarri koloretsuak, txintzarriak belarnez, eta ezpatak eskuan.

Ezpatak elkarri emanez taldea osatzeko modua ere antzekoa da. Flandesen eta Euskal Herrian egiten dira mota horretako ezpata-dantzak, baita Kantabrian, Galizian, Alsazian, Tirolen, Txekian, Silesian, Transilvanian, Gaztelan, Katalunian, Valentzian, Portugalen, Eskozian eta Ingalaterran ere.

Marc Hanssens-ek harrotasunez kontatzen ditu garizuma erdiko ospakizunean ezpata-dantza eginez daramatzan urteak. Bera da egungo taldeko beterranoa, eta hori ohoretzat du. Gazteek begirunez ikusten dituzte adineko ezpata-dantzariak. Ez dute gazteen sasoirik, baina gazteek badakite

beteranoekin asko dutela ikasteko.

XX. mende hasieran izan ziren aguretzan hasitako aurrekularien norgehiagoka batzuk. 1912an, Zarauzko Euskal Jailetan, Manuel Txapartegi *Amuña* atera zen plaza erdira bere dantzari trebetasunak erakustera. 70 urte zituen. Iurretan, bost urtetik behin egiten den Urriena jaian, plazerra izaten da 50 eta 60 urtetik gorako gizonak dantzari-dantza eta erregelak egiten ikustea. Ez dut ahazteko orain urte batzuk Garaiko adineko gizon talde bat dantzan ikusi nuenekoa. Eta aldiari behin, hunkigarria izaten da 70 urteak urruti ez dituen Kepa Artetxe galdakorra dantza soltean ikustea. Gatza eta piperra zer den erakusten du *aititek*. Nik 35 urte bete ditut oraintsu. Nire garizumaren zibogan ote nago? Badauzkat urte batzuk aurretik dantzan hobetzen eta gozatzen jarraitzeko. ■

Antzekotasun izugarriak dituzte

Flandeseko eta Euskal Herriko


ezpata-dantzak. Jantzi zuriak, gerriko

eta apaingarri koloretsuak,

txintzarriak belarnez, eta ezpatak

eskuan. Ezpatak elkarri emanez taldea

osatzeko modua ere antzekoa da



Arantxa Uribe

HIK HASI-KO KIDEA

Hezkuntzaren zereginaz Kubatik

M

undua mundu denetik, lehen aldiz, giza-
kia, desagertzeko arriskuan dago: honda-
mendi ekologikoaren atarian; erregai fosi-
len-erreserbak ia agorturik; kutsadurak
eta lurraren basamortutzeak dakarren eli-
kagaien ekoizpenaren murrizketaren eta bidez-
koa ez den banaketaren ondorioz 800 milioi per-
tsona gosetera kondenaturik; gaixotasun berrien
mehatxua... Ondasun banaketari dagokionez,
aberatsenen %1 aberastasun osoaren %40ren
jabe da. Aldiz, behartsuenen %50ari abe-
rastasun horren %1 gelditzen zaio.

Latinoamerikan eta Kariben 209 milio
behartsu bizi dira, eta orain 20 urte baino
73 milioi gehiago dira. 41 milioi haur
pobrezian murgildurik daude eta 22
milioi lan egin behar du bizirauteko.

Oraindik herrialde askok diru gehiago
erabiltzen du kanpo zorraren ordainke-
tan hezkuntzarako aurrekontuetan baino.
Ondorioz, kalitatezko hezkuntzarako
aukerarik gabe, haur eta gazte asko baz-
terketara kondenaturik daude. Hala ere,
munduko gastu militarra milioi bat milioi
dolarrekoa izan da, eta jendea soluzioak
aurkitzeko geroz eta urrunago dago.

Hezkuntzaren bidez soilik salbatuko da
jendea. Horretarako iraultza egin behar da hez-
kuntzan. Baina, eskolagabe batek edo erdialfab-
tatu batek uler al ditzake aurre egin behar diren
eta garaitu behar diren erronka izugarriak?

Gertakari eta hausnarketa horien guztien
inguruan bildu ditu Habanan Pedagogia 2007



Oraindik herrialde

askok diru gehiago

erabiltzen du kanpo

zorraren ordainketan

hezkuntzarako

aurrekontuetan baino



biltzarrak 5.000tik gora hezitzaile; Mexikotik
hasi eta Txile bitarteko herrialdeetako hezitzai-
leek hezkuntzaren betebeharrak eta funtzioak
hausnartu dute eta ondorioetara iritsi dira.

Pentsamolde eta ideologia guztien gainetik,
objektiboak diren datu horiek garbi erakusten
dute mundua antolatu dugun erak bidegabe-
keriak, desberdintasunak eta hondamendiak
besterik ez dituela sortu.

Egoera dagoen horretan utz dezakegu, mun-
duak eman dezakeena arpilatu arte; edo,
mundua antolatzeko beste bide batzuk
saia ditzakegu, jakinik horrek eskema
askoren puskatzea ekarri behar duela.

Guk, hezitzaileok, badugu gure
buruari zer galdetua. Ez dezagun ahanzt
hezkuntza dela jendarte antolaketa
transmititzeko tresnarik behinena, eta
gu, beraz, eragile nagusiak.

Kuban, munduaren hegoaldean bizi
direnak, gosetea eta zorigaitza jasaten
ari direnak, gure erantzukizuna eskatzen
ari dira iparraldean bizi garenok.

Horiek guztiak urrun dauzkagula iru-
ditzen bazaigu ere, ez dezagun ahanzt
guztiak munduaren buelta berean goaze-
la. Begira diezaiozun, bestela, Euskal
Herriak osatzen duen gure mundu txiki honi.
Ezarri diguten Hezkuntza Sistemak zer betekotu,
zatitu eta baztertzen ote du? Hezitzaile eta euskal
hiritar gisa ez ote ditugu beste helburu batzuk?

Hausnarketa interesgarria, dudarik gabe.
Ausartuko al gara? ■

TXANDAN

Amatiño



Hogeitaka
urte luze
dira ni Bel-

Irlanda, ametsen oilanda

Bagenekien, bai,
noizbait bakeak etorri
behar zuena, baina

fasten egon nintzela, irlandar gatazkaz jabetu
beharraren beharrez. Zelan ba ganorazko eus-
kal kazetaria izatera iritsi Ipar Irlanda bertatik bertara eza-
gutzeke? Ipar Irlanda... euskal ametsen oilanda. Izan ere,
hogeitaka urte ezezik, berrogei baino gehiago daramatzagu
euskaldunok Ipar Irlanda eredutzat hartzen eta bere bidea
gure xedea ote den elkar konbentzitzen. Baina ustea ez da
jakitea. Omen garen bezain argiak izanik nekez ulertu ahal
da zer dela-eta orain arte ez garen konturatu Ipar Irlanda,
ezer izatekotan, ez dela Euskal Herria, Nafarroa baizik.

sekula ez genukeen gero pentsatuko hainbeste abangoar-
dia, iraultza eta borrokaren bueltan, Nafarroaren autode-
terminazioa UPNren eskutan geratuko zenik eta, erdi-
purdiko autonomia urria abian jartzeko, Batasunak
—goardia zibilarri men egiteaz gainera— UPNrekin guber-
nua osatzen amaitu beharko zukeenik. Eta dena, saldo
prezioan, 3.500 hildakoren truke.

Baina, hori bai, Gerry Adams-en zaleak iraultzaile
hutsak dira, noski, eta beste guztiak zipaioak edo traido-
reak baino ez. ■

Pako Sodupe

IDAZLEA

Euskadi Sariak

Kanpotik begirata seguru, dena bitan zati-tu eta elkarren aurka aritzeko dugun joera malapartatuaren beste atal bat emango du honek guztiak, borrokaldi bat zelai literario faltsuki politizatuan jokatu. Gainera, zenbait izen handikoren adierazpen desegokiek hauspoa eman diote pertzepzio faltsu horri.

Goazen iskanbilaren iturrira. Jon Alonsok, alde batera, salaketa zehatzak egin ditu, gehienbat itzultzaile-talde zenbaiten jarduerarekin zerikusia dutenak, eta administrazioarekin: “Zio bultzatzen dutenek aintzat hartu al dute orain arte, publie-reportajerik gabe baino ahalegin esker txarreko, iraunkor eta luzeaz, EHU-UPV-tik bertatik, dibulgazioaz arduratu direnen iritziak? Euskadi Saria irabaztea lehiaketa publikorik gabe banatzen diren hainbat lan eskuratu ahal izateko baldintza al da? Halako zer edo zer gertatu zen Pio Barojaren urjentziazko itzulpenak (...)” adjudikatu zirenean. Batzuk gutxietsi, beste batzuk lehene-tsi, faboritismoa, eta Euskadi Saria irabaztea hainbat lan desiragarri, administrazioak ordainduak –Pio Barojarenak hala izan baitziren–, zuzenean eskuratzeko giltza ezkutua izatea.

2003an itzulpen arloan epaimahaian esku hartu zuen nafar idazleak, eta han ikusitako irregulartasunak salatu ditu: oinarriak urratuz zazpigarren gizon, kultur funtzionarioen baten esku sartze, boto kontaketa oker intentzio



DANI BIANCO

txarrez eginak, eta abar. Sariaren duintasunarekin zerikusia dutenak: lehenbiziko liburu bakan-keta aldrebesa hobetu beharra, benetan denbora saria merezi duena ongi hautatzen enplegatu barik bestelako bigarren mailako gorabeherak lehen mailako bihurtu izana “irabazlea ordu erdi laburrean erabaki zen”. Beraz, sarituei abantailak onartzea zilegi da?

Gordeak zituenak lau urtera egurastera ateratzera behartu duen gertakaria berriz: Koldo Izagirreraren *Sua nahi, Mr. Churchill*? ez emana, eta duen iritzia funtsatzeko liburu horri aurkitu ditzkion dohain batzuk eman ditu aditzera.

Nafarrak ez du juzku politikorik egin; administrazioak bai, salaketa zehatzak azaltzen saiatu beharrean sinesgarritasuna irabazteko, aurrez sinesmena eskatu duenean. Horrek herritarra aurreiritzi politikoetara (des)bideratzen du. Administrazioa da herritarrek liskar politikoa ikus dezaten bidea ireki duena, susmo txarrak hauspotuz.

Euskadi Sariak gurean eragin ekonomiko nabarmena dute, eta interesak daude tartean, baina horien gainetik euskal literaturaren duintasuna, prestigioa, kalitatea dago jokoan, Euskadi Sarien funtzionamendua hobetu beharra, euskaldun guztion ondarea dugun literatura hobetu beharrez. Horretarako balio behar du zalaparta desatsegin honek! ■

« Euskadi Sariak gurean eragin

ekonomiko nabarmena dute,


baina horien gainetik euskal

literaturaren duintasuna,

prestigioa, kalitatea dago jokoan »

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Sentiarazten naute Euskal Herritik urrun nabilelarik. Eta akitzen naiz ebidentziak esplikatzera behartzen

nautenean. Bazoaz bizibidetik zehar eta beharrek eramaten zaituzte ezagutzen ez dituzunak tratatzera, tratuen bila. Eta mugikorrak salatzen zaitu, euskalduna zara eta zurean ekiten diozu hotsegileari, zu bezala mundu txiki bateko multzo urriko biztanleari. Tekla gorria sakatu eta mugikorra patrikaratzearekin batera ohartzen zara isiltasuna probokatu duzula inguruan, agian ordura bitartean haien hizkuntzan mintzatuta lortu ez duzun arreta euskara entzute hutsak piztu diela. Eta beste zerbaitezara honaino

Deseroso

ekarri bazaituzte ere, *tabajara* baten aitzinean baleude bezala begiratzen zaituztela ohartzen zara. Desenkusaka hastera otutzen zaizu, baina irri zozoaz

itzulikatu nahi duzu egoera aurrekora ekarri guran. Eta hasten da galdeketa, gorrotatzen duzun hori. Guztiek dute galderaren bat egiteko, aurpegi arduratsuz pausatuko dizutena. Zoritzarrekoa sentiarazten zaituzte, etxean herren zangobako kanpoan. Izan ere, zorionekoak baimenik eskatu beharrik gabeko hizkuntza mintzatzen dutenak. “Arrazoirik ez dugu gutxi garelako” dator kizu burura baina zure ezinez bizibidetik joaten saiatzen zara. Hizkuntza onartuan ekiten diozu zureari. “*Que os den*”. ■

Egunerokoari jarriak

I

Pi-pi-pi hotsei sumiso,
atzea ohetik jaso,
txorrota utzi zabalik eta
ispiluari so.
Itxaropen oro lauso...
Gauza ona da akaso,
egutegiak lan egun bati
ematea paso.



XDZ

IV

Hozkailuan gauzak bakan
ta bagoaz arrapatan,
jakiak saltzen diren tokira
sobre sorpresatan.
Hala ere azken txanpan,
kanpazo on baten faltan...
Hamar produktu daramatzagu
hamaika poltsatan.

II

Ez txirringan, ez trenean,
ez *busez*, ez *footing*-ean,
autoan sartu eta lanera!
Gasen lurrinean.
Zortziak ia gainean...
Aparkatu ezinean...
Enpresan jende adina kotxe
dago *parking*-ean!

V

Etxeratu ta ahal dala,
afaltzea printzipala.
Bihar goizean jaiki beharrik
ez balitz, oxala!
Sobrak, paper zein kristala,
basurara bota ahala...
Bainu on batek nor ez du uzten
berria bezala?

III

Zulodun denez kartera,
beti ezin egin greba;
baina lan egun gehienek nola
duten bukaera...
Gaurkoa ere bete da!
Zintz egiteaz batera...
Kleenex-a bota lurrera eta
bagoaz etxera!

VI

Bainuan ondoren bare,
ezpainak bekainen pare,
apartatuak *Standby*-n utzi
ta ohera alde.
Ohitura zaharren mirabe,
hamaika pizti bagaude...
Planetan alde zer egin leiken
enteratu gabe!

Une
Doinu indartsuak
lasaitasun bila

❑ *Ezpalak*
❑ *Argitalpenak*

❑ *Denbora-pasak*
❑ *Makina bat kontu*

Ihesi
Pasaiaiko portua

ARGIA

erdiko kaiera

kultura eta aisia

Alfonso Sastre

Ahobizarrik gabe

Lanez lepo ibili arren –inoiz ez baitio idazteari uzten– Hondarribiko etxeko atearak zabaldu dizkigu Sastrek egun gris haizetsu batean. Urte hasiera mugitua izan du idazleak, bere testuen estreinaldiak eta zenbait jardunaldi direla medio. Liburuz inguratutako gela goxoan, konturatu gabe, gaua egin zaigu hizketaldi atseginean. Zehatz mintzo da, detailerik txikiena ere pasatzen utzi gabe. Iraganaz ere hitz egin dugun arren –laurogei urte ditu Alfonsoren memoriaren kaxak!– orainaz eta etorkizunaz kezka handiagoak ditu autoreak.

AINARA GURRUTXAGA



KARLOS CORBELLA

2007ko apirilaren 1a

ARGIA

27

«Dramaturgoak ez geundeke gaizki bakerako mahai batean»

KARLOS CORBELLA



Hemerotekan bila hasi eta hara aurkitutako altxorra: 1977an ARGIArako Joseba Sarrionandiak egin zizun elkarrizketa bat. Elkarrizketa hura telefonoz egin behar izan zenuten, zuk Madrildik irtetea galarazita zenuelako. Euskal preso batzuk kartzelatik irten zirenean poliziarekin izandako istiluak salatuz *El Pais*en idatzi zenuen gutun bat zigorraren arrazoi.

Zentsura ofizialki bukatuta, adierazpen askatasuna egongo zela pentsatzen zen. Baina ez zen hala izan. Zentsuraren papera enpresa sektore-ra pasa zen eta diru publikoetara. Antzerkian garbi ikusten da hori. Antzerkiaren kostuak ikaragarri handitu ziren eta desagertu egin zen antzerkia diru pribatuarekin egiteko aukera. Orduan diru publikoak jasotzailearen ideologiaren arabera banatzen hasi ziren. Obra bat zentsuratzeko modua zen diru laguntzarik ez ematea. Azken urteetan nire obra galarazia egon dela esatea gehiegi izan daiteke baina, azken batean, hala izan da.

Oso konprometitua izaten jarraitzen duzu.

Bai, beti saiatu naiz hala izaten. Diktadura garaian zentsura ez zegoen batere estrukturtua, oso arbitrarioa zen eta ez zegoen arautua. Beraz zirrikitu asko zituen. Horregatik auto-zentsuraren aurka egon naiz beti. Batzuk zioten hobe zela aurretiaz gauzak egokitzea zentsura pasa zezaten. Nik ordea zera esaten nuen: "Egin dezagun zentsura existituko ez balitz bezala. Ez dezagun guk egin besteen lana!". Eta egia zen, 1953an *Escuadra hacia la muerte* zentsurak onartu egin zuen. Antimilitarista zen lan bat, frankismoaren garai gogorretan! Orain ere, pentsatzen dudana argi esatea gustatzen zait.

Trantsizio garaia ez zenuen gustuko izan.

Arrazoi batengatik. Frankismoaren kontra, haustura demokratiko baten alde egin zuten hasieratik ezkerreko alderdiek. Baina muturreko posizio hori albo batera utzi zen diktadorea hil zenean, eskuinak eta ejertzitoak halako hausturarik onartuko ez zuten beldurrez. Horrela sortu zen erreforma. Ezker mugimen-

duak ere, PC buru, tesi erreformistetara pasa ziren. Monarkia onartu zen, nahiz eta arbuigarrria izan Francok izendatutako bat estatuko buru izatea. Garai horietan atera nintzen PCtik, ez nengoelako haiekin ados. Nire kide gehienek ordea, partiduak hartutako bidea jarraitu zuten, eta Madrilen oso bakarririk sentitzen hasi ginen. Eva emaztea kartzelatik irten eta oporretara heldu ginen hona eta konturatu ginen gu bezala pentsatzen zuen jende asko zegoela hemen. Eta hemen gelditzea erabaki genuen. Gerora ikusi da arrazoia genuela, gauzak ez zirela ondo hasi, eta hortaz, okerragora egin dutela.

Antzerkiak politikoki izan dezakeen efikazian konfiantza izan duzu beti.

Nik beti uste izan dut antzerkiari eska dakiokeela bizitza sozalean parte har dezan. Hori bai, ezin da ahaztu antzerkia entretenimenduari mundukoa dela eta ez dela ez politika ezta filosofia ere, zentzu hertsian ulertuta. Ekintza ludiko bat da. Baina antzerkiak ez du zertan jolas hutsala izan behar. Antzerkiak, arte guztiak bezala, filosofiar gerturatzen gaitu, pentsamendua zabaltzeko balio du, eta badu politikarekin parekotasunik, bizitza sozalean eragiteko gaitasuna baduelako. Kritikaren bidez, existitzen diren injustiziak agertuz, bizitza publiko eta sozalean eragina izan zezala nahi izan dut. Bizitzan inplikatu zedin, alegia.

Joaten al zara antzerkia ikustera?

Ez gehiegi. Gainera bizi garen inguru honetan ez dago gauza askorik ikusteko. Antzerkia egin egiten da, baina hezurdura falta zaio. Zentzu bat, norabide bat duen antzerkia behar dugu. Konpainiek zein lan eszenaratu erabakitzean, linea bat markatu beharko lukete. Lehen taldeek ideologia bat bazuten. Orain taldeek edozein gauza antzez dezakete edozein momentutan, indeterminatuagoa da guztia.

Hala ere, ba al da azken aldian txunditu zaituen antzezlanik?

Utzi pentsatzen... ba azkenaldian ez. Ez zait ezer etortzen burura, ez didate markarik utzi ikusi ditudan antzezlanek. Kontsumo antzer-

Zenbait izen

✓ **Cervantes.** "Miresmen mugagabea dut harenganako. Benetan gogoko dut eta nire lanetan maiz agertzen dira harekiko erreferentziak. Kixoteren adaptazio bat ere egin nuen: *El viaje infinito de Sancho Panza*".

✓ **Aristoteles:** "Filosofikoki gairidituta egon arren, hark idatzitako *Poetika* antzerkiaren teoriaren oinarritako bat da. Tragedia Grekoaren egitura tentuz aztertu zuen lan hartan eta oso baliagarria da oraindik ere".

✓ **Brecht:** "Antzerkiari buruzko lan teorikoek beherakada handia izan dute Bertolt Brechten heriotza geroztik. Haren dizipuluek ere ezin izan dute maisuaren bidea jarraitu. Brechten obra oso indartsua da, idazle eta poetaz gain antzerki gizona ere bazelako".

✓ **Artaud:** "Hark 1930 inguruan idatzitakoa ondoren 60 eta 70eko hamarkadetan praktikan jarri zuen hainbat taldek, baina maila teorikoan ez zuen aurrerapauso handirik suposatu. Gainera zenbait testutan hainbat gezur esaten zen, idazleak antzerkiaren diktadoreak ginela, adibidez. Sormen kolektiboaren alde, autorearen figura klasikoarekin amaitu behar zela zioten abangoardia haiek. Korrante hark urte batzuk iraun zituen."

Etorkizuneko antzerkia

"Uste dut etorkizunean antzerki idazle handiak sortuko direla. Gizartean eragina izango duen antzerkia birsortuko da gainera, jolas arriskutsu, hau da jolas poetiko izango den antzerkia. Politika profesionalarekin, korruptoarekin, kritikoa izango den antzerkia.

Antzerkiaren historia ez da bukatu.

Seguruenik sala txikietan gauzatuko da antzerki berri hori, antzerkiak ez baitu espazio erraldoin beharrik. Oso lan sakon eta garrantzitsuak egin daitezke gune txikietan. Tendentzia hau jada hasi da 'sala alternatibo' deiturikoetan".

kia deituko nioke gaur egiten denari, ikusi eta berehala ahazten den antzerkia. Ez dago gaizki baina horrez gain beste antzerki mota batek ere existitu behar luke. Oroitzen dut Madrilgo Maria Guerrero antzokian *La herida del tiempo* ikusi nuenean. Sekulako marka utzi zidan, bizitza osorako. Egungo antzerkia hutsaldu egin da, ordea.

Zure itzalarakin hizketan hasi zara azken urteetan, Arteen argitaratzen dituzun iritzi artikuluetan. Zer dela eta?

Pentsamendu sistema zaharra da. Platonen garaitik hona pentsamendu asko eman dira dialogo moduan. Konturatu nintzen nire itzalarakin sortu-

tako elkarrizketa horiekin errazagoa zitzaidala nire zenbait pentsamendu azaltzea. Azken batean pentsamendua norberak bere buruarekin duen dialogo bat da. Galdetzea ere pentsatzeko modu bat da, nodu dibertigarria oso, eta gainera antzerkitik oso gertu dago.

Umorea, ironia, askotan erabiltzen duzun tresna da. *Ensayo general sobre lo cómico (en el teatro y en la vida)* ere idatzi zenuen.

Nigan oso gauza berria da hori. Nire obra hasieran guztiz tragikoa zen. *Escuadra hacia la muerte* edo *En la red* haietan ez zegoen barrea eragin zezakeen inongo elementurik. Gero, askoz beranduago, deskubritu nuen ezin nuela bizitzaren inguruko irudi konplexurik lortu, ez banituen komikotasunaren elementuak ere erabiltzen. Begira, Europako antzerkiaren historia bi fetitxerekin hasi zen: tragedia eta komedia. Hurrengo urratsa tragikomedia deituriko generoaren sorrerarekin eman zen. Horietan tragedia batean komedia printzaz sartzen ziren, pertsonaia grazioso baten bitartez edo. Alderantziz ere gauza bera egiten zen, komedia batean pasarte tragiko bat sartuz. Nik ordea ez nuen hori egin nahi.

Hala sortu zenuen "tragedia konplexua", genero berritzailea.

Halaxe da. Nire lanaren garapenean aurrerapausua izan zen. Nire nahia tragedia konplexuago bat egitea zen. Nahi nuena zen jendeak lanaren momentu batzuetan barre egitea, baina horregatik tragedia izateari utzi gabe.



MADDI SOROA

Tragedia bera kaltetu gabe. Azken batean giza-kiaren ikuspegi zabalago bat ematea zen xedea, gizakia ez baita soilik komikoa edo soilik tragikoa. Bere garaian planteamendu berria izan zen. Orain pentsatzen dut ez zela halako aurrerapausoa izan, eta “tragedia konplexu” hori tragikomedia mota bat besterik ez dela, groteskoa edo esperpentoa izan ziren bezala.

iHan matado ha Prokopius! du izena Alfonso Sastrek estreinatu duen azken antzezlanak. Goian obra horretako une bat.

Madrileko Circulo de Bellas Artes-en jardunaldi batzuk eskaini berri dizkizute **Alfonso Sastre: Una pasión inextinguible** tituluarekin. Antzerkia-
rekiko pasio amaigabea al duzu?

Dena amaitzen da, dena! Hori exagerazio bat da. Pasioa landuz joaten da gainera. Nire pasioa literarioa izan zen lehenik. Txikitan gaixo egon nintzen denbora luzez eta irakurzaletasuna piztu zitzaidan. Idatzi nituen lehen gauzak poemak izan ziren. Ez nuen, hortaz, antzerkia idazteko gogo berezirik. Batxilergoan lagun baten aita antzerki idazlea zen eta hala hasi nintzen antzerkiaz interesatzen. Bere antzezlanen entseguak ikustera joaten ginen... eta hala xe hasi zen guztia. Oraindik ere bizirik dirau pasio horrek.

Idazle oparoa izateaz gain, eskuzabala ere bazara. Zure sekretu guztiak kontatzen dituzu antzezlanekin batera oparitzen dituzun idazkietan.

Niri halako gauzak irakurtzea gustatzen zait, eta horregatik idazten ditut. Javier Poncela lagunak ere halaxe egiten zuen bere hitzaurreetan, kontatuz nola eskatu zitoen lan hori idaztea, zein zailtasun izan zituen, eta abar. Niri bere obrak irakurtzea bezainbeste gustatzen zitzaidan testutxo

Sastre urtea

“2007a Alfonso Sastren urtea izango da”, idatzi zuen antzerki kritikari batek iaz. Eta badirudi asmatu zuela. Azken mendeko drama idazle eta pentsalari garrantzitsuenetakoa izan arren, hamaika urte zera-man Sastrek bere obrak taula gainean ikusi gabe. Isiltasun luzeegiaren ostean, baina, bere hiru antzezlan estreinatu dira urte hasierarekin. Urtarri-lean *iHan matado a Prokopius!* Donostian, eta *¿Donde estás, Ulalume, donde estás?* Madrilén. Sastrek Weissen Marat-Saderi eginiko moldaketa aurkeztu du, aldiz, Espaniako Centro Dramático Nacionalek otsailean.

Argitalpen berriak ere izan dira bera eta bere obraren inguruan: AAT elkarteak (Españiako antzerki autoreen elkarteak) haren lanen antologia bat argitaratu du eta Artezblak Sastrek azken bost urteetan Artezen idatzitako iritzi artikulua biltzen dituen liburu bat, *El autor y su doble* izenburupean. Sastrek idatzitako azken entsegu ere, *Grandes Paradojas del teatro actual*, laster kaleratuko du Hiru argitaletxeak.

horiek irakurtzea eta pentsatu nuen nire irakurleei ere gustatuko litzaiekeela nire lanen inguruan halakoak jakitea. Gainera nire obrak ez zirenez inoiz estreinatzen, testu horietan imajinatzen nuen oholtza gainean nola izango ziren, nolako argiak jar zitezkeen, aktoreak nola ariko ziren... Nire lanen osagarri gisa idatzi izan ditut.

Orain zertan zabilta?

Hilero idazten dut *Artezen* eta beste hainbat aldizkaritan. *Grandes paradojas del teatro actual* lanari azken zuzenketak egiten ari naiz. Gainera beste liburuxka bat osatzen ari naiz, entsegu bat, antzerkiari buruz: *Modos Pirandellianos en el teatro de Alfonso Sastre*. Nire obra batzuetan pertsonaia batzuk konturatu egiten dira instante batez pertsonaiak direla, Pirandelloren pertsonaia horien moduan. Liburuxka horretan horri guztiari buruz gogoeta egiten dut. Defendatzen dut, gainera, Pirandellok Italian egin zuena hemen pittin bat lehenago Unamunok egin zuela. Lehenak antzerkian eta bigarrenak nobelan.

Laurogeita bat urte dituzu. Zer gustatuko litzazuke zure bizitzan gertatzea hemendik aurrera?

Ez dakit neska! Euskal Herrian bakeari bide ematea nahiko nuke. Bakerako elkarriketetan edozer egiteko prest nago, garbitzaile lana bada ere! Uste dut dramaturgo batzuk ez genukeela paper txarrik egingo bakerako mahai batean. Idazle dramatikoak konfliktuetan espezialistak gara, eta tragedia idazleak,

konflikto grabeetan. Ezinegon grabeekin egiten dugu lan, kontraesan handiekin. Badakigu beraz konfliktoak nola sortzen diren eta ideiak izan ditzakegu soluzioen bilaketan. Ez gara ezjakinak aspektu horretan. Ideia batzuk badituz jada. Horien artean bat: Baketzea bakearen kontrakoa dela. Baketzea da indar polizialen bidez lortzen den momentuko lasaitasuna, ikus Algeria edo Vietnamgo kasuak. Euskal Herrikoa gatazka politiko bat da. Inteligentzia eta etika duen edonork baieztatuko dizu hori eta halako gatazkak ez dira poliziarekin edo ejertzitoarekin konpontzen. Beharrezkoa da bake prozesu tinko bat has dadin behingoz. Horixe nahiko nuke niri gertatzea datozen urteetan, hori gertakari pertsonal bezala sentituko nuke eta. ■



UNE

Doinu indartsuak lasaitasun bila

Duela hilabete gutxi argitaratu zen Une taldearen estreinako estudioko lana, *Une Nare Eza*. Bilbo inguruko hainbat bandatan aritutako musikariek eta Latzen eta Sen taldeetan izan zen Aitor

Uriarte abeslari oñatiarrak osatzen dute Une. Laukotearen lehen diskoa Deftones eta Tool bezalako taldeen estilora gerturatzen da, melodia eta gitarra indartsuak uztartuz. Hamaika abesti, bideoklipa eta argazkiak biltzen dituen CD-ROMaz osaturiko diskoa Oihuka zigiluak kaleratu du.

JON GURRUTXAGA

ESKARMENTU HANDIKO MUSIKARIEK osatzen dute Une: Rober Garzia gitarran –besteak beste, ADN eta Apnea taldeetan ibilitakoa–, Karmelo Aretxaga *Mellons* baxuan –Bulldozer eta Zurkai-tzen aritua, baita PILTn ordezkoko gisa ere–, Xabi Oraa de Zumarraga (Soda) baterian eta ziurrenik lauretatik ibilbide ezagunena izan duena, Aitor Uriarte (Latzen, Sen) ahotsen. Lehen diskoa Ondarroako Santos Records estudioetan grabatu zuten 2006ko urtarrilean Iñigo eta Mikel Santos anaien eskutik. Grabaketan duela gutxira arte taldekide izan diren Ruben Gonzalez gitarra-joleak eta Jaime Nieto baxu-joleak ere parte hartu zuten. Programazioetaz, berriz, Gaizka Pereda arduratu zen, besteak beste, Sor-kun, Etsaiak, Afrika eta Bad Sound System tal-deekin lan egindakoa.

Une Nare Eza taldearen estreinako lana bada ere, ez dira hain berriak kontzertuen zirkuituan. Diskoa kaleratu aurretik hainbat emanaldi eskainia zen Une. Gehiengo bizkaitarra duen taldeak zenbait aldaketa izan ditu sortu zenetik eta diskoa grabatu duen arte ez dira partaideak finkatu. Rober Garzia eta Ruben Gonzalez gitarra-joleak izan ziren Niöbe izenpean taldea osatzen hasi zirenak. Xabi baterian eta Jaime Nieto (Psychophony, Afrika, Urgabe...) gehitu zitzaizkien orduan. Aitor Uriarte izan zen tal-

dean sartzen azkena, 2004ko amaiera aldera. Handik gutxira, 2005eko otsailean lau kantuz osaturiko lehen maketa grabatu zuten Ondarro-ako Santos Records estudioan eta kontzertuak eskaintzeari ekin zioten. Aldaketak 2006an etorri ziren, Jaime Nietok musikari profesional gisa diharduenz Madril aldera jo zuen taldea utzita, Montoto kantautore espainiarrarekin lan egiteko. Ruben Gonzalezek, berriz, Bartzelonara jo zuen soinu ikasketak egitera. Gauzak horrela, Karmelo Aretxaga *Mellons* sartu zen taldean eta Une boskote izatetik laukote izatera pasa zen.

Une Nare Eza

Taldearen izena, Une, *Une Nare Eza* esaldiko hitzen lehen hizkiekin osatzen da. Esaldiak, beste modura esanik “momentu trankilen falta” adierazi nahi du. “Taldekideok komunean genuen zerbait zen, ikusten baikenuen lokalean entsaiatzean aurkitzen genuela bilatzen genuen lasaitasun hori. Batzuek footing egiten dute, beste batzuek parapentea, eta guk musikarekin lortzen dugu lasaitasun hori”, diosku Aitor Uriarte abeslariak.

Estilo ezberdinetatik datozen partaideak izan arren, musika mota nahiko zehatzaren barruan diharduen taldea dugu Une. Deftones eta Tool bezalako banda amerikarren eragina nabaria da

gitarretan, adibidez. “Soinu aldetik linealtasuna topatu nahi izaten dugu, baina linealtasun horren barruan beti ere zerbait ezberdina eskaintzen ahaleginduz, bai melodiekin eta bai beste hainbat errekurtsorekin. Deftones eta Tool bezalako taldeak ezagutzen banituen ere, sekula ez nuen aurretik musika horretan sakondu eta benetan interesgarria iruditu zait ikustea oinarri simple batetik abiatuta zenbait errekurtsio erabiliz nola bereiz daitezkeen kantuak”, dio abeslari oñatiarrak. Aitor Uriarte beraren ahotsa da taldearen beste ezaugarrietako bat. Latzen eta Sen taldeetan kalitatezko melodia eta koroak sortzeagatik bereiztu zen oñatiarra eta proiektu berri honetan ere lan polita egin du Uriartek. “Unen hasi nintzenean Sen taldetik nentorren eta garai hartan sortzen nituen melodiekin Senen kutsu handia zuten nire estiloa poliki-poliki taldearekin bat egin eta nortasuna hartzen joan den arte. Badaude hainbat zati Sen gogora ekar diezaguketenak, Latzen zailago. Baina abeslariarekin ohikoa da hori gertatzea, aurretik beste talde batean ibili bazara, normala da ahotsak aurreko banda gogoratzea”, aitortu du Uriartek.

Hitzei dagokienez, ez dago ardatz tematikorik, kantu bakoitza mundu bat da. Une musikak iradokitzen dionaren arabera hasten da kantu bakoitzaren gaia aztertzen eta normalean momentu horretan bizi duen egoera animikoak eta inguruak bultzatzen du gai baten edo bestearen inguruan idaztera. *Musa* kantuan, adibidez, emagaldutako baten bizipenak kontatzen dira inspirazioaren kontzeptua ere azaleratu nahian; *Mila begiren azpian* kontrolpean dagoen gizarteaz mintzo da; *Giça natura* azkenaldian munduan izan diren hondamendiengatik sortutako zirrarak bultzatuta idatzitako pieza da; *Bibozkadak* kantak berriaz, urteak joan arren jolastera animatzen du.

**“Benetan interesgarria iruditu zait
ikustea oinarri simple batetik
abiatuta zenbait errekurtsio erabiliz
nola bereiz daitezkeen kantuak”**

Aitor Uriarte

Zuzeneko

Une Nare Eza honetan laukotea programazio, efektu eta koroiez baliatu da diskoa jantzi eta borobiltzeko. Estudioan egin ohi diren konponketa horiek zuzenekoetara eramatea ordea, ez da lan erraza izaten. Askotan ohiko instrumentuez gain, teknologia berrietara jo behar izaten da, baita partaideen kopurua handitzera ere. Hasiera batean taldeari buruhausteak eman zizkion gaia izan zen, sanplerrak sartzea ere bururatu zitzaizen. Baina azkenean “sinpletasunera” jotzea deliberatu zuten: “Kontzertuak efektu gabe eskaintzea erabaki genuen, era horretara zerbait ezberdina eskainiko genuela pentsatu genuen. Baina nahi gabe diskoaren esentzia bere horretan islatzea lortu dugula konturatu gara. Jendeak diskoan bezalako soinua dugula esan digu. Kontzertuetan intentsitateak ordezkatu du CDtik hartu ez duguna”, azaldu du oñatiarrak.

Untxia, lasaitasunaren ispilu

Diskoaren diseinuan ere, Une taldearekin loturik dagoen lasaitasunaren kontzeptua islatu nahi izan du. Horregatik, untxi txuri baten begiak dira azaleko protagonistak. Disko osoan kolore txuriaren argitasuna da nagusi eta helburu zuten sentsazioa erdietsi dutela esan daiteke, bai azalak eta bai barrualdeko orrien diseinuak horixe adierazten baitute: lasaitasuna.

CDan hamaika kantuez gain, taldearen bideoklipa, argazkiak eta hitzak biltzen dituen CD-ROM txukuna aurki dezakegu. Aitor Ortiz de Felipek zuzendutako bideoklipa estilo aldetik zaindua da eta poliki editatuta dago. Taldearen inguruko informazio gehiago eta kontzertuen datak jakiteko: www.unekin.com. ■

ATALAIA JATETXEA



Aritz Ondo, 69 • 20305 Irun • Tel: 943 635518 • Faxe: 943 638718
e-posta: info@hotelatalaia.com • web orria: www.hotelatalaia.com

Argitalpenak

Diskoteka

IKER BARANDIARAN

Musika geografikoa, umorez eta ironiaz jantzia

Karidadeko Bentakoek ez dute ostatu berean egon nahi, eta dagoeneko hirugarren bidaia luzea hasi dute. Ondo pasatzeko eta, zergatik ez, esperimentatzeko egin zuten saiakera eta "txaranga" hori oraindik ez da gelditu, jairik jai jarraitzen du. Lan honetan ere Goran Bregovic eta Emir Kusturicaren eskuetatik helduta Balkanetako doinu parranderoak ekarri dizkigute (*Herri galduta*, *Treneko koplak*); baina bestelako soinuak ere batu dituzte bidean: Italiako folkaren (*Larrosa beltza*) eta Greziakoaren (*Itsasontzi baten*) eragina dutenak; Karibeko erritmo beroago eta lasaiagoak (*San Quirico*, *Atea itxi dut...*); baita doinu arabiarak (*Belannaldia*) edota andaluziar-mexikarrak (*Xoxua*) ere. Adina errebeldiaren aurrean gailentzen saiatzen bada ere, Maiak idatzitako kantuetan umorea eta ironia barra-barra daude.



San Quirico

Karidadeko Benta

GAZTELUPEKO HOTSAK

Iraupena: 36'39"
14,45 euro

JON MAIA - KARIDADEKO BENTA

«Leku ezezagun batean gaude, etiketatzeko zaila, eta horrek balio handia du guretzat eta entzuleentzat»

"Adinaren kapritxoa da errebeldia". Euskal Herriko biztanleria zahartuz doala-eta, zer etorkizun du hemen errebeldiak?

(Barreak) Kontatzen dugu adin batetik aurrera jendea aldatuz doala, eta lotu egiten dela. Kontu serioei irakurketa ironikoa egiten diegu. Badirudi umore gutxi dagoela musikaren alorrean...

Bai. Oso zaila da barrea

aurkitzea kantuetan; eta hori pena da. Gure taldearentzat, aldiz, umorea ezaugarri garrantzitsuenetakoa da: kantuetan, jarreran, hitz egiteko moduan...

Zer da musika alorretik harritu zaituena, bertsolaritzatik etorrira?

Bertsolariok muga malguak ditugu. Saioetan, afarie-tan... bertsotan aritzen gara. Bukaera non dagoen ez dugu jakiten askotan. Musika alorra, berriz, askoz metodikoagoa da, eta alderdi ezkutua ere badu: talde lanean egiten den prestaketa...

Musika bidaiatzeko modu bat da zentzu zabalenean?

Bai. Gure diskoak bidaia dira. Kantuek lurralde askoren erreferentzia dute. Gure musika geografikoa



da. Musika kritikariek gu etiketatzeko zailtasunak izaten dituzte; leku ezezagun baten gaude. Eta horrek balio handia du guretzat eta entzuleentzat. Hiru lan kalean, eta kontzertu dezente bizkarrean. Dagoeneko eroso sentitzen al zara abesten?

Bai. Nabaritu dut bila-kaera, nahiz eta ez dudan nire burua abeslartzat.


hogeita bost urte daramat bertsotan, eta oso zaila da klitxea kentzea. Ez nekien kantari moduan zer egin, eta zailtasunak izan nituen erritmoarekin, abestiak memorizatu beharrekin...

"Gure jainkoak dira baleak, eta ilargiak jartzen ditu legeak". Inoiz esana dute gu garela Europako indioak. Badugu antzekotasunik beste indioekin?

Badugu historia paralelo bat. 150 bat urtetan, XVI. eta XVII. mendeen artean bi nazioak gurutzatu egin ziren, eta hizkuntza eta interes komertzialak konpartitu genituen. 500 urte geroago, nazio txiki eta kolonizatu biok nortasun eta hizkuntza propioei eusten diegu.

Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE



Eneko Haritza

Iñaki Azkune

GERO


98 orrialde

9,50 euro

Arbasoen arazoak VIII. mendean

Iñaki Azkunek Gero argitaletxearen bidez plazaratu duen *Eneko Haritza* izenburuko liburuan, euskal jendeak VIII. mendean aurrean izan zituen arazo nagusiak azaltzen dira. Etsai asko zituzten Garona ibaitik Ebrorainoko lurretan bizi ziren euskaldunek: franko guztien buru zen Karlo-magno; arabiarrek Kordobako *emir* zuten Abd al-Rahman; Mus-karia aldeko lurren jabe zen Banu-Kasi familia; Mendebaldeko asturen eskualdean jaun eta jabe zeuden bisigodotarrak... Euskal jendea, euren artaldeekin mendietan sakabanatua bizi zen, eta beren burujabetasunari eusteko elkar

hartzea beste erremediorik ez zuten izan. Eta ahalegin horretan ez zuen garrantzia eskasa izan Eneko Haritza buruzagiak. ■



Laicidad en las sociedades actuales

Batzuen artean

JUSTIZIA ETA BAKEA


82 orrialde

Laikotasuna egungo gizartean aztertzen duten hiru gogoeta

2005ean egindako Ricardo Alberdi Jardunaldi Sozialaren baitan *Laikotasuna gaurko gizartean* gaiaren inguruan entzun ahal izan ziren hiru gogoeta eskaintzen ditu *Idatz* argitalpenak, Donostiako Elizbarrutiko Justizia eta Bakea Idazkaritza Sozialaren eskutik. Aurrenekoa Deustuko Unibertsitatean irakasle lanetan diharduen Gaspar Martínezena da eta *Laikotasuna, sustrai modernoak eta zenbait plasmazio sozio-kultural* dauka izenburutzat. Bigarrena Javier Lezaun gaztearena da. London School of Economics-en Arrisku eta Erregulazio Azterketa Guneko gizarte-ikertzailea da Lezaun eta testuinguru anglosaxoian laikotasuna ulertzen den eraz mintzo da. Azkenik, Donostiako gotzain emeritu Jose Maria Setienek, erronka etikotzat hartzen du laikotasuna. ■

Ana Urkiza hiriari kantuka

Hiriaren barnean guztia du kantagai Ana Urkizak, Pamiela argitaletxearen eskutik kaleratu duen *Nire hiriko poemak* liburuan. Atal nagusi bitan banandu ditu egileak poemok, Kalekoak eta Bihotzekoak, eta haien ondoan Elena Odriozolak bere marrazki ederrak jarri ditu. Urkizak banan-banan eskaini dizkie bere hitz neurtuak hirian topa daitezkeen kioskoei, musika-plazei, espaloiei, azokei, pertsonei, gozodendei, lorategiei, edozein eratako eraikinei, garraiobideei, jolasei, animalie... Eta gauza bera egin du bihotzekoak dituen bitxikeriekin, noizean behin senti daitezkeen isiltasunarekin —hiriaren arnasa da hori poetarentzat—, bakarda-dearekin, haizeak dakarren musikarekin eta bare eta naro datorren zaratarekin. Egunsentia, goizaldeko ala gaueko orduak, uda, euri zaparrada... guztiak ditu kantagai poetak. ■

Nire hiriko poemak
Ana Urkiza


PAMIELA

86 orrialde

8,50 euro

Etxeko txikientzako

Gure haurren hatzamarrek aise hautsiko ez dituzten kartoi lodizko orriz osaturik dago *Pigmeo txikia*, Cyril Hahnen kontakizuna. Aitor Aranek euskaratu eta Ibaizabal argitaletxeak kaleratu duen liburu honek ehiztari handia izan nahiko lukeen Bubu pigmeo txikia du protagonista. Bubu hain txikia denez, oihaneko animaliek ez diote bere mehatxuei inolako jaramonik egiten. Alderantziz, bere txikitasunaz jabeturik, iseka egiten diote mutikoari. Jakina, Bubu ospindurik dago. Baina halako batean burutazio bikaina izango du, eta zulo bat egiten hasiko da. Eta zuloa egiten jarraituko du gau eta egun, astebetetz. Behin zuloa nahi duen bezain handia dela iruditu zaionean, zuhaitzen adar fin batzuekin estaliko du, eta animaliak oso gozozaleak direla jakinda, zuloaren aldamentetik tarta ederra eskainiko die. ■




Pigmeo txikia

Cyril Hahn

IBAIZABAL

18 orrialde

7 euro



De mare vasconum. La memoria perdida

Miguel Laburu

PAMIELA

208 orrialde

18,50 euro

Euskal itsasgizonen memoria

XII. mendetik XVI.eraingo euskal itsasgizonen bizi izandakoak azaldu zizkigun Miguel Laburu (1918-1999) historialariak *De mare vasconum. La memoria perdida* liburuan. Orain haren lagun mina izandako Jesus Lizarragari esker Pamiela argitaletxeak kaleratu du liburua, euskal itsas historia berreskuratu eta dibulgatzeko asmoarekin. Miguel Laburuk lan honetan Nafarroako Erresumak itsasoarekin izandako lotura agertzeaz gain, aintzinako itsasontzien arkitekturari ere eskaintzen die tarte, garaian garaiko ontzien ilustrazioak agertuz. Euskal bale arrantzaleei, agintariek hartu-emanetarako erabiltzen zituzten zigiluei eta herri armarraitan agertutako irudiei ere erreparatu zien egileak. ■

Ikasle bihurrienak baretzeko ezinbesteko hitz magikoak


Bere ikasle bihurriak iskanbila gehiegi egiten hasten direnean, Maripi andereñoak ondo daki zer egin: besoak zeru aldera altxa eta "Mixi marrau!" esaten du ozenki. Berehala datorkio ikasleen erantzuna: "Mixi marrau!", haiek ere, eta korrika abiatzen dira Maripik kontatzen dizkien ipuinak entzuteko ikasgelan daukaten bazterrera. Hori kontatzen du Jesus Mari Olaizola *Txiliku* Jon Zabaletaren marrazkiz hornituta Elkar argitaletxean plazaratu duen *Mixi marrau* lanean, *Txakal gorriaren* istorioa azaltzearekin batera. ■

Mixi marrau

Txiliku, Jon Zabaleta

ELKAR

44 orrialde/ 7,25 euro



EDORTA JIMENEZ

«Indioekin ere egon nintzen. Minez eta saminez itzuli naiz»

Zure lan hau bidaia liburutzat har al daiteke?


Ameriketako Estatu Batuak. Turismoa egiteko leku zinez zabala da. Baita ikerketa eta gogo eta egiteko ere. Bietarik dago *Koioterren arrastoa* izeneko liburuko kroniketan, edo narrazioetan, bietarik baitute horretan bildu diren testuek.

Bi aldiz egona zara Ameriketako Estatu Batuetan. Zer berri aurkituko du haiei buruz Koioterren arrastoa irakurtzen duenak?

Han ia dena da handia. Esate baterako, sekuoia tantaiaak dituzte. Kalifornian. Ez hastapenetatik ekologiarren zaleak direlako, norbaitek zuhaitzontz aldeko aldarria egin zuelako baino. Han dena da handia, bai, eta miragarriak ere ez da falta. Hala nola, Nevadako mortuaren baitan diren lakuak. Horietako bat Piramidearena da. Indioen erreserba bihurtua, horien historia jarduteko leku aparta. Indioen historia horretan euskaldunek ere parte izan dute. Euskaldunak Ameriketara! Urre ametsaren arrastoa dago *Koioterren arrastoa* liburuan. Hara zertara joan ziren-eta, aberastera. Ez da soilik hori, oster. Han berrogei urte egin dituen euskaldunaren testigantzak, edota tailerrarekin hoge egin dituen bestearenak, zer pentsa ematen du. Denok aberastuko gara, hemen billeteak dagoz! Horixe diote batzuek.

Baina guztiak ez dira dirutuko, ez?


Ez, jakina... Aberastu ez direnak indioak eurak dira. Horiekin ere egon nintzen. Minez eta saminez itzuli naiz. Jainkoa, bakarra ei dena, zuriek erabiltzen dute eta, irudi du horiexentzat lan egiten duela. Liburua eman omen die. Zein liburu? *Koioterren arrastoa* begiratzen duenak ondo asko jakingo du.



egileari galdezka

Ameriketako Estatu Batuak eta Edorta Jimenez

Koioteen atzetik iritsi omen zen gizakia egun Amerika izenarekin eza gutzen dugun kontinentera. Hala dio behintzat memoria galzten denetik han bizi izandako jendearen kondaira batek, eta hala kontatu zion haien ondorengo batek Edorta Jimenezi, *Koioterren arrastoa* izenburuko liburuan jasotzen denez. Ameriketako Estatu Batuetara idazle bizkaitarrak 2002an eta 2005ean egindako bidaien irakaspenez eta emaitzak jasotzen dira lan horretan. Kalifornia, Nevada, Idaho eta Colorado estatuetan egondako garaietara. Ezagutza ugari egin zituen. Gogoangarriak guztiak, nahiz eta batzuk atseginagoak gertatu eta beste zenbait tristeagoak. Denen berri ematen digu Edorta Jimenezek *Koioterren arrastoa*. Erreserbetan bizitzera beharturik dauden Paiute eta Ni Mi Pui herrien kezak eta sines-



Koioterren arrastoa

Edorta Jimenez

SUSA

170 orrialde

14 euro

menak; Ameriketara joandako euskaldunen ametsak zertan gauzatu diren; lurralde haietan pribilegio guztien jaun eta jabe diren "zuriak" kolore iluneko pertsonetaz nola baliatzen diren; Renoko unibertsitateko giroa; Veterans Day ospatzeko zenbaitek dituen ohitura oldarkorrak; Bibliaren sinesmenak bere egin eta bete egin ditzan edonori behartzeko hainbat amerikarrek daukan joera... ■

Ezpalak

JON TORNER

Xabier Altubek idatzitako *Aldarea #01* lanak irabazi du Bilboko Gabriel Aresti ipuin lehiaketa. Igor Arroik eta Goio Ramosek eskuratu dituzte euskarazko lanen alorreko beste bi akzesitak. Gaztelaniazko saria Miguel Sanchezek irabazi du *Ojos de color ambar* lanarekin.

Belen Alvarez, Carlos Diaz, Eduardo Soldaña, Isabel San Juan, Rosa Marina, Juan Antonio Uriarte, Naiara Moreno (azpiko margolana berak egin du), Pedro Seguro, Puri Lete eta Euskal Akuarelisten Elkarteko kide diren beste hainbat pintorek euren lanak Ordiziako Barrena kultur etxean jarri dituzte ikusgai. Erakusketa apirilaren 4a arte izango da zabalik.



Unai Elorriaga idazlearen lanari buruzko hainbat artikulua bildu ditu *Oihenart*, *Eusko Ikaskuntzaren Hizkuntza* eta *Literatura Koadernoak* aldizkariaren 22. zenbakiak. Jon Kortazarrek koordinatu duen ale monografikoak *SPrako tranbia* nobela, Elorriagak Espainiako Sari Nazionala jaso aurretik zein ondoren hedabideetan izandako isla eta haren estiloaren ezaugarriak ditu hizpide, besteak beste. Halaber, Elorriagak berak idatzitako testu bat ere irakur daiteke.

Javier Ziga margolari nafarraren familiak izen bereko fundazioa sortu du, pintorearen obra nafar guztien esku jartzeko asmoz. Fundazioak erakusketak, ikastaroak, mintegiak eta bekak bultzatu nahi ditu, besteak beste. Familiak Javier Zigaren obrak Baztanen erakutsi nahi ditu, hangoak baitziren bere ama eta emaztea.

Jean-Philippe Larrebure buru duen Izturitze eta Otsozelaia elkartek kudeatuko ditu hurrengo urteetan Donamartirindauden bi kobazulo horietan aurkitzen diren objektuak. Elkartea Darricaud familiaren partaidetzarekin (kobazuloen jabeekin) sortu da eta bi leizeetan antolatuko diren kultur ekitaldiak ere kudeatuko ditu.

Palazueloren obrak, Guggenheimen ikusgai

Bilboko Guggenheim museoan Pablo Palazuelo artista madrildarrari buruzko erakusketa izango da ikusgai ekainaren 3a arte. Bartzelonako MACBA museoaren laguntzaz atondutako erakusketa horretan 350 obra jaso dituzte; horietako batzuk aurrenekoz ikusi ahal izango ditu publikoak. Margolan, eskultura, bozeto, marrazki eta *gouacheek* (grabatuek) osatzen dute erakusketa. Gehienak 1950eko eta 60ko hamarkadetakoak dira, baina oro har, artistaren ibilbide osoa eza-gutzeko parada eskaintzen dute. Palazuelo abstrakzio espainiarren aitzindaritzat hartzen dute adituek.



Kike Diaz de Radak Berrian: «Ez dut ezetzik esaten, ez. Eskaini dizkidaten lan guztiak interesatu zaizkit. Egia da batzuetan antzerkiak maldizio txiki bat duela: edo ez duzu batere lanik edo lan guztiak batera datozkizu. Antzerkian, gosez edo logurez hiltzen zara. Aukeratu egin behar da: nik nahiago dut logurez hiltzea. Lan mordo egin eta nire osasuna arriskuan jarri behar badut ere, onartu egiten dut. Baina batzuetan ezinezkoa da erabat, aktoreok eragozpen bat dugulako: ezin gara aldi berean bi tokitan egon! Ez dakit beste lanbide batzuetan gertatzen den...».

Luzien Etxezaharretak Gara egunkarian: «Azken urte hauetan dugu euskal literatura sortzen ikusten, literatura askatu bat, etorkizunari irekia. Batez ere,

garrantzitsua da idazle batentzat izan dezala liburutegi bat bere irakurgaietzat, bere hiztegiekin, bere klasikoekin... eta orain idazleek badute lanabes bat. Ni oso baikorra naiz geroari buruz. Kezka bat da, baina, komunikabideek eta irakaskuntzak gutxiegi erabiltzen dutela euskarazko literatura modernoak».

Abigail Lazkozek Deian: «Marraskia pinturaren hezurra da, artistak bere ideien zirriborroak egiteko erabiltzen duen aurreneko tresna. Hortik aurrera, diziplina handiagoetarako bitarteko gisa erabili ordez, bere horretan garrantzia hartzen du (...) Edonork pareta batean ala hondarretan marka bat uzteko modurik xaloena delako marrazten dudala esan ohi dut beti; hizkuntza sinplifikatzen du».



Ondarre baserria

20214 Segura (Gipuzkoa) Tel.: 943 801684

e-posta: ondarre@hispavista.com www.acvmultimedia.com/ondarre

Martxoaren 30ean, 31n eta 32an ospatuko da Xiru jaialdia

EZ, EZ GABILTZA OKER. Gotaineko (Zuberoa) Xiru jaialdiaren antolatzailerik kaleratutako esku orriaren azalean horixe irakur daiteke. Euren umore onaren ispilu da. Martxoaren 32a, noski, apirilaren 1a da gainerako guztiontzat. Kontuak kontu, hiru egun horietan ospatuko da Xiru jaialdiaren 18. edizioa, *Norena da lurra?* izenburupean. Lehen egunean, *Garindaine lur gaine* ikuskizuna eskainiko dute Garindainen Xavier Pinon argazkilaria, Suak Altzaiko piroteknia zaleek, Karidadeko Benta taldeak eta Ainara, Oilarra eta Mixel Arotze herriko kantariak. Emanaldia 21:00etan hasiko da eta apur bat beranduago pasako da Korrika 15 handik, ikuskizunarekin bat eginik. Hurrengo egunean, *Lürrean sortü* ikuskizuna eskainiko dute hainbat euskal musikariek eta Errumaniako Vagabontu ijito fanfareak, Gotainen. Egitarauak jasoko dituen gainerako ekitaldi guztiak, hemen: http://files.eke.org/pdf/xiru_2007_eu.pdf.

Kulturaren Euskal Behatokiaren buletina

EUSKO JAURLARITZAKO Kulturaren Euskal Behatokia *Kulturkaria* izeneko buletin elektronikoa banatzen hasi da. *Kulturkariaren* 0. zenbakiak Ramon Zalok idatzitako Kulturaren Euskal Planaren balantzea eta garapen-ildoak testua, Behatokiaren 2006ko jardueren eta 2007ko Ekintza Planaren inguruko albisteak, tokian tokiko albisteak eta hainbat libururen gaineko informazioa bildu ditu, besteak beste. *Kulturkaria* euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez edo frantsesez jaso daiteke.

Donostiako Piraten I. Musika Lehiaketa.



Jai herrikoien alde lan egiten duen Donostiako Piratak taldeak I. Musika Lehiaketa antolatu du,

Parte hartzeruntz abant! ekimenaren barruan. Donostiako eta inguruko zenbait herriko talde zein bakarlariek har dezakete parte lehiaketan. Horretarako, hiru abestiz osatutako CDA aurkeztu beharko dute apirilaren 16a baino lehen. Epaimahaiak aukeratutako zortzi taldeek bi finalerdi jokatu dituzte (apirilaren 27an eta 28an) eta finalera pasako diren lauak Loiolako gaztetxean izango dira berriro maiztaren 26an. Informazio gehiago www.izanpirata.info web gunean.

Apirilaren 2tik 14ra Itsas + Mendi Barnetegia

Bakalku (Nafarroa) eta Arrigorri (Ondarroan)
Osakidetza 1go, 2. eta 3.a
Habe 1go eta 2.a
EGA
Mintzamina
Prezioa: 470€ mantenu osoa + klaseak

Apirilaren 4tik 9ra Familiarentzako egonaldi bereziak

Bakalku (Nafarroa)
Prezioa: 150€ pertsonako egonaldia + mantenu osoa
120€ Zenbat Gara elkarteko lagunak
(haurrak prezio berezia)

Aste bateko Barnetegiak

Apirilaren 2tik 8ra Bakalku (Nafarroa)
Apirilaren 10etik 15era Arrigorri (Ondarroan)
Apirilaren 10etik 15era Bilbon
Osakidetza 1go, 2. eta 3.a
Habe 1go eta 2.a
EGA
Mintzamina
Prezioa: Bilbon 170€ / Zenbat Gara elk. lagunak 150€
Bakalkun edo Ondarroan 235€
mantenu osoa + klaseak / ZG lagunak 215€

Gabriel Aresti euskaltegia*
San Bizente 2 - 4. solairua 48001 - Bilbo - Tel: 94 423 75 91 - bulegoa@gabrielaresti.com

Elkarlan
euskaltegiak

www.gabrielaresti.com

2007ko apirilaren 1a

ARGIA

Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

Hitz gezidunak

DANI BLANCO

KALTE ERDU, ETOR ZAITEZ	* ABIZENA ZALETASUN ATZIZKIA	ORTZI		ERREGELA, NORMA	* IZENA FOTOLITOAK LORTZEKO TRESNA	AITA EDO AMA
ALTU GIZONA EMAZTEARE- KIKO				LEIAL, ONEST		ARRASTAKA, HERRESTAN
				ASIAGO HERRITAR		
			...VICIOUS, KANTARIA	ZUKA ARITZEA		
			LEIAR, KRISTAL	ORBANAK DITUENA		
KONTSO- NANTEA	ARGIREN PANTAILA				NAFARROA- KO HERRIA	
BARIK	EGIAZ, EZ TXANTXETAN				BAHETU	
		AURKITU JAI BAT EGIN				MODU ATZIZKIA
						AZKEN HILABETE
PRESOEN ZIGORRAREN BARKAMENA	IZAN TESTUINGURU			KOREAKO HERRITAR		EGOERA ESTU BATETIK IRTEN EZINIK
				HITZARMEN		
					IDAZTEKO ZAFLA	
				AIPAMEN		
AUTONOMI ESTATU		ZITAL				GABEZIA
HEGALA, IZKINA		ZUZEN, TENTE				EMAKUME IZENA
			KANPORA EZ EME			ROENTGEN
						ALUMINIOA
BAITAN OHARTU				TXINPARTA TONA		
					INTSEKTU MOTA	

Sudokua

9 arteko zenbakiak jarri 3x3 laukitan, koadro osoko lerroan errepikatu gabe.

2						7
	3		7			
			4		6	5
		1	8		9	7
	7				2	
4	5			7	1	
9	4	2		1		
			9	8		
	7					1

Erraza


GuruXegramak

EZKER-ESKUIN: 1. Hegazti beltza. 5. Arrain mota. 9. Azkar. 10. Burutik jota. 11. Barre. 12. Erreka, ur-laster txiki. 13. Haitzulo, koba. 15. Salto. 16. Jardun, ari izan. 19. Eme sortzaileak. 20. Alkate, auzapez. 21. Zabaldu, sakabanatu. 23. Leun. 26. Ur asko duena. 30. Agurtzeko hitza. 31. Ezer ez. 32. ... egin, arrainak amuan hozka egin. 33. Idiei atzera egin dezaten esaten zaaien hitza. 34. Bizkaian, ilea. 35. Itsas arrain.

GOITIK BEHERA: 1. Erraza ez dena. 2. Ipuru. 3. Iruzur, engainu. 4. Agataren barietate oso preziatu. 5. Nola. 6. Erregela, norma. 7. Ezain, itsusi. 8. Basamortuko berdegune. 14. Eroan. 15. Kirolean jardun. 17. Otoitz bukaeran esaten dena. 18. Gaude. 21. Afganistango emakumeek erabiltzen dute. Gorputza erabat estaltzen duen jantzia. 22. Txerria. 23. Elkartu. 24. Anfibio mota. 25. Erdigune. 27. Azterketa mota. 28. Su hartu. 29. Doministiku.

1	2	3	4		5	6	7	8
9					10			
11					12			
13				14		15		
				16		17	18	
				19				
				20				
				21			22	
23	24	25			26	27	28	29
30					31			
32					33			
34					35			

Koka itzazu beheko piezak goiko puzzlean eta Elias Querejetak esandako esaldi bat irakurri ahal izango duzu.



Kike Amonarizen umorea

Soldaduskatik libre

Madrilen ikasten ari zen adiskide bati gertatua.




Soldaduskatik libre gelditu ahal izateko okulistaren paperak faltsutu zituen eta kuartelera alegatzera joan behar izan zuenean, bertako medikuari ia itsua zela sinetsarazi zion, paperen eta egindako antzezpenaren bidez.

Hurrengo asteburuan, jada lasaiago, lagunekin film bat ikustera joan da eta pelikula amaitzean eta argiak pizterakoan, zertaz ohartuko eta... aldameneko ikuslea, kuarteleko medikua zela!

Izualdi labur baten ondoren, eskua medikuaren sorbaldan jarri du eta:

– Barkatu emakumea. Hurrengo geltokian jaitsi
egin behar dut!

Soluzioak



PUZZLE:

Amak oso ongi hitz egiten zuen, eta hitzak ere bai, baina gaztekeraz hitz egiten genuen beti, eta ez nuen ikasi. Pena emanen dit, baina halaxe da.

Elias Querejeta.



- Abentura kirolak
- Eskola kanpainak
- Kanpamentuak
- Ospakizunak
- Multiabentura
- Prestakuntza ikastaroak
- Bidaia antolatua
- Bizikleta edo/eta mendi materialaren alokairua
- Aurrekontuak (Neurrira egindakoak)

Harremanetarako telefono zenbakiak: 635 748 947 / 635 748 948 - Tel. eta Faxa: 945 288114
San Juan 18, 01208 Albeiza - ARABA • www.inguruabentura.com • info@inguruabentura.com



Ihesi

Euskal Herria ezagutuz

TESTUAK ETA ARGAZKIAK:
JON GONZALO / LANDER GARRO

1843. urtean, Victor Hugo idazle frantziarra liluratuta gelditu zen Pasaiaiko badiaren edertasunarekin. Bi mende geroago gauza asko aldatu dira, baina Pasaiaiko badiak xarma berezia izaten jarraitzen du. Portuko zatarkeria eta naturaren edertasuna nahasten ditu, zein baino zein ikusgarriago. Pasaiaiko badiako sekretu guztiak ezagutzeko itsasontzi gainean honako txango hau egitea proposatzen dizuegu.

Natura eta industria elkarrizketan

Pasai Donibaneko ontziralekuan hasiko da gure txangoa –Pasai San Pedrorra doan ontzia ateratzen den leku berean–. Marrajo II.a ontzia astean bitan ateratzen da bertatik, eta Pasaiako portua eta badia ezagutzeko aukera bikaina eskaintzen du ordubeteko txangoan. Ignacio Berrotaranen gidaritzapean, Pasai Donibanetik Pasai San Pedrorra abiatuko gara. Pasai San Pedron arrantzaz-portua dago, eta arrantza-ontziak nonahi ikus daitezke. Asturias, Galizia, Portugal... Kantauriko ia txoko guztietatik etorritako itsasontziak dira. San Pedroko kaian atsedean hartzen dute, astebete edo hamabost egun itsasoan pasa eta gero. Arrain tona asko ekartzen dituzte, eta arrain horiek guztiak San Pedroko arrain biltegian edo lonjan jartzen dira salgai. Arrain freskoa nahi duenak goizero du erosteko aukera San Pedroko lonjan.

Dekadentziaren enkantua

San Pedro atzean utzi eta Trintxerpera eramango gaitu Marrajo II.ak. Pasaiako Portuak duen eremu dekadentea da Trintxerpe. Ontzi herdoilduak, gasoleo usaina... Nahiko eremu zatarra dela ezin da ukatu, baina gainbehera puntu horrek xarma berezia ematen dio. Gainera, Pasaiako portuko bakailao-ontziak bertan egoten dira, eta ontzi hauen handitasuna ikustea beti da ikusgarria. Behin handitasuna aipatzen hasita, ordea, kargaontziak dira Pasaiako portuko itsasontzi deigarrienak; Pasai-Antxoko eremuan egoten dira, garabien azpiko aldean. Dozenaka tona txatarra ekartzen dituzte portura. Kargaontziak kargatuta dauden ala ez jakitea oso erraza da. Normalean, bi kolorez pintatzen dituzte, goiko aldea kolore batez eta azpiko aldea beste batez. Txatarraz kargatuta daudenean, beheko aldea

itsasoan hondoratzen da eta kolore bakarra ikusten zaie; hutsik daudenean, berriz, bi koloreak ikusten zaizkie.

Marrajo II.ean kargaontzien ondotik pasatzea zirrargarria da, ontzi hauen handitasunak txiki-txiki uzten baitu bere ondotik pasatzen den edozer edo edonor. Garabiek txatarra tonak ateratzen dituzte kargaontzietatik eta txatarra-mendiak egiten dituzte. Belar metak bailiran, ohikoa da Pasaiako portua txatarra mendiez beteta ikustea. Portuan pila-tzen den txatarra birziklatu egiten

dute normalean: burdin xaflak egiten dituzte. Kamioietan kargatu eta Euskal Herriko hainbat enpresetara eramaten dituzte burdin xafla hauek. Kargaontzien ondoan atoiontziak daude beti. Ontzi txiki hauen lana ezinbestekoa da Pasaiako portuan. Portura sartzen den itsasontzi oro euren “aparkalekuraino” eramaten dute, ez baita erraza Pasaiako portuan sartzea. Pasaiako badia oso estua da eta atoiontziek gidari lana egiten dute. Nondik eta nola sartu (eta atera) behar duten azaltzen diete kargaontziei.

Berrotaran anaiak

Pasaiako portuak eta badiak dituen sekretu guztiak ezagutu nahi badituzue Berrotaran anaiengana jo behar duzue. Bi anaia hauek hainbat urte daramatzate Pasaiako badien barrena itsas-ibilaldiak eskaintzen. Ignacio Berrotaranen gidaritzapean, Marrajo II. ontzian egiten dituzte txangoak. Adin eta mota guztietako herritarrei bideratutako zerbitzua da: turistak, ikastoletako haurrak, erretiratu taldeak... Astean bitan egiten dituzte txangoak, asteartetan eta ostegunetan. Dena den, alde aurretik deituz gero bestelako egun edo ordutegi bat zehaztu daiteke. Xehetasun gehiago nahi badituzue hauek dira Berrotaran anaien telefonoak: 943.51.79.27 edo 943.51.73.42. Sakeleko telefona ere badute: 630.44.88.13.



Garabiek txatarra tonak ateratzen dituzte kargaontzietatik.



Harrizko etxeak, koloretako balkoiak, terrazadun jatetxeak... Pasai Donibane da badiako txokorik politena.

Kargaontzi eta garabien eremua atzean utzi eta Pasaia portuak Lezon duen zonaldere iritsiko gara. Lezora iristen dira itsasontziz Euskal Herriko kontzesionarioetan eros ditzakegun auto gehientsuenak. Lezon dagoen aparkalekua Euskal Herriko handienetakoa da, 10.000

Naturak protagonismoa berreskuratzen du badiaren kanpoko aldean

auto baino gehiago sartzen baitira. Ingalaterratik datorren itsasontzi batek ekartzen ditu; etortzen den aldiro 2.600 auto utzita alde egiten du. Halaber, Pasaia portuko Lezoko eremuan ohikoa da dragaontziak ikustea. Oiaztzun ibaia eremu hone-tan itsasoratzen da, eta lokatz eta zikinkeria asko isurtzen ditu badiara. Dragaontziek lokatza garbitzen dute,

bestelako ontziek normaltasunez nabiga dezaten.

Lezotik Pasai Donibane aldera abiatuko gara berriro ere, eta parez pare zentral termikoarekin topatuko gara. Ia ezinezkoa da ez ikustea, ke beltza uneoro botatzen duen tximinnia erraldoia baitu alboan. Kutsadura dela eta polemika iturri izan da askotan, baina lanean jarraitzen du oraindik ere. Pasai Donibanera gertur-tzen garen heinean, paisai ederragoa ikusiko dugu. Lehenik eta behin, ontziola berrien handitasuna, eta ondoren ontziola zaharren txikitasu-na. Belaontziak, txipiroi-ontziak, harrizko etxeak, koloretako balkoiak, terrazadun jatetxeak... Pasai Doni-bane da badiako txokorik ederrena.

Abandonatutako gaztelua

Pasai Donibane alderik alde erakutsi eta gero badiaren kanpoko aldera eramango gaitu Marrajo II.ak. Bere-hala, Santa Isabel gaztelua ikusiko

dugu eskuinaldean. Ingurune pribile-giatuan eraiki zuten, baina aspaldian abandonatua dago. Ezin dugu gauza bera esan gaztelu ondoan dagoen Kalaburtza hondartzaz. Pasaia badi-an dagoen hondartza bakarra da, eta azken urtetan hondartza birgaitu eta berreskuratzeko lan handia egin dute herritarrek. Urtero, uda iriste-a-rekin batera, urtean zehar pilatzen den zikinkeria guztia garbitzen dute, eta hondartzaz gozatzeko aukera eskaintzen diete udako bizilagun eta turistei.

Kalaburtza begiztatu eta gero, Pasaia badiaren sarrera-irteerara iritsiko gara. Badiaren alde bietan, arroken ondoan, itsasargi bana dago. Jaizkibel mendiaren goiko aldean, berri-z, semaforoa. Portura sartzen diren itsasontzientzako "trafiko sei-naleak" dira. Oso sarrera-irteera estua du Pasaia portuak, eta seinale hauek guztiak beharrezkoak dira. Pasai Donibaneko aldean dagoen

Victor Hugo Etxea

Alpes et Pyrénées liburuan azaltzen duen bezala, Victor Hugo idazle frantziarra Uli mendian barrena iritsi zen Pasai San Pedror 1843. urtean. Herriko ontziralekuan batelerak aurkitu zituen, eta euren laguntzaz Pasai Donibanera pasa zen ontzi gainean. Pasai Donibane zapaldu bezain pronto liluratuta gelditu zen herriaren edertasunarekin, eta hilabete batzuk bertan gelditzea erabaki zuen. Gaur egun, Victor Hugoren bizilekua izan zen etxea museo bat da, eta bertan

idazlearen bizimoduari buruzko xehetasunak ematen dira. Halaber, XIX. mendeko Pasaia bizimoduaren ezaugarriak erakusten ditu museoak. Victor Hugo Etxea Pasai Doni-baneko bihotzean dago —herriak duen kale bakarraren biga-rren arkupean, edo San Pedror joateko ontzia hartzen den moilaren ondoan—. Astelehenetik igandera dago zabalik eta bisita gidatuak alde-z aurretik lor daitezke.

Telefonoa: 943.34.15.56.



Arrain freskoa nahi duenak goizero du erosteko aukera San Pedroko lonjan.

DANI BLANCO

itsasargiaren ondotik aterako gara itsas zabalera. Olatuen erreinuan gaude, eta Marrajo II.a ontzia gero eta gehiago mugituko da; gora eta behera, olatuen menpean. Ziur aski, makina bat txipiroi-ontzi ikusiko ditugu inguruan. Ontzi bakoitzaren barruan arrantzale bana, txipiroi gehiago nork harrapatuko lehian.

Itsaslabarrari so

Itsas-zabaletik Jaizkibelgo itsaslabarra ikustea txango honek eskaintzen duen plazer handienetako bat da. Arroken handitasuna, olatuen aparra, haizearen indarra... Hemen ez dago txatarra mendirik, garabiarik edo kargaontzirik... Naturak protagonismoa berreskuratzen du badiaren kanpoko aldean. Arroken ginean

hegaztiak pausatzen dira, kaioak. Badiaren barruko aldean, berriz, ubarroiak dira nagusi. Hegazti beltz hauek garabien esku luzeetan pausatzea nahiago dute.

Olatuen gorabeherekin zorabiatzen hasi aurretik, Marrajo II.a badiaren barruko aldera itzuliko da berriro. Pasai Donibaneke ontziralekura bidean, lasai-lasai egingo ditu azken metroak. Itsas-txangoak eskaini dizkigun sentsazioak eta emozioak gogoratzeko unea da. Izan ere, Pasaiake badiaren sekretuak ezagutzeak sentsazio eta emozio asko sortzen ditu. Itsasontzitik atera eta Pasai Donibaneke lurra zapaltzen dugunean, Victor Hugok orain dela bi mende sentitutako gauza bera sentituko dugu: lilura. ■

Pasaiake badiak.



Zure mendiko erosketak ondo lotu

Euskal Herriko denda-katerik handiena kulturazko aisian. **Arituak** gara, baita **bidaia** eta **mendi** gaitan ere. Bisita itzazu gure saltoki espezializatuak Bilboko elkar ZAZPIKALE eta Donostian elkar FERMIN CALBETON, 30. **Mapa, gida, kartografia, liburu teknikoak...** aukerarik zabalena.

ekar

Makina bat kontu

JOXERRA AIZPURUA

INFORMATIKA

Argazki-softwarea mundu birtuala sortzeko

INTERNETEN argazkitegi ugari daude. Google-k duen irudientzako atala, adibidez, asko erabiltzen da argazkiak bilatu edo trukatzeko. Flickr argazkitegian 200 milioi erretratu baino gehiago daude. Eiffel dorrea, Treviko iturria eta ia edozein paraje edo gauza topa daiteke gune horietan. Hainbeste argazki daude ezen, batzuetan, ez dugu jakiten zein aukeratu: ezkerretik hartutakoa, goitik, behetik, eskuinetik, gaeuz, egunez,...

Washington-go (AEB) unibertsitateko Steve Seitz eta Noah Snaveley eta Microsofteko Rick Szelski ikerlariek Photo Tourism izeneko softwarea garatzen ari dira argazkitegiatako bilaketak erraztu asmoz.

Software horrek eszena bereko argazkiak 3Dko ingurune birtualean kokatzen ditu. Harta-

Fontana di Trevi
Photo Tourism-en.



ra, eszena bera alde askotatik, eta modu errazean, ikusi ahal izango da.

Izan ere, argazki bat ikusi ondoren, sarritan galdetzen diogu gure buruari zer ote dagoen ikusitakoaren alboan, edo barruan. Egungo argazkitegiatan ez dago hori jakiterik; argazkiak banan-banan ikusi behar, gura duguna topatuko badugu.

Photo Tourism softwarearekin argazkitegi bateko argazkiak erabiltzen dira ibilbide birtualak egiteko. Eta efektu bisuala bideojoko batean

Osasuna

JABIER AGIRRE

Egizu irribarre, hortz inplanteei esker

ESPAINIA DA EUROPAKO aurreneko herrialdea, hortz inplanteen erabilerari dagokionez. Gaixotasunak, urteek, istripuak edo garbiketa eta higiene ohitura txarra direla medio galdutako hortz-haginak ordeztzeko soluzio egokia da inplanteak jartzea.


Hortz-inplanteak doitasun handiko titaniozko finkape-nak dira. Kirurgialari maxilofazialek –aho, masailzur eta orokorrean aurpegiko ebakuntzetan espezializatuak– eta dentistek, hortzen bat –edo gehiago– galdu duten pazientei masailzurrean ezartzen dizkiete protesi horiek. Inplante horien helburua ‘sustrai artifizial’ moduan jokatzea da, jarraian –batzuetan hilabeteko itxaronaldia behar izaten da– hortz protesia bertan finkatzeko.

Teknika berri samarra den arren, hamarretik bederatzitan arrakastatsua izan ohi da, eta horri esker gaixotasun periodontalak (piorrea) erasanda, edo ohitura higieniko eskasak nahiz traumatismoen erruz hortzak berreskuratu ahal izaten ditu pazienteak. Inplantei esker, pazienteak berriro ere murtzikatu ahal izango du, eta estetikaren nahiz bizi-kalitatearen aldetik begiratuta aurrerapauso handia egingo du.

Inplanteen teknika asko hobetu da azken urteotan. Ahoko eta Aurpegi Masailzurretako

Kirurgiako Espainiako Elkartearen presidentea den Jose Ignacio Salmerón doktorearen hitzetan, "berrogei urteko garapenaren ondotik, titaniozko inplanteen munduan nabarmen hobetu dira jartzeko teknika, inplanteen azalerak –orain landuagoak eta zimurragoak dira, hobeto finkatzeko–, eta orbantzeko denbora laburtu egin da". Hortzetako inplanteak mota askotakoak izan daitezke; honatx erabilienak: hortzaren ordezkio artifizialak –gero hortzor-deak jartzeko oinarri sendoa ematen dutenak–, hezur barnekoak (endostialak) masailzurrean txertatzen direnak, edota subperiostialak, dagoen hezuraren zuzenean txertatzen direnak.

Dentista (1622), Gerrit van Honthorst.



landareak

JAKOBA ERREKONDO

mandio@zerain.com

Burua lepatu

MIGEL M. ELOSEGI

ETORRI DIRA ba gure alabatzako ingelesak bere zuhaitz genealogikoko sustraietakoen buru argiak eman zituen zuhaitz motzen basoei eusten laguntzera. Baso-erlikia hauen iraupenerako geure kontzientzien txardengo lanetara etorri dira. Hau lotsa...

Nafarreraren eremuen Kalagorriko pagopean bi basomutil talde, buru bana. Genealogiaz sustraikoa Leitzako Migel eta adar puntakoa Londreseko Helen. Txondor plaza gaineko pago motz banari begira eta, buru izaki, agintzen. Basomutilak iaio dabilta, sokatik zintzilik, adaburuko adar artean motozerraren dantzan. Ingelesak laneko uniforme daramate, ez dakit zein parkeren izena parraren bordatua. Bertakoen burua txapelarekin eta mutilek, intsumiso, ipurdirainoko rasta-txurroak bisararen garondan.

Ingalaterrako eskolaren arabera inausketa mailakatu egin dute. Oraingo lehenean lepo gaineko haga luzeei heren bat kendu diete. Gero bost bat urtez behin beste puska bana jaitsez, pixkanaka zuhaitzaren bueloa eta karga beheratu eta lepondoko adar handien inguruan zabaltu nahi dute. Ingalaterran klima lehorragoa dute antza eta pago hezezalea juxtu xamar bizi. Horixe da inausketa mailakatzearen arrazoia.

Leitzarraren mutilek ederki lepatu dute bai, lepatu, pagoa. Geure basozain genetari txertatua, ezaguna zaigu pago motzaren piura berria. Lehen zazpi-hamar urteko adarrak kentzen zitzaizkion, gaurkoan abandonatutako berrogeita hamarrek adartzarrak ordea. Lehen atzaparraren tamainako zauriak itxi behar zituen, orain kana erdikoak! Zauri handixko hauei begira, hemengo euriaz jakin nahi zuen Londreskoak; arrazoiz, Europa osoan gehientsuenetako euria egiten duen xokoan bizi baitira pagook, paradisuan! ezin bestela ebaki hauek ebakiondu.

Bi taldeek inausitako pagoak elkarri begira biziko dira eta urte batzuen buruan aurrerantzean lepatzeak nolakoak izango diren erabakiko da. Noiznahi, maite-maite, bisitatu eta ikusiko duzu: askok uste baino lehenago pago batzuen eta besteen etorkizuna agerikoa izango da.

Ingelesak motozerraz; euskaldunek haizkoraz.



Anita Ekberg Fontana di Trevi-n freskatzen.
La Dolce Vita (1960), Federico Fellini.

egotearen antzekoa da. Adibidez, Treviko iturri inguruan 'nabigatzen' arituz gero han erdian dagoen Neptunora ailegatu eta, hori baldin bada interesatzen zaiguna, sistemak bereizmen handiko argazkia erakutsiko digu.

Programa berri honek erabilpen anitz izan ditzake. Adibidez, jatetxe batek bere ingurua erakusteko jarritako irudietan kanpoan duen menua pantailaren erdialdean kokatzean, handitu eta plater eskaintza irakurri ahal izango genuke.

Arkeologo edo biologoek interes handia azaldu dute programa berria ezagutzeko, beraien zereginetan lagundu diezaietelakoan. ■


SOROSPENA

Masajea hobe, ahoz ahokoa baino

PERTSONA batek arnasa hartzen ez duenean ahoz ahokoa eta masajea egitea aholkatzen da. Ikerlari japoniar batzuen arabera ordea, ahoz ahokoa soberran legoke. Ondorio hori ateratzeko ia 4.000 kasu aztertu dituzte eta emaitzak oso garbiak izan dira; gainera, ahoz ahokoak arriskuak izan ditzake egiten duenarentzat, gaixotasunak kutsa baititzake metodo horrek. ■

Web, CD-ROM eta paper formatuetan soluzioak alor guztietan

Ikerketa



Erremintak

Soluzioak



Zerbitzuak



Adur SOFTWARE PRODUCTIONS

Adur Software Productions, S. Koop. (ASP)
Industrialdea 1, 20160 Lasarte-Oria
Tel: 943.37.18.49
e-mail: adur@adur.com

INFORMAZIOAREN UNIBERTSOA

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Cesar Borgiaren azken bidea

VIANA, 1507KO MARTXOAREN 12A.

Goiz hartan Cesar Borgiak berri txarrak jaso zituen: setiatu berri zuen hirian armak eta janaria sartzea lortu zuten arerioek. Haserre, Vianako harriesetara abiatu zen zaldiz, baka- rrik, inolako segurtasun neurririk gabe. Berehala hogeiren bat zalduekin egin zuen topo.

31 urte besterik ez zituen, baina botere izugarria lortua zuen. Hamazazpi urterekin Iruñeko apezpiku izendatu zuten eta titulu zerrenda hazten joan zen: konde, duke, printze, *condottiero*, *gonfaloniere*, kapitain jeneral, kardinal... Aita Alejandro VI.a aita santua zuen (Rodrigo Borgia) eta Vatikanoren boterea bere anbizioaren mesedetan erabili zuen; Lucrecia arreba bere interes politikoak babesteko ezkondu arazi zuen; Juan anaia hil zuen Vatikanoko armada-ko kapitain izateko; Leonardo da Vinci kontratatu zuen gerrarako makinak asma zitzan... Diote-

nez, Makiavelok Cesar Borgia izan zuen *inspirazio iturri Il Principe* (Printzea) idazteko.

Aita santuaren ejertzitoen buru izatea lortu zuenean, Estatu Pontifizioetako jaun independenteen aurkako erasoei ekin zien. Neurri gabeko handinahiaren eta eskrupulurik gabeko politikaren sinbolo, garaiki- deek "giza-odolaren egarri" zela esan zuten. Odola isurtzeko errepa- rorik ez zuen, baina Cesar Borgiaren helburua Vatikanoren inguruan

estatu zabala eta indartsua sortzea zen. Eta ez zuen lortu.

1503an Errege Katolikoek Napoli mendean hartzea erdietsi zuten, Gonzalo Fernandez de Cordobak armada frantziarraren aurka lortutako garaipenari esker. Abuztuan Cesarren aita hil zen eta bere lekua Julio II.ak hartu zuen. Aita santu berria Della Robere sendikoa zen, borgiatarren etsairik gogorre-etakoa. Cesar Borgia atxilotu zuen berehala, eta Fernandez de Cordobaren esku utzi, gero Gaztelan epaitu zezaten.



Duela 500 urte inguru pintatutako Jesukristoren erretratu askok Cesar Borgia eredu izan zutela diote. Eta horrek eragina izan omen du gaur egun arte. Hots, Jesukristoren irudi tipikoak Cesar Borgiaren antza du. Teoria hau, besteak beste, Alejandro Dumasek defendatu zuen.

1504ko abuztuaren 20an Erroma betiko utzi zuen eta arbasoen lurraldera eraman zuten, Valentziara. Chinchilla (Albacete) eraman zuten gero, eta handik Motako gaztelu- ra (Medina del Campo, Valladolid). 1506ko urrian gaztelutik ihes egitea lortu zuen eta Nafarroara joan zen babes bila. Juan Albret koinatua zen Nafarroa-ko errege eta Cesar Borgia armadako buru izendatu zuen.

1507ko martxoan Cesarrek Viana setiatu zuen, Albreten etsai nagusiei aurre egi- teko. Viana zen beaumontarren indar- gune nagusia. Eta Viana izan zen Cesar Borgiaren indar falta agerian utzi zuena. Makiaveloren 'printzea', urte batzuk lehenago boterearen paradigma izan zena, bakarrik, ahul hil zen.


Heriotzaren bosgarren mendeu- rrena ospatzeko Nafarroako Gobernuak hainbat ekitaldi antolatuko ditu aurten. Besteak beste, ibilbide turisti- ko bat prestatu dute; *Cesar Borgiaren Bidea*, hil zuten tokiraino iristen da. ■

ARRASTOAK

BIDEOJOKOEK kultura bultzatzen dute. Bideojoko batzuek behintzat. Erromako Udalak horixe uste du: kultura erromatarra zabaltzeko eta bultzatzen duten ekimenak saritzen ditu urtero, eta aurten Marco Aurelio sarietako bat *Imperium Civitas* izenburuko bideojokoarentzat izan da.

Bideojoko saritua *Imperium* joko sortaren emaitza berriena da. Bere anaia nagusiak, batik- bat, gatazkatan eta estrategia militarrean oinarrituta daude. Baina *Civitas*eko jokalariek Erro- mako Inperio osoa kudeatu behar dute, eta ez soilik esparru milita- rra.

Horregatik, Marco Aurelio sari- en arduradunek bideojoko-aren balio kultural eta didaktiko- a nabarmendu nahi izan dute.



Imperium Civitas saritutako bideojokoaren irudi sorta.

Patxi Zabaleta

«Ibarretxe planaren antzeko bat beharko genuke Nafarroan ere»

Foru Legebiltzarrerako Nafarroa Bai (NaBai) koalizioko zerrendaburua izango da ezker abertzaleko buruzagi historikoa. Nafarroako politikaren une garrantzitsuenak lehen lerrotik bizi izan ditu azken 30 urteetan. Une esanguratsuenetakoa protagonismotik bizi dezake bi hilabete barru, hamar urteko agintaldi gupidagabearen ondoren, UPNk gobernua galtzeko aukera handiak dituelako.

2006ko ekainaren 8a da, udal eta foru hauteskundeetatik ia bi astera eta barne-tirabira gogorren ondoren, PSNk azkenean iragarri du uko egiten diola gobernua UPNrekin eratzeari eta NaBai eta Ezker Batuarekin osatuko duela exekutibo berria.

Deskribatutako iragarpena nafar askoren ametsa da zalantzarik gabe eta Patxi Zabaleta, bere heterodoxo ospeari eutsiz, ondoko iragarpen bitxia egitera ere iristen da: "Oposizioan geratzen denean, UPNk ez du Madriletikiko gaur egun duen jarrera izango eta hasiko da gizarte-segurantza eta halako esku-duntza garrantzitsuen eske".

Nafar askori pasatzen zaiona gertatzen zaio Zabaletari berari ere: datozen foru hauteskundeetan UPN gobernutik kanporatzeko aukera esku artean ikusten du, baina zuhur jokatzeko du. Herritarrei ere —berdin da zein koloretakoa izan—, zaila iruditzen zaie eskuin zakar hau boteretik kanpo ikustea. Bere subkontzientearen joera egiaztatu guran, elkar-ritzketan zehar hitz egin duen modu eta doinuagatik UPN oposiziora joango dela gauzatutzat ematen duela adierazi diot abokatu leitzarrari, baina ez dio kosk egin amuari: "Ez, gauzatutzat ez, egiazko hipotesi gisa bai".

XABIER LETONA
Argazkiak: Josu Santesteban



NaBai Nafarroako bigarren indar politiko ikusten du Zabaletak.

Honakoa entzun dut hauteskudeen emaitzari buruz: PSOEk duela gutxi hiru inkesta egin dituela eta hiruetan Nafarroa Bai bigarren indar gisa agertzen dela PSNren aurretik. Sinesgarria ala inkestak puzten ari dira?

Sinesgarria da. Iruñerriko herri handietan NaBai PSNren aurretik geratuko da eta agian Lizarran ere bai. Erriberan, aldiz, haien atzetik geldituko gara. Gu bigarren indarra izaten saiatuko gara.

Zer diote Nafarroa Bairen argitaratu gabeko inkestek?

Guk inkesta xumea egin dugu eta hirugarren indar gisa agertzen gara. Gure apustua da NaBai Nafarroako hiru indar politiko handietako bat bilakatzea eta horrekin Nafarroako mapa politikoa aldatuko dugu, dagoeneko aldatzen ari gara, Sanzek egun hauetan egin dituen proposamenak horren ondorio dira.

Hausnarketa bat: PSN ahula UPNrentzat mesedegarri da, honek denetik eskainiko baitio eta ahuldadean agian errazagoa da UPNren tentaldian erortzea.

PSN gure atzetik geratuko balitz, horrek ez du esan nahi nahitaez UPNrengana hurbilduko denik. Gainera, Zapateroren jarraitzaileen

tzat oso zaila litzateke PSN PPren morroi zintzoena izan diren hementxo eskuin muturrekoen laguntzaile ikustea. Zailtasunak egon badaude, baina guk ere baditugu gure aterabideak.

Roman Felones, Roberto Jimenez... PSNk Foru Legebiltzarrerako zerrenda-ko lehen postuetan jarri dituen batzuk *Diario de Navarra*-tik askoz gertuago daude NaBaitik baino. Ez dira konfiantzarako datuak.

Juan Jose Lizarberen eta Carlos Chiviteren PSNrekin, biekin izan ditugu harremanak. Bata bestea baino gertuago sentitzen dugu, baina biekin izan dugu harreman zintzo eta leiala. Egia da, zerrendetan badira UPNren jarrera ideologikoetatik gertu agertu izan diren pertsonak, baina egia da, halaber, PSO-Eren eta PPrean artean estatuan edo PSNren eta UPNren artean inoiz ez bezalako etendura dutela.

Hilaren 17ko manifestazioaren gisakoekin UPNk ez al ditu zentruko sektoreak uxatzen? Agian mesedegarri izan da gainerako alderdientzat.

Gu hori azpimarratzen saiatu gara manifestazioaren aurretik eta ostetik. UPN, Gobernuaren bitartez, ahalik eta atxikimendu zabalena lortzen saiatu da, UGTekin eta CCOOekin adibidez xantaiaraino iritsi arte, enpresari elkar-teen... eta ez du lortu. Lotsagarria badirudi ere, CEN (Nafarroako Enpresari- en Konfederazioa) eta Ciudadanos (Arbeloa, Lola Eguren...) erakarri ditu. Ez du beste inoren sostengurik lortu eta hori UPNrentzat txarra izan bada, are gehiago CDNrentzat. Honako kontraesana itzela da: manifestazioan gehien entzundako oihua Zapateroren aurkakoa izan zen eta berau bukatu bezain laster, UPNk PSNri agintea partekatzea eskaini zion.

Batasunak Anaitasuneko proposame- nean Hego Euskal Herrirako autonomia proiektua mahaigaineratu du. Egoki ikusiko al zenuke autonomia berri hori, erkidego bietako herritarrek hala nahi- ko balute?

Proposamen horretan bada aurrera- pauso bat, autonomia mailako urrats hori ontzat hartzea. Ezker abertzalean beti egin dugu hori, KAS alternatibatik hasita; baina gero Alternatiba Demo- kratikoa, Oldartzen eta halakoekin baz- tertu egin zen autonomiarena. Aldi berean, oraingo proposamena ez da errealismotik abiatzen, lehendabizi onartu behar baita Nafarroak, EAEk eta Iparraldeak euren erabaki esparruak dituztela. Ibarretxe plana, esate baterako, nahiz eta badituen bere aka-

Nafarroako Foru Legebiltzar berria Patxi Zabaletaren kiniela

ALDERDIAK	EGUNGO PARLAMENTARIAK	OSAKETA BERRIA
UPN	23	19
PSN	11	11
Aralar	4	0
EA-EAJ	4	0
Nafarroa Bai ¹	0	12
Ezker Batua	4	4
Convergencia	4	1
AuB ²	0	2-3

¹ Nafarroa Bai: Aralar, EA, EAJ eta Batzarrek osatutako koalizioa.

² AUB: Alderdi Politikoen Legearen izenean, ezker abertzaleko hautagaitza legeaz kanpo utzi zuen Espainiako Justiziak. Kinielarako proposamenean, izenak izen, AuBren lerro berean jarri dugu ezker abertzaleko balizko hautagaitza.

tsak, erabaki eskubideari buruz oso argia da. Nafarroan ere abertzaleok antzeko zerbait proposatu beharko genuke, eta hurrengo urratsak hortik abiatuta eman beharko genituzke.

Baina Nafarroari dagokionez erabaki esparrua onartzen da, zeharka besterik ez bada ere.

Ez da horrela garbi zehazten. Propo- samen honek okerrak zuzentzen ditu baina ez da zehatza. Sinesgarriagoa izateko autokritika beharko luke.

Edozein modutan, galdera zen ea zuk egoki ikusiko zenukeen Hegoalde mai- lako autonomi estatutu bat.

Hegoaldeak bere abiadurak eta oina- rriak ditu eta garrantzitsuena horiek errespetatzea da, hori da abertzaleok irabazteko dugun aukera. NaBai da Euskal Herriko lurraldetasunari eman zaion ekarpenik sakonena, hain zuzen ere demokratikoa delako.

NaBai indar abertzaleen bilgune den neurrian, aurreragorako –maiatzerako

“Kontraesana itzela da:
manifestazioan gehien
entzundako oihua
Zapateroren aurkakoa izan
zen eta hau bukatu bezain
laster, UPNk PSNri agintea
partekatzea eskaini zion”

ezin da— egoki ikusiko al zenuke Bata- suna koalizioan egotea?

Lehenik argituko nuke NaBai indar abertzale eta aurrerazaleen bilgunea dela. Garai batean Batasunari eta Ezker Batuari luzatu genien gonbitea eta biek ezezkoa eman zuten. Aurrera begira NaBairen ateak irekiak egongo dira.

Indar abertzale eta aurrerazaleen bil- gune dela diozu, baina Aralarrek EAEn dio EAJren politika eskuindarra dela eta EArena ere bai toki askotan.

Neurri batean horrela da, eta zenbait alorretan hala dela esaten dugu. Horregatik goaz Aralar eta Ezker Batua batera EAEn, politika horiek aldatzeko. NaBaik eta Ezker Batua- Aralarrek biek dute ezaugarri oso garrantzitsua beren baitan: zeharka- kotasuna edo transbertsalitatea.

Bake Prozesua berreraikitze norabi- de onean ikusten duzu Anaitasuneko proposamena?

Norabidea ez da txarra baina motze- gia da, askoz proposamen osatuagoa behar da.

Gaur egun zer ezaugarri nagusi izan beharko luke Nafarroa eta EAEn arteko organo bateratu batek?

Elkarren begirunea. “Organo” horren izena, izaera eta helburuak ezbaian jarri beharko genituzke. Nafarroak bere erabaki esparrua du eta berdin EAEk. Bakoitzak duen abiadura du eta bi abiadura horiek adostu behar dituz- te komunean dituzten helburu guztie- tan. Esate baterako, errazena da lurral-

deari dagokiona: geografia, ingurumena... ondoren euskara, euskal kultura... eta gero, adibidez, garapen jasangarriaren erronka genuke.

Otanoren garaian 1996an eratu zen organo bateratuak balio dezake oinarri gisa?

Ez, guztiz berria izan beharko luke.

Zer da fuerismoaren tradizio erradikala berreskuratzea? Nafarroa Bairen txostenetako zirriborroetako batean agertzen da kontzeptua.

Aralarrek Nafarroako Legebiltzarrean Estatus Politiko Berri Baterako Proposamena aurkeztu zutenean, esaten genuen erabaki ahalmena dela eskubide historiko edo foruen gaurkotze demokratikoa. Eskubide historikoak, eskubide kolektiboak diren heinean, ez direlako oinordekotza gisa eskuratu ahal, eta etengabe gaurkotzen eta eraikitzen direlako. Bi arrazoiengatik erabiltzen dugu kontzeptu hori: bat, argudio juridiko-konstituzionalak ematen dizkigulako; eta bi, UPNrekin eta PSNrekin dugun eztabaidan argi utzi behar dugu forua guk defendatzen dugula, erabaki ahalmena guk defendatzen dugulako eta forua, demokratikoki, hori baizik ezin daitekeelako izan. Ezin ditugu foruak sakralizatu, baina Euskal Herriak Europan bere ahotssez egon nahi badu, halako formulak bilatu behar ditugu.

Nazionalismo zibiko-kulturalaren kontzeptua ere NaBaik landu duen ideietakoa da. Nola azalduko zenuke?



Bideoz ere grabatu zen elkarrizketa eta hilaren 29an ikusgai egongo da Sareko Argian.

Nazioen arteko harremanak politikaren esparru estuegiak gaingitu egin behar dituela esan nahi du. Zeharkakotasunaren bidez, sentipen nazional ezberdinak dituztenen arteko lotura horiek anitzak eta desberdinak izatea. Gaur egungo mundu globalizatuak horretara bultzatzen gaitu.

Erabaki ahalmenik ez duen herri batean, nola uztartzen da zeharkakota-

“UPN eta PSNrekin dugun eztabaidan argi utzi behar dugu forua guk defendatzen dugula, erabaki ahalmena guk defendatzen dugulako”

sun a abertzale askok nahi duten indar metaketa soberanistarekin?

Erabakitzeke ahalmena, autodeterminazioa, demokrata guztiok defendatzen dugun printzipioa izan daitekeelako. Ezker Batuak eta Aralarrek sinatu dugun idazkian erabaki ahalmena oinarritzko printzipioa da. Bakegintzari guk eskainiko diogun oinarria hori da, jakinik gauza bat dela normalizazio politikoa eta beste bat ETA eta Espainiako Gobernuaren artean egin beharreko konponketa, hiru gai nagusi dituenak: ETak armak uztearena, presoena eta biktimenak. Gai hauek normalizazio politikorekin nahasten diren neurrian, bakegintzari kalte egiten zaio. ■

<http://www.argia.com/argia-astekaria> helbidean, bideoa ikusgai.

Argitalpen honen edizioan lankide:

 **kutxa**

Iberdrola munduko liderra negozio eolikoan

Martxoaren 29an eta 30ean akziodunen batzar nagusi bana egingo dute Euskal Herrian eta Eskozian, Iberdrola eta Scottish Power elektrizitate enpresek. Batzar horietan, euskal enpresak eskoziarra erostea onartuko dute, eta horrela, Iberdrola energia eolikoaren negozioan enpresa liderra izango da munduan.

DANIEL UDALAITZ



IBERDROLAK SCOTTISH POWER 17.200 milioi euroren truke erosiko du. 9.047 milioi euro dirutan ordainduko dira, eta horren barne dago 236 milioi euroko dibidendu estra bat; beste guztia akziotan izango da. Horretarako, Iberdrolak kapital soziala zabalduko du 245 milioi akzio berriren jaulkipenaren bitartez, akziodun eskoziarrei ordaintzeko, haien esku geratuko baita kapital berriaren %21,4. Erosketan horri esker, Iberdrola enpresa liderra bihurtuko da negozio eolikoan. Europako hirugarren elektrizitate enpresa bilakatuko da aktiboen balioaren arabera Frantziako EFD eta Alemaniako E.ON enpresen atzetik, seigarrena izango da diru sarreraren arabera eta zazpigarrena burtsan daukan balioari dagokionez.

Operazioa joan den azaroan abiatu zen. Konpainia biek hitzarmena sinatu zuten Iberdrolak enpresa eskoziarraren kapitalaren %100 eskura zezan bost hileko epean. Beharrezkoa izan

da konkurrentziako Europar Batasuneko agintariekin erosketa hori baimentzea, eta hala egin zuten joan den otsailean. Orain akziodunei dagokie gauza bera egitea, eta inolako zantzarik gabe emango diote baiezkua operazioari. Euskal elektrizitate

Iberdrolaren eta Scottish Power-en akziodunen batzar nagusiek euskal enpresak eskoziarra erosteko operazioa onartu dute aste honetan

enpresari dagokionez, operazioa gehiengo erlatiboz onartu beharko da, eta eskoziarraren kasuan, aldiz, batzarrean parte hartzen duen kapitalaren %75ek onartu beharko du gutxienez.

Energia berriztagarriak, negozioazioaren giltzarri

Iberdrola, “ehizatu” beharreko “harrapakintzat” behatzen ari ziren,

baina azkenean, ustezko ehiza horri aurrea hartu dio eta “ehiztari” bihurtu da bera. Scottish Power enpresa eskoziarra bereganatuta, “harraparitza” eguneroko ogia den mundu horretan bizirik iraun duten Europako talde handietakoa dela sentitzen du euskal elektrizitate enpresak. Gainera, adituen ustez, egindako apustuari esker tamaina handiagoko beste operazio batzuei aurre egiteko moduan dago.

Scottish Powerrek energia berriztagarrien munduan daukan presentzia giltzarri izan da

Iberdrolak enpresa eskoziarra erostea erabakitzeke. Horrela, mundu osoan, eta Amerikako Estatu Batuetan bereziki, merkatu horretan daukan buruzagitza sendotuko du integrazioak. Euskal Herriko eta Eskoziako enpresa bien artean daukaten energia berriztagarriko gaitasun instalatua 6.040 MW-ekoa da; horietatik 4.076 MW Iberdrolarenak dira eta 1.964 eskoziarrenak. Horri

EAEko Ogasunak 80 milioi euroko etekinak lortuko ditu

Iberdrolak Scottish Power erosteak 80 milioi euroko aparteko diru sarrera ekarriko dio Euskal Autonomia Erkidego-ko Ogasunari zergetan. Merkataritza sozietateen operazio jakin batzuek, kapital zabalkuntzak adibidez, zerga jakin batzuk dauzkate ezarrita, eta enpresak egoitza soziala eta fiskala dauzkan lurraldeari dagokio zerga horiek batzea. Euskal Kontzertu Ekonomikoan Espainiar Estatuarekin banaketa fiskalerako hitzartu zen arauetako bat da hori, eta garrantzi berezia hartzen du arauak burtsaren merkatuan dauden konpainia handiei dagokienez. Beraz, operazio mota horregatik egin beharreko diru bilketa ez da Espainiako Ogasunarekin partekatzen. Beste zerga batzuekin ez da hori gertatzen. Esate baterako, enpresen etekinei

zerga ezartzen dien Sozietateen gaineko Zergaren kasuan Iberdrolak legedi espainiarra aplikatu behar du eta ez EAEkoa, negozioaren %75 EAEtik kanpo egiteagatik.

Ondorioz, Iberdrolak Scottish Powerren erosketari aurre egiteko iragarri duen kapital zabalkuntza egiten denean, Bizkaiko Foru Ogasunak 80 milioi euro jasoko ditu. Hala ere, kopuru guztia ez du beretzat gordeko. Zatiarik handiena, %70, EAEko Gobernuari eman beharko dio, Ekarpunen Legean euskal erakundeek hitzartutako funtsen banaketak hala ezartzen duelako. Beste %15, gutxi gorabehera, Bizkaiko udalerrien artean banatuko da, eta beste %15 baino ez da geratuko Bizkaiko Foru Aldundia-
ren diru kutxetan.

esker, Iberdrola arerio nagusiaren-gandik aldentzeko da, Florida Power enpresarengandik, beste horrek 3.567 MW baitaizka instalatuta. Gainera, hazteko dituen aukerak ikaragarriak dira, enpresa bien proiektu zorroa 13.400 MW-ekoa baita -6.140 Espainiar Estatuan, 2.260 Erresuma Batuan eta 5.000 Amerikako Estatu Batuetan-. Euskal enpresaren iturriek adierazi duteenez, "Iberdrolaren tzat funtsezkoa izan da enpresa eskoziarrak negozio eolikoa ezagutzen duen beza-la ezagutzea, batez ere kokapenen hautaketari, hornidurari, eraikuntzari eta marketinari dagokienez".

Gogoan izan behar da, operazio hau gauzatu aurretik Iberdrola 2007 eta 2009 urte arteko asmoetan

berriztagarrien esparruan 3.250 milioi euro inbertitzea aztertzen ari zela. Hori dena, 700 MW-eko potentzia instalatu ez kutsagarria lortzeko -gaur egungo 4.076 MW-en aldean-, hau da, 2005eko ekitaldian lortutako kopurua baino %85 gehiago. Enpresa eskoziarra erosi baino lehen, 2011n Espainiar Estatuan 7.500 MW-era iristea zen helbururik garrantzitsuen.

Talde boteretsua

Scottish Power erosita, Iberdrola talde boteretsu bihurtuko da, ia 64.000 milioi euroko enpresa balioa lortuko baitu, baita 2.078 milioi euro baino gehiagoko etekin garbia (zergen ondoren) eta 20.000 milioi euro inguruko salmentak ere. Potentzia instalatua 36.603 MW-ekoa izango da, Iberdrolak gaur egun daukana baino %30 gehiago.

Iberdrolak, aurrerantzean ere, Bilbon izango ditu egoitza soziala eta fiskala, eta bertan eraikin berria egiteko zain dago. Egoitza berria 156 metro altu izango da, 35 solairu edukiko ditu eta Euskalduna ontziola zaharraren lurretan egingo dute, Abandoibarran. Era berean, Scottish Powerren egoitza Glasgowen egongo da gero ere, eta marka berbera mantenduko du. ■

Iberdrolako akziodunak

- ✓ ACS (%10)
- ✓ BBK (%9,97)
- ✓ BBVA (duela gutxi saldu ditu akzio guztiak: %8,10)
- ✓ Gaztela eta Leongo Kutzak (%2,47)
- ✓ Juan Luis Arregi (%2,04)
- ✓ Unicaza (%1,62)
- ✓ Bancaza (%1)
- ✓ Sodena (%1)
- ✓ Caja Murcia (%0,75)
- ✓ Caja Castilla La Mancha (%0,48)
- ✓ Victor Urrutia (%0,15)
- ✓ Vital Kutxa (%0,12)
- ✓ Caja Extremadura (%0,11)
- ✓ Ignacio Sanchez Galan, Iberdrolako presidentea (%0,04)
- ✓ Beste batzuk eta Burtsa (%62,15).

Jantziak, osagarriak...

Istilu®

615 73 21 12

Deitu eta katalogoa eskatu !!!

www.istilu.com

Pagoak ikastolaren sustengu

Oztibarre eskualdean, Nafarroa Behereko Larzabale herrian, elkarrengandik oso hurbil eraikin bi ari dira altxatzen: bata eskualdeko ikastola izango da eta bestea Manex Erdozaintzi Etxart kolegioa. Seaskak dirua biltzeko kanpaina hasi berri du.

UNAI BREA

Argazkiak: Gaizka Iroz

IAZKO URRIAN, hondeamakinak lur altxatzen hasi ziren Larzabaleko eremu batean, Oztibarre bailaran. 8.000 metro koadro, proiektu bikoitza gauzatzeko. Han ari dira eraikitzen, elkarren ondoan, Oztibarreko ikastolak eta Manex Erdozaintzi Etxart kolegioak izango dituzten egoitza berriak. 2007-2008 ikasturte hasieran, datorren buruila beraz, biak bukatuta eta haurrak hartzeko gertu egotea espero da. Estreinaldi ofiziala, berriz, urrian egiteko asmoa dute, lanak hasi eta urtebetera.

Oztibarreko ikastola Izuran dago egun, eta 33 haur dabilta bertan. Eraikin berriak 40 hartuko ditu. Kolegioak, berriz, Donaixtin du kokagunea zazpi urte hauetan, Oztibarren beraz, baina bertakoak ez ezik, Amikuze eta Garazi baxenabar eskualdeetako ikasleak ere hartzen ditu, baita zuberotarrak ere. Guztira, 135 haur. Eraikin berrian 200 sartuko dira aise. Kopuruoi Hegoaldeko begiz begiratzen dietenei, argitu diezaiegun Oztibarreko gurasoek erraldotzat dutela egitasmoa. Erraldoia, eta erabat beharrezkoa ere bai, gaur egun ez baitira baldintzarik onenetan aipatu ikastetxeak. Kolegioak bere eraikinik ere ez du, ukan, eta beste elkarte batena dute alokatuta.



Irailerako bukatuko dituzte ikastola eta kolegioa altxatzeko lanak.

Bai ikastola bai kolegioa Seaskako sare barruan izango dira, eta hain zuzen Seaskak hartu ditu bere gain eraikitze-lanei dagozkien gastuak. Eraikinak hornitu, aldiz, ikastetxeek beraiek egin beharko dituzte. Ez da huskeria. Altzariak, pedagogia materialak, ordenagailuak eta abar erosteko, 260.000 euro gastatu beharko dituztela aurreikusi dute.

Pagoak diru trukean

Dirutza hori eskuratzeko, kanpaina jarri berri dute abian. Pagatxa elkarte arduratuko da kanpaina hori bultzat-

tzeaz. Izena ongi aukeratu dute, pagoa izango baita egitasmoaren ardatza. Elkarteko lehendakari Jojo Bordagaraik azaldu duenez, “kanpainaren leloa *Landa milaka pago, eta euskara bizia*go izanen da. Pagoa hartu dugu sinbolotzat, hura baita hemen gaindiko, Irati oihaneko zuhaitz erregea. Pago bezainbat euskaldun sortzen ahal badu gure proiektuak, biziki pozik izanen gara, eta hori da leloaren esanahia, landa milaka pago eta sortu milaka euskaldun”. Inondik ere, inoiz izan den pagadirik euskaltzaleena izango da.

Oztibarreko ikastola
Izuran dago egun, eta 33
haur dabil bertan. Eraikin
berriak 40 hartuko ditu.

Kolegioak, berriz,
Donaixtin du zazpi urte
hauetan kokagunea eta 135
haur ditu. Eraikin berrian
200 sartuko dira aise

Landa milaka pago. Ez da esaldi metaforikoa, kanpainaren funtsa pago landatzea izango baita. Eta milaka badira, hobe. “Dirua erdiesteko protokolo bat planteatu dugu –dio Bordagaraik–: emaitza bat, pago bat. Pertsona batek eman dezake dirua, edo talde batek. Eta ez dugu gutxieneko kopururik finkatu, borondatezkoa izanen da”. Gero, pagoak inguruko eremu batean landatuko dituzte, ez dakite oraindik non, lekurik onena



Oztibarreko ikastola Izuran dago. 33 haur ditu eta argazkian ageri den moduan behin-behineko ikasgeletan ari dira ikasten.

bilatzen dihardute eta. Oztibarren izango da, hori seguru.

Bada beste aukera bat: “Jendeak nahi badu pago bat ukan, bere etxera eramateko, edo herriko etxe batek bere lurraldetan landatzeko, erran nahi baita gure oihanaren kume bat Euskal Herrian

nonbait, hori ere posible izanen da”. Hala egin nahi duenak, ordea, hamar euro eman beharko ditu gutxienez. “Hori guztia esplikatzeko blog bat sare-ratuko dugu, Caroline Phillips ari da horretan, eta bertan informazio guztia eskuratzen ahalko da, xehe-xehe”.

Pagoak landatzeko toki bila

“Hemen pagoak erosiko ditugu, bistan dena”, dio Jojo Bordagaraik. Pagatxa elkarteko lan talde bat ari da zeregin horretan, eta baita pagoak landatzeko lekurik onenaren bila ere. “Konpondu gara oihanen kudeaketaz arduratzen diren bi sindikatekin, eta haiek ados dira lur batzuk eskaintzeko proiektuari. Office National de Forêts (Baso Bulego Nazionalea) delakoarekin ere harremanetan gara, hemengo ordezkariaren bitartez. Bera eskolaz eskola ibiltzen da, sentsibilizazio kanpainak egiten naturari buruz, oihanari buruz... eta hark ere interesgarri antzematen zuen proiektua, bi gauzak uztar ditzagun, behar ekonomikoaren asetzeara eta denbora berean oihan baten landatzea. Beraz, haren

laguntza ere ukanen dugu, laguntza teknikoa esan dezagun”.

Oraindik ez dakite pagadia izango denaren kokagune zehatza, baina hurbil nahi dute, “Oztibarren berean”, eta eroso izan dadin joateko, baita autoz ere. Gainera, ez dira pagoez ahaztuko kanpaina burututakoan. “Xedea dugu –azaldu du Bordagaraik– urte guztiz festa antolatzea toki horretan, eta partaide guztiak biltzea, proiektu honetan diruz edota lan eginenez parte hartu duten guztiak, oihanaren bizia segitzeko urtez urte”. Pagatxakoek, manera horretan, adierazi egin nahi dute euskarazko irakaskuntza bultzatzeko, nola oihan bat sortzeko, landatzea ez dela aski: “Gero behar da hazi, artatu eta abar”. Bada lanik Oztibarre aldean.

Kantaldiak Euskal Herrian zehar

Pago landaketa ez ezik, kultur ekitaldi ugari emango ditu Pagatxak abiatutako kanpainak. Kantaldiak, bizikleta martxak, mendi ibilaldiak... Gehienak Manex Erdozaintzi Etxart kolegioaren eremuan egingo badira ere, hots, Nafarroa Beherea ekialdean eta Zuberoan, Pagatxakoek Euskal Herri osoan barrena eman nahi dute egitasmoaren berri. “Hegoaldeko lau probintzietan aurkezpeneak egingen ditugu –dio Jojo Bordagaraik–, eta kantaldi ibiltaria proposatuko dugu”. Hiriz hiri proiektua aurkeztu, eta aldi berean kontzertuak iragarriko dituzte. “Helburua Iparraldeko talde batzuek kantatzea da, Hegoaldean eza-gutarazteko”, dio Jojo Bordagaraik. Bera izango da abeslarietako bat, bide batez esateko. Jojo eta Ramuntxo bikotearen kanturik entzun baduzue inoiz, badakizue nortaz ari garen. ■

Babeslea: Bizkaiko Foru Aldundia

gure!
artean!
euskaraz



BFA
DFB

Bero-beroan

ONINTZA IRURETA

Nafarroako Unibertsitatean irratsaioa euskaraz

ILUNAFARRA irratsaioa Nafarroako Unibertsitateko ikasle talde batek hasi berri du, ostegunetan gaueko bederatzietatik hamarrak bitartean. Lehenengo ordu erdian informazioa lantzen dute eta bigarren erdian berriz, entretenimendua. Bigarren zati horretan The Fermin Konexion izeneko irratinobela eskaintzen dute eta ondoren euskal talderen batek zuzenean jotzen du. Entzun nahi izanez gero: 98.3 FM eta sarean, www.unav.es/98.3.

Baliogabetutako Azpeitiko euskara ordenantza

AZPEITIKO UDALAK errekurtsua jarriko du euskara normalizatzeko udal ordenantza baliogabetu duen EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren epaiaren aurka. Julian Eizmendi

Azpeitiko alkatearen esanetan, epaia oinarritu den bi argudio nagusiak ez dira egia, hau da, erdal hiztunen eskubideak urratzen direla eta euskararen inguruko legedia eta eskuduntza esparrua ez duela errespetatzen. Alkateak esan du udal ordenantzak Azpeitiko hiztunen arteko berdintasuna bermatu nahi duela. Ordenantza hori 2005eko abenduan onartu zuten udalbatzan alderdi guztien –PP eta PSE-EE barne– aldeko botoarekin.

Manifestazioa apirilaren 7an Hiru Saretak deitua

BAIONAN izango da manifestazioa Seaska, Euskal Haziak eta Biga Baik osatutako Hiru Sareta elkarteak Frantziako hezkuntza politikaren aurka eginga. Frantziako Hezkuntzak Euskararen Erakunde Publikoan hartu zituen konpromisoak ez dituela errespetatu dio Hiru Saretak. Euskaltzaleei eta euskara sostengatzen duten hautetsiei egin die manifesta-

zioan parte hartzeko deia. Max Brisson Euskararen Erakunde Publikoko presidenteari ere luzatu diote gonbitea.

Hamaika eta Tokiko Elkartearen akordioa

HAMAIKA Telebista Hedatzeko Taldea Tokiko Telebista Digitalerako lizentziak direla-eta EAEko hamaikak bost telebista eremuetan euskarazko telebista bana abian jartzeko lanean ari da. Azken hilabeteotan Tokiko elkartearekin negoziatzen aritu da dagoeneko euskarazko telebistak dauden eskualdeetan akordioa iristeko. Lortu duten akordioaren arabera, Hamaika ez da aurkeztuko Tokiko telebistak dituen eskualdeetan eta ordainetan Tokiko-ko telebistak Hamaikak egin nahi duen sare nazionalako kide izango dira; esate baterako, sareko programazioa emango dute telebista horiek. Bestalde, Hamaikak telebista horien enprestan parte hartuko du.

BAHEA

Berriak Aragoiko Gortetako CHAren bozeramaile Chesus Bernali egindako elkarrizketako pasarteak: “(...) Gaztela-Leonek berak galiziera aipatzen du [estatutuan], 1982tik. Eta orain egiten ari diren estatutu berrian leonera ere aipatzen dute. Eta Andaluziako Estatutu berriak erraten du aldaera andaluziarra sustatu behar dela. Azken horrek txistea dirudi, Andaluziako gaztelania baita, hango ahoskerarekin. Aldiz, Aragoi, hiru sistema linguistiko ditugu, eta ez dituzte ofizialki onartzen. Eta estatutuan ez dituzte izenez aipatu. Hitz hutsak bertzerik ez dituzte sartu. Estatutuko testuak dio ezin dela inor baztertu hizkuntza arrazoiak direla medio. Baina zein hizkuntzatzat ari dira? Errumanieraz? Txineraz? (...) PPK bandera egin nahi du horrekin. Nafarroarekin eta bertze gauza batzuekin egiten duen gisara. Eta PPK aragoiera onartuko luke, baina inondik inora ez luke onartuko Aragoi katalana hitz egiten dela. PAR alderdiari gauza bera gertatzen zaio. Eta PSOEk irensten du hori guztia, eta ez die aurka egiten horren kontura”.

Diruak batzen ditu

Azken asteotan, baita honetan ere, bakoitzak bere interesak baino babesten ez dituen ikuskizun politiko eta ekonomikoaren aurrean gaude. Arrazoiak haxe da: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako enpresen onurei ezarri behar zaion zerga mota. Hiru alderdiko Gobernuak bi kide aurrez aurre jarri ditu: EAJ eta EA. Batetik, EAJ eta PP batera ageri dira enpresen interesen alde, zerga hau %32,6tik %28ra gutxiagotzeko erabakia hartu baitute, nahiz eta zerga eraginkorra dagoeneko %14,4 eta %21aren artean izan 2003an. Bestetik, EA kexati azaldu da berarekin hitz egin ez dutelako, eta %30etik behera gutxitzeko ez dagoela prest esan du. Azken portzentaia horrek edo beste altuxeagoren batek PSE, EB eta Aralarrek diotenarekin bat egin lezake. Zerga hau kobratzerakoan,

zifra honetako puntu bakoitzak hiru probintzietan 50 milioi euro baino gehiago ez biltzea esan nahi du. Hain justu, enpresen onuren markak hausten ari direnean. EAJ egungo jarrera mantenduko ote du edo, azkenean, enpresen eta politikarien presioen ondoren, EAJ eta PPrekin elkartuko ote da? Ikusi egin beharko da eta hau ere azalean geratuko da. Deigarria da EAJ eta PP beti elkar bat eginda azaltzea enpresen interes ekonomikoengatik. Orain Elkartearen Zergaren kasua da, atzo parlamentariaren soldaten igoerarena zen, honetara ere gainontzeko taldeek ere bat egin zuten, ezker abertzaleak izan ezik. Interes ekonomikoek, enpresarienek eta diruak batzen dituzte.

Juan Mari Arregi

Armen indarrean sinesten da oraindik

ETA-REN SU-ETEN aldarrikapenak urtebete egin duenean, eta egin diren irakurketei begiratzuz, denak adierazten du bake prozesuak aurrera jarraitzen duela. Orain, urtebete honetako une garrantzitsuenetako baten aurrean gaude, Batasunaren ordezkioak foru eta udal hauteskundeetan partehartzeko aukera izan dezakeen unean.

Urtebete honetan taularen gainean etengabe aritu dira dantzaz su-eten aldarrikapenaren aurretik ETArekin eta Gobernuaren artean ustez egondako konpromisoak. Ezker abertzalearen bertsioa ezaguna da, baina Espainiako Gobernuak beti ukatu ditu konpromisoak. Joan den igandean Alberto Suriok *El Diario Vasco*-n idatzitako kronikan, iazko su-etena ETArekin eta PSERen arteko *metodo akordio* baten ondorio izan zela adierazi zuen, eta akordio horretan Batasunak hauteskundee-tan parte hartzea aurreikusten bazen ere, eduki politikoak alderdien mahaiaren gainean utzi zirela. Suriok iturri onak ditu sozialisten artean, besteak beste Jesus Eiguren bera, ETArekiko harremanetan PSOEren ordezkari izan ei dena. PSE aipatzen



Abenduaren 30ean izan zen Barajaseko atentatua.

du Suriok eta ez Espainiako Gobernua, Jose Luis Rodriguez Zapatero babesteko sozialisten beste neurri bat izan daitekeena, baina bistan da Eigurenek zein ordezkatzan duen, areago gainera ezaguna denean honek Espainiako gobernuburuarekin duen harreman zuzen eta estua.

LAU URTEAN atentatu hilgarri bakarra egin du ETAk, eta gainera hildakorik eragiteko borondate zuzenik barik. Hori bera bakarrik, irtenbidea lortzeko bere ahalegin handiaren isla da; baina, aldi berean, atentatu bakar horrek adierazten du oraindik ere ENAMen borroka armatuari ematen zaion garrantzia zein den. Negoziatio mahaiak gehiago ematen

ez duenean, armek desblokeoa bultzatzea dezaketela uste da. Armen eraginkortasunaren azken bultzadan sinesten da, armak eurak isilarazteko besterik ez bada ere.

Zeren truke, ordea? Arnaldo Otegi Espainiako Gobernuak preziorik ez duela ordaindu behar esan badu ere, argi dago prezioa EAEko eta Nafarroako herritarren erabaki eskubidea dela. Preziorik ez balego, ETak jardun

armatua besterik gabe alboratuko luke eta kito. Baina XXI. mendeko sasoi hauetan, hori ez da jada nahikoa mende erdiko gatazka armatuari amaiera emateko. Gertatuko balitz hobeto, baina ETArekin eta ENAMen historiak erakusten du erakunde armatua ez dela txantxetan ibiltzen eta, beraz, sinesgarritzat jo behar dela bake prozesuak aurrerapenik ez badu, berriz kolpatuko duela: denbora honetan izugarri aurreratu bada ere, hori da urtebete honetako laburpenaren laburpena.

Eta BECeko ezker abertzalearen ekitaldiaren atarian zer? Bada, ekimen berria aurrera ateratzen ez bada, EHAK behinik behin hor izango da azken aukera gisa.



Uxarte Nekazalturismoa

5 logela bikoitz bainugelarekin, telebista eta Wifia. Gosariak eta afariak.

Untzila auzoa
01168 Aramaio

☎ 945 44 51 46
Faxa 945 44 59 10

www.uxarte.net
uxarte@euskalnet.net

Darfur genozidio baten geopolitika

Bi milioi pertsonak egin dute ihesi Sudan ipar-mendebaldeko Darfurretik. 400.000 omen dira hilak. Nazio Batuek eta Gobernu Kanpoko Erakundeek 31 aldiz aldatu dituzte kanpalekuak, erasoen ondorioz. Nola liteke halako krisi humanitarioa inork ez konpontzea? Erantzunak badira.

HAMAIKAGARREN URRATS POLITIKOA

egin zuten Txadeko, Afrika Erdiko Errepublikako eta Sudango agintariak joan den otsailean, nork bere auzokoen lurralde subiranotasuna errespetatzea sinatu zutenean. “Baina diplomazia mailako mugimendu horiek ez dute disimulatu baizik egiten petrolioan oinarritutako nazioarteko blokeo politikoa”. Horra nola definitzen duen bi hitzetan Darfurreko sarraskia Gerard Prunier-ek. Ikertzaile frantses hau Etiopiako Addis Abeban bizi da eta eskualde horretan dago berezitua; 2005ean plaza-ratu zuen *Darfur: The Ambiguous Genocide* titulu argigarria daraman liburua.

Prunierrek antzeko lerroburuz bataiatu du martxoko *Le Monde Diplomatique* hilabetekarian argitaratu duen artikulu gordina: “Darfur, ‘genozidio anbiguo’ baten kronika”. Aditu honek kontatzen duen abiapuntua prentsan herritarrok irakurri ditugun kroniketan ere aurkitu dugu sarritan: etengabe iragartzen da hondamendia ari dela gertatzen Darfurren eta aldi berean Nazio Batuen Erakundea eta Afrikar Batasuna ez doazela Khartumgo gobernuari zigor sinboliko txiki batzuk ezartzetik harago.

Une honetan Al-Bachir-ren gobernuak bere eraso ugarien bidez nola edo hala zera eragotzi nahi du: Darfur eta inguruetan mugitzen diren talde matxinoek batasuna iristeko biltzarra egitea. Ahalegin horren xehetasun

asko prentsak eta telebistak erakutsi dituzte: Khartumgo gobernuaren hegazkinen bonbaketak, bere kontrol-pean ari diren “janjawid” milizien erasoak, herrien erreketak, masakreak...

Prunierrek 400.000 hildako aipatu ditu, beste askok erdia dioten lekuan. Baina edozein gisaz, Nazio Batuen Erakundearen batzorde berezi batek ere aitortua du Darfurren genozidioa ari dela gertatzen. Nola ulertu behar da NBEaren geldotasuna afera honetan?

Hasteko, gerra bera ulertu behar da. Eta estreina, sarraskiak burutzen dituen Khartumgo gobernuaren jokabidea. Prunierrek 2006a arte NBEan Sudanerako ordezkari izan zen Jan Pronk-en hitzak hartu ditu: “Sudango Gobernuko agintariak sarritan aitortu izan didate beraientzako arriskutsuagoa zela NBEaren erabakiak onartzea horiei uko egitea baino. (...) Obedituz gero, barne oposizioa indartu egingo zen eta agintea galtzeko arriskua handitu”. Eta antza denez, arrazoi izan dute orain artean, merkeago atera zaie Darfurreko txikizioarekin segitzea.

Gerard Prunierren hitzetan Sudan go erregimenak eta NBEak “hipokrisia hitzartua” darabilte Darfurrekoaz. Batzuek eta besteek bai baitakite hartutako presio-neurri guztiak —Sudan Afrikar Batasunaren izenean dau den 7.500 soldaduak barne— ezertarako balio ez dutela.

Darfur zabalean bizi ziren zazpi milioi eta erdi biztanleetatik herenak (2,5 milioi) nork bere etxetik ihes egin behar izan du, lau urteotan luzatu den gerragatik. Horiez gain, gerrilla taldeen eta Khartumgo gobernuaren arteko gatazkak erakunde batzuen ustez 200.000 heriotza eragin ditu, eta beste batzuen iritzian —Gerard Prunier adituarenean, esaterako— 400.000-tara iritsi da kopuru hori, herritarren %5 baino gehiago. Ihesi joan direnak batzuk Darfur bertako kanpalekuetan daude, baina gehienek Sudanen mugetatik harago alde egin dute, “janjawid” paramilitarren ikaraz. Kanpaleku horietako batean dago egina ondoko argazkia. Joan den urtarrilean balizko gerrillari talde nagusiak eta Khartumgo gobernuak su-etena sinatu bazuten ere, erasoak ez dira atertu eta atzerriko erakunde humanitarioen laguntzak ezin dira iritsi Darfurreko kanpaleku askotaraino.

Itxurakeria horrekin segitzeko interesa dute Sudanen interesen bat daukaten guztiek, bertako gobernuaz gain. Amerikako Estatu Batuek luzaz etsai nagusitzat eduki du Khartumgo erregimen islamista, baina 2001eko irailaren 11az geroztik Al-Bachirren gobernuak Washingtonen aurrean halako errespetua lortu du. CIArekin ere harremanak aldatu omen dituzte zerbitzu sekretu sudandarrek, eta orain “terrorismoaren kontrako gerra” famatuan laguntzaile zintzoak direla diote.

Sudan zatituko denerako mugak

Txina arizale nagusietakoa da Sudan go geopolitikan. Afrikan dituen merkataritza bazkideen artean bigarrena du Sudan, 2.900 milioi dolarreko salerosketak dauzkate elkarren artean eta bertako petrolioaren %65 Txinak erosten dio. Pekin ari da Meroe-ko urtegia eraikitzen, 1.800 milioi dolarretan. Ez da harritzekoa Al-Bachirren erregimenaren kontra NBEan aurkeztzen den edozein neurrik beti txinatarren ezezko botoa jasotzea.

Frantziak ere baditu interesak bertan, Sudanen AEBek edo Txinak baino eragin txikiagoa izan arren, mugakide diren Txad eta Afrika Erdiko Errepublika frantsesen aliatu historikoak direlako... eta bi horietan badirelako gerrilla taldeak Khartumek sustatzen dituenak.



Afrikako estatuak deskolonizazio garaian mapetan egindako marraz diseinatutako herrialdeak dira eta lurralde horietan dauden herri eta etniak marra horien gainetik zabaldua bizi dira. Etnia-aniztasun honek ere eragina badute Darfurrekoa bezalako gatazketan. Horrela, Txadeko lehendakari Idriss Deby Itno zagyawa etniakoa da eta Darfurreko biztanle batzuk ere hala direnez, gerrilla babesten du. Esan dugunez, Sudango Gobernuak beste gerrillari batzuk sustatzen ditu Txadeko eta Afrika Erdiko Errepublikako erregimenen aurka, eta hauen alde Frantziak bertan dituen tropak ahalegintzen dira, hegazkinak batik bat.

Darfurreko gerrillak eta Sudango Gobernuaren erasoak esplikatzeke, arazo etnikoekin klima aldaketaren ondorioak ere aipatu izan dira. Alegia,

lehortekak nomada arabiarrek bultzatzen dituela nekazari beltzei erasotzera. Hipotesi hori gezurtatu du Gerard Prunierrek. Izan ere, nomadek ez dute hegazkinik eta Darfurren bonbaketak gertatzen dira. “Janjawid” miliziak gobernuak pagatutako militarrek dira. Bestalde, milizia horietan etnia bat baino gehiagoko militar ohi, libre utzitako gaiztagin eta diruz ordaindutako milaka gizonek hartzen dute parte, baita etnia beltz txiki batzuetako kideek ere.

Saltsa horren guztiaren erdian, zein da Darfurreko biztanleen kontrako sarraskiaren zergatia? Arrazoia ez da erlijiozkoa, Darfurren hiltzaileak bezala biktimak denak baitira musulman sunitak. Arrazoia arrazari eta kulturari lotuta dago. Arabiarrak gutxiengoan daude Sudanen. Eta erregimen islamiarrean mamitzen da gaur egun hauen nagusi-

tasuna. Kontua da Sudan bitan eteteko zorian dagoela: gero eta garbiago dago porrot egin zuela duela bi urte Khartumgo erregimenak eta hegoaldeko gerrillari beltzek hitzartutako bakeak. Eta Prunierren ustez Al-Bachir Darfurren halako eraso prebentibo bat ari da burutzen, larrialdian sentitzen delako.

Sudan zatitzen bada petrolio nagusi-hegoaldean geratuko litzatekeenez, bi aldeek arteko muga bortxatu nahi da Khartumdik petrolioaren zatirik handiena bere eskuetan atxikitzeke. “Fite manipulatua nahi dute Hego-Ipar mugaren lerroa, petroliorik gehiena hegoaldean uzten duena. Bestalde, gerra berriro hasteko prestaketak egiten dituzte, armak erosiz; aliantza nazioartekoak sendotzen dituzte –Txinarekin lortu dute eta orain Iran ari dira seduzitzen– eta lurraldea kontrolatzeko osasun-lerro bat sortu nahi dute”. Horregatik da hain estrategikoa Darfur erabat menderatzea.

Beste xehetasun bat: Sudaneko armadan beltz asko direnez, horregatik antolatu dituzte etnia minoritario txirotako jendez eta gizaki desklasatuz osatutako “janjawid” miliziak.

Gure begien aurrean gertatzen ari den genozidio berriaren geopolitikaren hariak esplikatuta, honela bukatu du Gerard Prunierrek: “Azkenean, petrolioaren etekinak babesten dira sistema hiltzaile baten ordainez. (...) Darfurrekoak lau urte daramatza. Eta ‘berriz horrelakorik ez’ diotenek erakusten dute edo burugabeak direla edo hipokrisia ikaragarriaren jabe. Zeren eta berriro ere, hilotzen garrantzia beren larruazalaren kolorearen arabera da baita”. ■

<http://www.argia.com/nethurbil.php>
helbidean, gai honi buruzko informazio
gehiago eta Interneteko loturak.



G A R A N T I A

**Konfiantza
delako
garrantzitsuena**

Egunez egun
zure konfiantza
geureganatzen dugu,
etengabe produktu
berriak eta
zerbitzu berriak
bilatzearen bidez.

**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 4 - 20004 DONOSTIA
e-posta: zinkunegi@euskalnet.net
TEL: 943 420 624

lūigo Aranbarri

Bizitza nola badoan

E

rrepide nagusia utzi eta baratxago sartu naiz azken eraikinen artean. Gasolindegia, jatetxea, bankua, oroi-garriak. Sangria eskaintzen duten arbelak eta flamenko dantzariak martxoko euripe hotzean. Zubi gainetik igarotzean, Arestiren adorerik batzeke, leihatilatik besoa atera eta oihurik jalgi gabe zeharkatu dut mapan lerro gorri lodiz agertzen den hori. Eguerdia da, eta berandu, bazkaltzen harrapatuko dut. Giltzatu gabe du atea.

– Zer moduz, galdetu diot.

Pentsatu bezala, ez naiz garaiz iritsi. Oilasko paparra du platerean, eta bakarrik dago. Euskadi Irratia du piztuta. Ez dakit zenbat hildako Bagdaden.

– Zer nahi duk esatea. Bizitzen aspertuta.

Orain lau hilabete bizitzan eta bizitzen makulu izan duen laguna hil zaionetik, bakarrik da. Elkarri ezer esan gabe, euripean imajinatu dugu haren hilobia, muinoan, Hegoaldera begira. Hor da Hendaiaiko industrialdea, hor Bidasoa eta Aiako Harria, Jaizkibel eta Pasaialdea, eta atzeatzean, baita Izarraitz ere, triku baten antzera uzurtua. Ea bisitan-eta etortzen zaizkion, eta baietz, egunero. Eskatu gabe, ezagutzen ditudanen izenak ematen dizkit, tapa-tapa. Baina ez da hori. Laurogeita hamahiru urte ditiat, esan dit.

Bera da beraren sukaldari. Goizero, etxe atzeko baratzean aritzen da hutsik egin gabe. Ondo aitzurtua du. Belarri berdeak luberritik kukuka: tipulak. Tomate haziak sartu berri. Porruak atera, astindu, lurra kendu eta, kanilapean garbi eta txikituta, patatarekin lapikora sartzen ditu iluntzero, azken hogeitaka urtean berdin.

Zerbait hartuko dudala, ardoa, bermuta, zer edo zer. Estimata dagoela baina ez naizela edan zahar. Hegazti paparra utzi, eta lagunez hitz egin dit. Halakori hau eman dio, bestea makal dabil. Bera baino gazteagoak guztiak. Senideen artean, panorama ez da hobe. Arreba bat du Mutrikuko zaharren etxean, orain



DANI BLANCO

neba ere ezagutzen ez duena. Etxekoa ere, eri handi. Bestea, hilda.

Denborarekin, heriotza etxekotu egiten da. Uzten gaituen bakoitzak, gonbidatu egiten du bere lekua betetzera geratu garenon mahaira, eta hala, gero eta hurbilagokoa dugu azkenerako. Ez haren irudia, ezta hari diogun beldurra ere, heriotzaren errealtatea bera baizik. Oroimenek, pisua galtzen dute, arindu egiten dira. Berreskuratzea lortzen dugun irudian agertzen direnak, joanak dira. Dena da xareago egunerokotasunaren harripean.

– Bazkaldu al duk?

Joan beharra dudala esan diot, badakit siestara sartu ohi dela segidan. Itzuliko naizela lasaiago. Autoko irratan, Xabier Arzalluzen hitzekin ari dira, ea Jon Jauregiren kasuan, hainbeste etxerekin, hautagaiaren ondasunak “apalak” diren. Politikoen hizkerak, badu hori. Dena da perfekzio, idaz-

leek ere lortzen ez duten hitzen edertze etengabea. Poliziak eserita dauden manifestariak txikitu, eta egurtuena errua. Edozein salaketa egin, eta ahoa ireki duena xehatu makinak. Mintzo aratz, biribil, zirrikiturik gabea, gutxiasko, erregistro politiko guztien; areagoa hautes-hotsa dela txaide zabalean. Usu, satisfazioaren kultura. Ezin giza ahuldaderik erakutsi: bizitzen aspertu. Ederra behar du larderiaren hozkak.

Lagundu ezinik, barregarri aritu natzaio. Kanpoan, zeru iluna sukalderaino abaildua. Zer egingo zenuke gustura? Joango gara hara? Nahi duzu hau ekartzea? Alferlanak guztiak. Izan ere,

zerekin limurtu metroan neu baino higitzez lehenago ibilia dena? 1945eko uztailaren hamalaua zen eta Parisen zebilen, estatubatuarrek “Espainian sartzeko” behar ez zituztela-eta, festa erdian utzita. Behartuz gero, geltoki guztiak datozkio: Legutio, Santoña, Puerto de Santa Maria, Clichy, Baigorri, Hendaia, Ajuria-Enea, Argel, Lizarra-Garazi, Barajas...

– Besterik ezagutu al diagu bada...

Politika bihotzarekin nahastea, horragure makurra. ■

Orain lau hilabete bizitzan

eta bizitzen makulu izan duen

laguna hil zaionetik, bakarrik da.


Elkarri ezer esan gabe,

euripean imajinatu dugu

haren hilobia, muinoan,

Hegoaldera begira

ASTE HONETAKO zozketa



Su ta Gar

Apirilaren 21ean
Bardoze plazan
"Jainko Hilien Uhartean"
diskoaren aurkezpen kontzerturako
5 harpidedunentzat bina sarrera

www.sutagar.com
sutagar@sutagar.com

1



Txiki Polit Jatetxea

Afaria 2 lagunentzat

Musika plaza, z/g
Zarautz GIPUZKOA

www.txikipolit.com

2



Istilu banaketak

4 arropa sorta

Kalamua 25, behea
Elgoibar GIPUZKOA

www.istilu.com

3



Atxaspi Hotela

Asteburu pasa
bi lagunentzat

Bittiria kalea, 24
Lesaka, NAFARROA

www.atxaspi.com

4



Ziztadak

2 mahai jolas opari

www.argia.com/denda



5

AURREKO ASTEKO IRABAZLEAK

UROLA JATETXEA

- Jesus Gonzalez Esteban (Oiartzun)

INGURU ABENTURA

- Javier Altzorritz Lardies (Bilbo)

ERLEA GURE SENDAGILE

- Juan Joxe Uria Zubiarain (Hernani)
- Ixabel Jauregi Alberdi (Azkoitia)
- Joxemi Saizar Arostegi (Tolosa)
- Manuel Arregi Urrutia (Zestoa)

DONOSTIAKO AQUARIUMA

- Gorka Moreno (Zornotza)
- Monika Barcena Basañez (Getxo)
- Iñigo Gogenola Bilbao (Berriatua)
- Francisco Larrea Olasagasti (Donostia)
- Iñaki Urutxurtu Fernandez (Antsoain)

ARRIGORRI ITSAS PENTSIOA

- Ortuella BHI (Ortuella)

15. *æek*
KORRIKA

**denok
Iruñera!**



heldu

HITZARILEKUKOARI
ELKARLANARI EUSKARARI
HERRIARI

